

Zu hemen zaude.

goiena

AUTOBUSEKO JOAN-ETORRIAK ERDI PREZIOAN DEBAGOIENEAN ERE

Autobus zerbitzu publikoan Mugi txartelarekin bidaiatzeak
%50 gutxiago balio du atzo ezkeror, urtea amaitu arte / 6

Lurraldebuseko erabiltzaile bat Mugi txartelarekin ordaintzen, aste honetan, Arrasaten. HASIER LARREA



Presak eraisten dabilta Deba ibaian, arrainek gora egin dezaten errekan, oztoporik barik / 3

TAO zerbitzua herriko beste kale batzuetara zabaldu, eta prezioak merkatu dituzte Arrasaten / 10

Eskoriatzako Errekan Gora aurkeztu dute; sei kontzertu izango dira iraileko hirugarren astean / 21

Inork lortu bakoia egingo du tetraplegia duen Joseba Azkarate atleta oñatiarrak

Zumaiako Triatloman ariko da irailaren 10ean. "Erronka izan da igeri egiten berriro ikastea", dio Antxintxikakoak / 36



Azkarate, Ainhoa Calleja eta Aitor Rementeriarekin, astean Zubikoan. XABIER URZELAI

SINADURAK

 MAIDER AZKARRAGA-URIZAR / 8	 AITOR UGALDE / 33
 ANE SANCHEZ ZEZIAGA / 12	 MARIA AGIRRE / 48

 Oñatiko Filatelia eta Numismatika Taldea ezagutzen
Irtati Barrena kazetariari elkarrizketa

Hemen garbiketak

Inoiz baino garrantzitsuagoa

ZURE KONFIANTZAKO GARBIKETA ENPRESA

ESKORIATZA
T. 943 71 48 45
www.hemen-garbiketak.com
hemen@hemen-garbiketak.com

SKODA ENYAQ IV

DISFRUTATU TEKNOLOGIAZ!

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 35 • ARRASATE • 943 71 18 70





Bisitariak Oñatiko San Migel parrokan, Edurne Urteaga turismo gidariarekin. J.I.

Oso uda ona ostalaritzan; freskura bila zetozenak ernegatu egin ditu beroak

Oraindik orain datu zehatzik ez egon arren, oso okupazio altua izan dute eskualdeko ostalduak; Oñatiko Turismo Bulegoan, aldiz, beherakada sumatu dute: hain tenperatura altuekin, bisitari askok nahiago izan dute eguna kostaldean pasa, giro itogarritik ihesi

Julen Iriondo M. de Zuazo OÑATI
Debagoieneko ostalduetan oso ondo lan egin dute aurtengo uda sasoiari: hala baieztatu diote GOIENARI Oñatiko Etxe Aundi eta Soraluze hoteletan, Elgetako Maialde landetxean eta Arrasateko Uxarten –hori diote Eustaten datuek ere: Gipuzkoa barnealdean 2019ko langa gainditu zuten uztailean hoteletako sarrikeriek eta emandako gauek, 18.496 (5.237 gehiago) eta 34.919 (982 gehiago), hurrenez hurren–.

Okupazio maila altua izan arren, bertako bazterretara egindako bisitak ez dira proportzio berekoak izan; are, jaitsi ere egin dira. Euskal Herriko, Espainiako eta Belgikako lagunez osatutako bisitari talde batekin unibertsitateko eta parrokiako osteratxoak amaituta, hala zioen Oñatiko Turismo Bulegoko Edurne Urteagak: "Bulegotik pasatu

den jende kopurua da jaitsi dena. Bisita gidatuetan bai, bisitari gehiago izan ditugu, nahiz eta 2019ko mailara iritsi ez. Tenperatura altuek gure kontra egin dute. Uztaile eta abuztua artean 33 egunetan egin ditu 30 gradutik gora, eta jendeak kostaldera jo du gehiago. Bestetik, iaz neurri murriztaileak zeudenez eta atzerrira, adibidez, joan ezin zenez, jende askok gertuko turismoa egin zuen; aurten, mugak zabaldu, atzerritarren bisitak berreskuratzen hasi gara, 2019ko kopuruetara iritsi gabe, eta jaitsi dena da euskaldunen eta Espainiako kopurua".

Eguna pasatzera, bai, Debagoienetik kanpora, baina, esan bezala, asko izan dira bailaran ostatu hartu dutenak. Oso ehuneko handietan egon da eskualdeko okupazioa, %100etik gertu Goienak iturri izan dituen alo-

jamenduetan: "Hilabeterako egonaldi bat hasi bezperan, gela baten erreserba bertan behera utzi ziguten; hori arazo handia da hotel batentzat, baina berriro erabilgarri jarri eta berehala joan ziren gela hartzen, dena bete arte", dio Soraluzeko Amaia Lizarralde. Elgetako Maialdeko Izarra Arriaran ere pozik: "Singapurretik ere etorri dira!".

Ostalari guztiek aipatutako gauza, hori bai, Andaluziatik, adibidez, giro fresko bila etortitako bisitariak ez dutela aurten halakorik aurkitu, eta horrek ernegatu egin dituela apur bat:

AZKEN UNEAN BERTAN BEHERA UTZITAKO ERRESERBETAKO GELAK ERE BERRIRO BETE DIRA

"Eta gauza da hemen ez gaudela prestatuta hainbesteko berorako. Galdetzen ziguten lehen gauza zen: 'Aire giroturik baduzue?'".


Eguraldiak mesede egin dienak Arrasateko Uxartekoak izan dira. Ostalduko gela guztiak beteta izateaz gain –hori ohikoa da–, aurten eskualdetik eta ingurutik bakarrik ez, "Azpeititik, Tolosatik eta Zumarragatik ere, adibidez" joan zaizkie, mendi buelta ostean bertako igerilekuan freskatzeko planarekin, Maite Uribarrenen esanetan.

Lotarako eskualdea aukeratu dutenetara itzulita, askotariko egonaldiak izan direla diote ostalariak; hamabost egunekoren batzuk ere bai –Debagoiena erdigunean egonda, bailaratik hiriburuetara eta egiten dituzten bisitak jendeak–, eta guztiek azpimarratu dute, Etxe Aundiko Xegun Altolagirrek zioen bezala, beste herrialde batzuetara bidean atseden hartzeko geldialdia egiten dutenak ere asko izan ohi direla.

Honekin guztiarekin, taberna eta jatetxeei dagokienez ere, abuztuaren irekita izan dutenak ondo lan egin ei dute; adibidez, Bergarako Irala kalekoek. Zabalik gauza askorik ez eta zenbait unetan "larri" ere bai Pol-Poleko Dunixi Olabarriaren arabera, eguna kanpoan pasa arren otorduak herrian egin dituzten bisitariarekin eta Bergaran egon diren eta betiko ohiturei eutsi dieten herritarrekin gustura Eruaneko Fernando Etxabarri.

**XABIER ALVAREZ**
ZARAUTZ

"Zarautzik etorri gara, Belgikako lagun batzuekin. Arantzazu bisitatu dugu aurrena, eta Oñati gero. Asko gustatu zaie; azalpenak ulertzea kosta zaie apur bat, ze erdaraz badakite, baina gidariei jarraitzea ez da erraza. Orain, bazkaritan, azalduko diegu dena".

**MARIA JESUS CAÑELLAS**
MADRIL

"Kasualitatea izan da, baina bizitzako casualitate onenetakoa, ze inoiz ez nintzen bestela Oñatira etorriko, eta uste dut etorri egin behar dela hona, ikustekoa da. Arrikruzen ere izan gara goizean, ikusgarria da; gainera, dituzuen gidariak primerakoak dira".

**RAMON MARTINEZ**
ARRASATE

"Madrilgo lagunak zetozela eta antolatuta dugu bisita, eta nik ere ezagutu dut gehiago Oñati, bide batez; egon gabea nintzen elizan, unibertsitatean eta Arrikruzen. Koba, ikusgarri; eta herriko bisita ere bai. Sarri urrutira joan, eta ondokoa ez dugu ezagutzen".

Julen Iriondo M. de Zuazo BERGARAN
Bergarako autobus geltoki pareko Matxiategiko presa eta Elorregi eta Epeleko araztegia artean zegoen beste bat eraitsi dituzte aurreko hilean Deba ibaian. Errekak leheneratzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren plangintzaren baitakoak dira lanok, eta Diputazioa eta EHU kide dituen Europako Merlin proiektuaren barruan ere badaude. Proiektua hamazazpi eremutan ari dira gauzatzen, ur gezetako ekosistemak –hezegune, erreka, arro eta ibaietakoak– berreskuratzeko, Europa iparralde eta ekialdean gehienak; penintsulan hiru daude, Portugalen bi eta Deba ibaikoak.

Merlin proiektuaren barruan, Deba ibaian botatzeko hamar presa jo zituzten begiz, egun funtziorik ez dutenak. Uda honetan botatako ez gain, asmoa da beste bi botatzea datorrenean, Labegaraietan bat eta Elorregin bestea –ondare babesa dute, eta aurretik beste izapide batzuk egin beharra dakar horrek–. Horiakin batera daude Mendaron eta Altzolan bota berri dituzten beste bi eta Soraluzen botatzeko asmoa duten lau.

Emaitzak denbora laburrean

Arturo Elosegiren esanetan, "Europako oro har, oso-oso egotxa txarrean" izan dira errekek eta ibaiak: "Garai batean kutsadura zen arazo nagusia; baina azken urteetan hainbat inbertsio egin dira saneamenduan, arazketan, eta kutsadura asko murriztu da –oraindik jarraitzen du arazo izaten leku batzuetan, baina ez da hain-hain larria–. Orain konturatu gara beste arazo oso larri bat daukagula, eta da ibaiak guztiz presaz beteta dauzkagula. Europako bakarrik milioi batetik gora presa daude. Eta presa horiek kalte egiten diote ez bakarrik beti aipatzen den izokinari, ze ibaietan arrain migratzaile pila bat daude, eta migratzaile ez direnek ere mugitu behar izaten dute tarteka –duela urte batzuk arrain pila bat hil ziren Deban isuri kutsakor bategatik, eta leku horretara berriz ere arrainak iritsiko badira, mugitzeko gaitasuna behar dute–. Horrez gain, presek habitata artifizializatu egiten dute guztiz, eta uholde arriskua ere handitzen dute –klimatekin, gero eta uholde eta kalte handiagoak gertatzen ari

"Apustu egingo nuke urte gutxian ikusiko dugula izokina Deban"

Aldundia eta EHU kide dituen Europako Merlin proiektuaren barruan, bi presa bota dituzte abuztuan Deba ibaian, Bergaran eta Elorregin. Besteak beste, erreka-konektagarritasuna hobetuko du horrek, EHUko ikertzaile Arturo Elosegiren arabera



Matxiategiko presa botatzen, Bergaran, uda honetan. IDOIA ARANBARRI ARZUAGA



Elorregiko presa botata, abuztuan honetan. HASIER LARREA

dira, eta hori ere hasi behar gara, aurrera begira, kontuan izaten. Uholde arriskua mugatu nahian eta ibaien naturaltasuna berreskuratu nahian, orain dagoen lehenetsunetako bat da presak kentzea. Eta Gipuzkoako Aldundia nahikoa aitzindari da lan horietan European".

Gipuzkoako presetako asko "duela 100, 200, 400 edo 600 urtekoak" direla dio EHUko ikertzaileak: "Batzuk dira Erdi Arokoak. Garai bateko errota baterako edo burdinola baterako egin ziren; baina errota desagertu da, burdinola desagertu da, ez daukate inongo zentzurik, eta kaltea eragiten dute. Noski, ez goaz presa guztiak kentzera; oraindik batzuk behar ditugu, zalantzarik gabe, baina aipatutako milioi horretatik erdia kentzea lortuko bagenu, asko hobetuko litzateke egoera".

Presak kendu diren lekuetan, emaitza laster antzeman dela ere badiu Elosegik: "Leku askotan, ibaiaren habitata naturalizatu egin da: lehen guztiz geldotutako ur putzu bat zen, eta orain ur lasterrak-eta berreskuratu dira; izokinak hasi dira leku askotan sartzen eta gero eta gorago sartzen –esaterako, Oria ibaian Iruraraino iristen dira dagoeneko, eta lehen, oker ez banago, ez ziren Usurbildik pasatzen–. Zalantzarik gabe, ikusten da onurak nabarmenak direla, eta oso azkarrak".

Deba ibaian izokinik ez dago gaur egun. Dena dela, eta izokina jaiotako erreka itzuli ohi den arren, zenbait despistatu ere egiten direla-eta, Debagoiengan berandu gabe ikusiko direla uste du Arturo Elosegik: "Oraindik beste presa mordoxka bat daude martxan. Horieta batzuek badauzkate arrainen-tzako eskailerak; badira oraindik eskailerarik ez dutenak, hori konpondu beharreko zerbait litzateke. Baina, bai, bai, izokina iritsi liteke Debagoienera arazorik gabe, Elgoibarreraino iritsi ahalko lukete gaur egun. Apustu egingo nuke urte asko pasa gabe ikusiko ditugula izokinak Deba ibaian".

PRESA ASKOK ETA ASKOK EZ DUTE FUNTZIORIK GAUR EGUN, ETA KALTEA ERAGITEN DUTE



Karakateko mendigaina, atzean antena duela. U.I.L.

Elosutik bidea, parke eolikoa garraiatzeko

Otsailean jakinarazi zuen Capital Energy taldeko enpresak Karakaten 100 metrotik gorako bi haize-errota jartzeko asmoa zuela, eta abuztuan aurkeztu ditu xehetasunak. Orain, erakundeak –tartearen, Bergarako Udala– proiektua aztertzen ari dira

Uxue Igarza Loiola BERGARA

Abuztuaren hasieran, Green Capital enpresak Karakateko parke eolikoaren gaineko xehetasunak argitaratu zituen txosten batean. Zehazki, bi dira jarri nahi dituzten errotak –100 metroko zutoina eta 80 metroko hegalekin–, eta piezak garraiatzeko, Elosutik joango den bidea eraikitzea proposatzen dute –bost metro zabal eta zortzi kilometro pasatxo ditu–. Horrez gain, dorre meteorologiko bat ere jarri nahi dute –hori ere 100 metro ingurukoa–, eta horretarako, 520 metro karratuko plataforma eraiki beharko luketela azaldu dute txostenean.

Kokapena ere zehaztu du enpresak. Dorreak antena baino apur bat aurreragoetik Gizaburuagako tartean ipini nahi dituzte; dorreak Karakateko antena baino bi aldiz altuagoak izango dira. Bestalde, dorre eolikoak muntatzeko 3.000 metro karratu beharko direla aurreikusten dute.

Piezak eramateko, "aukera bat"

Enpresak azaldu du dorreen pieza handiak garraiatzeko, bidea egitea dela irtenbidea. "Parke eolikorako sarbide orokorra lehendik dagoen bide-azpiegitaratik abiatuta egingo da", diote dokumentuan. Horretarako, Elosuan hasi eta dorreak eraikiko diren guneraino, pistak egokitu eta bost metro zabal eta zortzi kilometro luze dituen galtzada egin nahi du Green Capital enpresak.

Karakate Bizirik plataformak "kezka" adierazi nahi izan du gaiaren bueltan: "Errepide horrek mendigain guztia zeharkatuko luke, baita eremu megalitikoak gurutzatu ere, zenbait megalitotatik oso distantzia txikira igaroz".

Bergarako Udala, aztertzen

Egoera administratiboari dagokionez, Karakateko parke eolikoaren proiektuak ingurumen-ebaluazio pasatu behar du oraindik. Horretarako –enpresak

aurkeztutako txostena oinarri–, Jaurlearitzak kontsulta egin die proiektua kokatuko den inguruko erakundeei; besteak beste, Bergarako Udalari. Ingurumen azterketan kontuan hartu beharrekoak zerrendatu beharko dituzte erakundeek, eta irailean erdialdera arte izango dute horretarako tartea.

Nerea Egia Bergarako Udaleko Ingurumen teknikariak azaldu du dagoeneko hasi direla ebaluazio lanetan. "Proiektu potoloa da, eta Bergaran, batez ere, sarbideek eragingo dute, bidea Elosutik egitea proposatzen baita", dio. Behin udalen eta gainerako erakundeen ekarpenak jasota, Jaurlearitzak enpresa sustatzaileari helaraziko dizkio.

100 METROTIK GORAKO HIRU DORRE ERAMATEKO, 8 KM-KO BIDEA EGIN NAHI DU GREEN CAPITALEK

Begirada 20 urtez atzera

1998an egin zen lehenengo aldiz Karakate eta Irukurutzeta artean dauden lau kilometroetan parke eolikoa jartzeko proposamena.

Inguruko herrietako mendizale ugari mobilizatu ziren asmo horren kontra. Mendigainak Ikutu Bez! taldea sortu zen, eta sinadura bilketak eta mobilizazioak egin zituzten, besteak beste.

Azkenean –batez ere, aztarna megalitikoak babesteko aitzakiarekin–, proiektua baztertu egin zuen Eusko Jaurlearitzak.

Ondoren, urrian, proiektuak ingurumeneari izango duen eragina aztertzen duen txostena argitaratu du enpresak –udalek zerrendatutako ekarpenak aintzat hartuta–. Ostean, berriz izango da herritar eta udalen txanda, alegazioak egiteko.

Mobilizazioak eta dinamikak

Green Capital enpresaren asmoa salatu dute, beste behin, Karakate Bizirik plataformako kideek –Soraluzeko eta Elgoibarko herritarrek osatzen dute–. "Lanean jarraituko dugu datozen hilabeteetan, proiektu txikitzaile hau geratzea lortu arte, bai bide legeetatik alegazioak jarritz, bai herritarren mobilizazioa sustatuz (...) Proiektuaren helburua, energia sorkuntza aitzakia moduan hartuta, irabazi ekonomikoak lortzea besterik ez da", adierazi dute. Era berean, Elosutik abiatuko den bidea gaitzesteaz gain, dorre meteorologikoek eragingo dutena ere jarri dute jo-puntuan: "Ebakuzioa Elgoibarko Azkueko zentralera egingo da, 4 kilometroko sarean zehar lurpetik, eta auzo horretan bertan sekzionamendurako eraikuntza berria aurreikusten du enpresak".

Mendilerroa bueltatuta, ingurunearen balio natural, arkeologiko, geologiko edota paisajistikoa "babestu" behar direla azpimarratu dute. "Karakate Elosurainoko mendigaina bizirik nahi dugu", diote.

Traste zaharrak egoki sailkatzea eskatu du Mankomunitateak

Traste zaharren bilketa zerbitzua "egoki" erabiltzeko dei egin die Debagoieneko Mankomunitateak bergararrei; izan ere, ohar bidez azaldu duenez, azken asteetan, zerbitzu horren baitan sartzen ez diren hondakinak aurkitu dituzte kalean. "Bergarako traste zaharren bilketa zerbitzuan tamaina handiko hondakion gain, zerbitzu horri ez dagozkion hondakinak jaso behar izan dira; hala nola arropa, papera, kartoia edota motor olioia", adierazi du.

Martitzenetan 20:00etatik 22:00etara bitartean atera ditzakete Bergarako herritarrek altxariak, etxetresna elektriko handiak edota koltxoak, Mankomunitateak jaso ditzan. Hondakinak atera aurretik, baina, 943 71 19 38 telefono zenbakian mezua utzi behar da.

Debagoieneko Mankomunitateak "erantzukizunez jokatzeko" dei egin die herritarrei, eta gehitu du zalantzak izanez gero 940 50 47 21 telefono zenbakira deitu daitekeela.

Hiru debagoiendar Gipuzkoako Artzain Txakur Txapelketan

Legazpiko Artzain Eguna ospatuko da domekan, eta, beste urte batez, eskualdeko artzainak protagonista izango dira Gipuzkoako Artzain Txakur Txapelketan. Oñatiko Miguel Arregik –Lagun eta Oiz txakurrekin– eta Jose Mari Bengoak –Zeu txakurrekin– eta Arrasateko Jesus M. Plazaolak –Mendi–rekin– hartuko dute parte.

Goizean hasiko den egitarau zabala antolatu dute. Azoka 10:00etan hasiko da, eta gazta lehiaketa, haurrentzako gaztagintza tailerra, gazta eta sagardo dastaketa, ardi mozketak erakustaldia, artzain txakurrak trebatzeko saioa, Euskal Herriko latxa arrazako ardi eta ahari erakusketa, musika bandaren kalejira eta beste hainbeste egongo dira. 14:30ean herri bazkaria egingo dute, eta 17:30ean hasiko da Gipuzkoako 53. Artzain Txakur Txapelketa. Guztira, bost artzain lehiatuko dira, eta, esan bezala, horietatik hiru dira debagoiendarrak.

Berehala hasiko dira eraikin zaharra eraisten

Debagoieneko Ospitale zaharra bota eta eraikin nagusia handitzeko lanak hilabete honetan hasiko dira. 24 milioi euroko inbertsioa egingo du Osakidetza, guztira, eta, aurreikuspenen arabera, 2026rako egongo dira martxan zerbitzu guztiak



Eraikin zaharra bota ostean ospitaleak hartuko duen itxura. GOIENA

U. I. L. ARRASATE

Iazko urrian jakinarazi zuen Gotzone Sagardui Osasun sailburuak Arrasateko Ospitalearen eraikin zaharra bota eta eraikin berria handitzeko asmoa zuela Osakidetza. Ospitaleko zuzendaritzak azaldu duenez, iraileko lehenengo hamabostaldian ekingo diote eraisteari, eta, aurreikuspenen arabera, urte amaierarako botako dute.

7.000 metro karratuko eraikin berria jasoko dute ondoren: hiru soto izango ditu, beheko solairua eta beste lau solairu gainetik. Momentu honetan, Debagoieneko Ospitaleak ia 65.000 pertsonari eskaintzen die arreta, baina, eraikina handituta, eskualdearen beharrez gain "Gipuzkoa osoko beharrak" aseko dituela uste dute osasun agintariek. Besteak beste, lehen mailako arretako eta osasun mentaleko kontsulta gehiago eta larrialdietarako eremu bat gehituko dira.

Eraikina husteko zain

Debagoieneko Ospitaleko zuzendaritzak azaldu duenez, Arrasateko Udalak bide publikoa erabiltzeko eman behar duen baimenaren zain daude eraikina hustu eta botatzen hasteko: "Gas sendagarrien tankeak eta erresonantzia magnetiko mugikorra lekualdatu egin behar ditugu, eta behin hori eginda hasiko gara lanean".

Lanek iraun bitartean, Pazientearen Arretarako Zerbitzua eta Ikuskaritza Medikoa birkokatu egingo dituzte. Geltoki zaharretako beheko solairuaren gune batean egongo dira –Lanbidekerabili izan duen espazioan–.

**URTE BUKAERARAKO
OSPITALEKO ERAIKIN
ZAHARRA GUZTIZ
BOTATA EGOTEA
AURREIKUSTEN DUTE**

Gainerako zerbitzuek ohi bezala jarraituko dute.

Espazio "zabal eta irisgarriak"

Dagoeneko Osakidetza jakinarazi du solairu bakoitzean zein zerbitzu eta profesional egokitu diren. Errehabilitazioko eta erresonantzia magnetikoko zerbitzuak jarriko dituzte beheko solairuan: "Sarbidetza errazagoa izango du behean kokatuta, eta orain arte egon dena baino handiagoa izango da".

Lehenengo solairuan, berriz, Endoskopia Digestiboen Unitate berria jarriko dute, kontsultak eta endoskopiak egiteko, eta baita Etxeko Ospitalizazioko eta Medikuntza Prebentiboko unitateak eta itxarongela bat ere, bloke kirurgikorako. Horren gainean, bigarren solairua "etorkizuneko beharretarako erreserba-planta" gisa utzi nahi dute.

Bestetik, hirugarrena guardiako osasun-langileentzako egoitza-eremua izango da, eta baita Larrialdietako Zerbitzuen basea ere –anbulantzia medikalizatuarekin–. Horrez gain, Kudeaketa Sanitarioko Unitatea eta liburutegia ere solairu horretan joango dira. Azken solairuan, aldiz, kudeaketa ekonomikoko arloko langileak eta Lan Osasuneko saila egongo dira; baita informatika eta kalitate zerbitzuak ere.

Aparkaleku gehiago

Bestetik, herritarren irisgarritasuna hobetzeko asmoarekin, eraikin berriaren azpiko solairuetan aparkalekuak egingo direla zehaztu dute. Hasiera batean bi solairu eta 100 plaza aurreikusi bazituzten ere, hiru solairu eta 200 plaza izango dituela jakinarazi du zuzendaritzak.

Eraikuntza-lanek iraun bitartean, beste bi aparkaleku gaitzeko asmoa du ospitaleak; horietako bat, Arrasateko Udalak lagatuko espazio batean.

Niretzat

Harentzat

Hiretzat

EUSKARA GUZTIONTZAT

Guretzat

Zuentzat

Haientzat

Zuretzat

UDAL EUSKALTEGIAK GUZTIONTZAT. PUBLIKOAK.

HADE

2022-2023 MATRIKULA EPEA ZABALIK

BEDITA LARRAKOETXEA UDAL EUSKALTEGIA
Bidebarrieta 18
Oñati.
Tel.: 943 78 24 96
euskaltegia@onati.eus

ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA
Nafarroa etorbidea 2
(Kulturola eraikina)
Tel.: 943 79 70 77
Whatsapp 688 78 09 31
euskaltegi@arrasate.eus

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA
Barrenkalea 33
(Irizar jauregia).
Tel.: 943 76 44 53
euskaltegia@bergara.eus

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA
Nafarroa 2 - Arebabaleta
Inbaurtueta 9 - Eskoizta
943 79 21 68
idazkaritza@udaleuskaltegia.eus



Autobus publikoko erabiltzaile bat, ordaintzeko makinan Mugi txartela pasatzen. H.L.

Joan-etorriak, erdi prezioan

Autobus zerbitzu publikoan Mugi txartelarekin bidaiatzeak %50 gutxiago balio du atzotik eta urtea amaitu arte. Gizartea jasaten ari den egoera sozioekonomikoari aurre egiteko neurria da, Lege Dekretu bidez onartua eta tokiko erakundeek aplikatua

Hasier Larrea DEBAGOIENA

Jadanik indarrean daude garraio publikoaren deskontuak, inflazioari aurre egiteko neurri gisa. Ekainaren 25ean Espainiako Gobernuak Lege Dekretu bidez ezarri zuen, gizarte-arloko beste neurri batzuen artean, garraio publikoko prezioen %30eko beharpena. Autonomia erkidego, aldundi eta udalen esku utzi zuen deskontua %50era handitzea, eta Eusko Jaurlaritzak begi onez ikusi zuen. Hala, Arabako Bat txartela, Bizkaiko Barik txartela eta Gipuzkoako Mugi txartela erabiliz gero, orain arte baino %50 merkeagoa izango da garraio publikoan bidaiatzea, bai herri-busetan eta bai herriz herriko lineetan –Nafarroan %30ekoa izango da beharpena–. Neurri hau Lege Dekretuak iraun bitartean aplikatuko da; hau da, abenduaren 31 arte.

Jarraipena emateko nahia

Hala ere, Rafaela Romerok, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzako presidentea, berriki adierazi du Gipuzkoako Aldundiak garraio publikoan deskontu-politikak ezartzen jarraitzeko borondatea duela datorren urterako ere: "Batez ere, ekonomikoki zaugarrienak diren kolektiboei laguntzak ematen jarraitzeko interesa dugu; Mugi txartelak halako abantailak eskaini ditu orain arte, eta aurrerantzean bide bera jorratu nahi dugu". Izan ere, sistema horrek hobariak aurreikusten

GAUR EGUN, MILIOI ERDITIK GORA ERABILTZAILE DAUZKA MUGIK; 150.000 ZAURGARRIAK DIRA

ditu desgaitasuna duten pertsonentzat, 26 urte arteko gazteentzat, errenta ekonomiko jakin batzuk dituzten adinekoentzat, errenta baxuagoak dituzten pertsonentzat eta familia ugariarentzat.

Bidaia kopuruen arabera

Hori horrela, bidaiatzeko txartelen lehengo prezioak automatikoki eguneratu ziren atzo, beraz, erabiltzaileek autobus publikoan txartela pasata ikusiko dute, beste ezer egin gabe, bidaia merkeago irtengo zaiela. Zehatz esanda, proportzionalki aplikatuko dira deskontuak, egiten diren bidaia kopuruen arabera: 1 eta 20 bidaia artean eginez gero, Mugik billete arruntaren prezioarekin alderatuta eskaintzen zuen %48ko deskontutik %74ra handituko da beharpena; 20 eta 50 bidaia artean eginez gero, %58tik %79ra, eta

50 bidaiatik gora eginez gero, beharpena %90etik %95ekoa izatera pasatuko da.

Erabiltzaileak, esker oneko

Albiste begi onez hartu dute garraio publikoa sarri erabiltzen duten herritarrek. Bereziki neurria "ikasleek" eskertuko dutela adierazi du Marisol Niño autobus zerbitzu publikoko erabiltzaileak, kolektibo hori "askotan ibiltzen delako hara eta hona bidaiak egiten". Gaineratu du espero duela deskontua ez izatea "proba huts bat, datorren urte-tik aurrera ere jarraipena emango zaion joera bat baizik". Oihane Belategi ikaslearen esanetan: "Halako laguntzak ondo datozkigu, orokorrean prezio guztiak igotzen ari direla kontuan hartuta". Mari Carmen Sesmak, bestalde, beharpenak "lehenago" etorri beharko lirakekeela aipatu du, nahiz eta ikusten duen "poliki-poliki" badabiltzela garraio publikoan prezio justuagoak ordaintzen". Sesmak "askotan" erabiltzen baitu autobus publikoa, "Debagoieneko ospitalera joateko, batez ere". Santiago Falcesek egunerokotasunean erabiltzen du Mugi txartela, eta albiste bikaina iruditzen zaio ezarri berri duten beharpena: "Bizimoduaren garestitzearen aurrean, bidaia bategatik 30 zentimo bakarrik ordaindu ahal izatea gozamina da, poltsikoan ez da ia igarriko".

Renfen ere deskontuak

Era berean, Renferen aldiriko trenetan eta distantzia ertainekoetan ere aplikatuko da neurri berria, maiz bidaiatzen dutenen artean. Aldirikoen abonuatik 10 euroko bermea eta distantzia ertainekoengatik 20 euroko bermea ordainduta, urte amaierarako hamasei bidaia eginez gero, aurreratutako dirua itzuliko zaio erabiltzaileari. Esaterako, Hego Euskal Herriko lau hiriburuen arteko bidaietan aplikatuko da hori. Renferen webgunean izena emateko epea zabaldu zenetik joan den astera arte 300.000 erabiltzailek baino gehiagok eskatu dute abonamendua.

MUGIREKIN EGITEN DIREN BIDAIEN %42 BALIABIDE GUTXIAGO DITUZTENEN HOBARI-TXARTELEI DAGOZKIE

Non eskatu edo kargatu Mugi?

Mugi.eus atarian eska daiteke txartel berria etxera bidaltzeko, 5 euroko prezioan; txartel anonimoak ez, baina txartel pertsonalizatuak diru-errekarguak Mugi sistemaren bidez egitea ahalbidetzen du, ataritik bertatik edo aplikaziotik, Mugi sisteman alta eman ostean. Posta bidez ere eska daiteke txartela. Modu fisikoan, aukera hauek daude Debagoieneko herrietan –eskaera-orriaren inprimakia *mugi.eus*-en deskargatu eta datu pertsonalak bete behar dira aurrez–:

ESKAERA ETA ERREKARGU PUNTUAK:

- Aretxabaletan, udaletxea, Huhezi eta Urkulu Moviles.
- Arrasaten, Gazte Bulegoa eta Urkulu Moviles.
- Bergaran, Isabel kioskoa eta Ikasbi liburu-denda.
- Elgetan, Goikoetxe harategia.
- Eskoriatzan, Dorleta liburu-denda.
- Oñatin, ETEOn eta Altuna liburu-denda.

ERREKARGU PUNTUAK SOILIK:

- Antzuolan, udaletxea eta Koxkor.
- Aretxabaletan, Ibarra estankoa eta Kutxabank.
- Arrasaten, Kutxabank bulegoak, estankoa eta Kontzezino 12.
- Bergaran, Josefina Guerra estankoa eta Kutxabank bulegoa.
- Elgetan, Kutxabank.
- Eskoriatzan, Huhezi eta Azkoaga estankoa.
- Oñatin, Kutxabank bulegoak, Irizar estankoa, Haritza liburu-denda.

Oharra: gune horiek *mugi.eus*-en adierazitakoak dira; baliteke datuok eguneratuta ez egotea.

DEBAGOIENENKO



OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 32, behea / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

ARANDO IRIARTE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

DURANA HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

GARAI HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Iralabari 15 / 943 53 42 63

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fralskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea
943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68
Bergara / Bidekurutzeta 10 - 943 76 97 03

KIROPRAKTIKA ZENTROA

BIZI KIROPRAKTIKA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN- DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ ZENTRO MEDIKOA

Arrasate / Euskal Herria plaza 3
943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk.
943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g
943 76 07 84

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11



ZABALIK

MAIDER AZKARRAGA-URIZAR

Herdoilarena

Burdina bera hondatzera, zulatzera, apurtzera iritsi daiteke herdoila. Burdin kolorea marroi bilakatzen da lehenengo, usain txarreko eta latz askotan; desatsegin. Ondoren, hondatzen hasten da, guztiz puskatu eta ia ezerezean gelditu arte. Burdinak aldaketa hori egiteko, baina, hezetasuna behar halabeharrez. Tristeza zitzaien 80ko hamarkadan Bilboren kolore ugerra Atxagaren *Etiopia* eta Ordorikaren ahotsari ere: *Herdoilaren tristeziarekin batera, ziutate honen soinekoa udazkenetan lanbroa da; eta bere sabaia laino baso bat, non bizi den ilargiaren badaezpadako agonia.*

Burdina negu beltzean ugertzera kondentzen du euriak, soineko berri, ilun eta latz bat janztera, kolorez aldatu eta bere izatea uztera.

Lekutan gelditu zen 80ko hamarkada, zenbait urte igaro dira orduz geroztik. Baina guztiok herdoildu gara garai hartatik hona. Gu ere sarri aldatu behar izan baikara soineko Bilboren antzera, eta ez euriak hala behartu edota kondentatu gaituelako. Galdu dugu zenbat burdina zilindro estu, orratz, boligrafo

EZ DAKIGU JADA ZENBATEK JASAN DUTEN BURDINAREN HOTZA ETA GOGORTASUNA

punta... erabili diren beldurra barreiatu eta ziztatu nahian. Ez dakigu jada zenbatek jasan duten burdinaren hotza eta gogortasuna beraien gorputz eta barrenetan. Ez dakigu zenbatek aldatu behar izan duten beraien izana. Ez dakigu zenbat soineko berri jantzi behar izan diren; ezta zenbat apurtu eta zatitu diren berri bakoitza janzten edo eranzten. Kontua galtzeraino ugertu gara.

Nekea astun, astunegi zaigu. Burdina herdoilera kondentatuta dagoen legez gaude gu soineko bakoitzak behar dituen hariak aurkitu, elkartu, lotu, josi eta korapilo onak egitera behartuta.

Bilboko sabaian laino basoak jarraitzen duen ez dakit; ezta ilargiak ze agonia duen ere, baina, badaezpada, erne egotearen agoniak luze dirau gurean.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Etxeko Lanaren Nazioarteko Eguna dela eta

F. JAVIER ARRIETA IDIAKEZ
'TTAP'-EN ARGITARATUA

Gaur ospatzen da Etxeko Lanaren Nazioarteko Eguna [uztailak 22]. Horrenbestez, merezi du etxeko lanaren inguruan gogoeta egitea.

Etxeko lana norberak gauza dezake, baina baliteke empresa bat edo langile bat kontratatzea.

Etxeko lanak makina bat zeregin hartzen ditu bere baitan, hala nola garbiketa-eta lisatze-lanak, eta umeak, gaixoak, desgaitasunen bat duten pertsonak zein adinekoak zaintzeko lanak.

Denek ere gure bizitzak zailtzen dituzte.

Norberak lan horiek bere gain hartuz gero, dohainik egingo ditu. Gainera, sarritan, arazoak sortuko dira dohaineko lan hori eta diru-iturri den lana uztartu ahal izateko. Bikoteen kasuan, ardurakidetasuna bultzatu nahi da. Baina zaintza-lanen ondorioz batzuetan hori ere ezinezko bihurtzen da. Aldamenean bikotekiderik eta seniderik izan ezean, are eta okerrago. Halabeharrenean premia desberdinak sortzen dira orduan: norberaren lanari uko egitekoa, norbait kontratatzea edo gaixo nahiz adinekoak etxetik ateratzekoa.

Edozein kasutan, gure gizarte-ereduak oraindik ez du behar adineko konponbiderik egoera horretan dauden pertsonen diru-galera eta arazoie aurre egiteko. Administrazio desberdinek eskaintzen dituzten dirulaguntzak urriak edo denboran mugatuak dira.

Horregatik, etxeko lana oinarrizko zerbitzu gisa hartu eta babesteko sistema eratu beharko litzateke. Zinez, horrek gizarte hobe eta duina sortzen lagunduko luke. Bada, ardurakidetasunerako edo kontziliaziorako bermeak gehituko lirateke eta etxeko langileen lanbidea profesionalago eta erakargarriago bihurtuko litzateke.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Santanaren gezurrak

UNAI ALAÑA CALLEJA

SANTUTXU

Lotsagarria iruditzen zait EITB, "euskaldunon irrati eta telebista" deiturikoa, *Una historia de Vasconia* telesailarekin egiten ari dena. Eta izugarri kezkatzen nau euskararen alde lan egiten duten erakunde eta eragile askoren isiltasuna eraso hauek ikusita.

Egiak ez diren gauza dezente esaten ditu. Atera daitekeen ondorioa da Euskal Mitologia ez dela existitzen, oso berria delako. Hona hemen Santanak esandako batzuk:

-Gure Laminak Horaziok aipatzen duen Greziar Mitologiako Laminetik datoz.

-Gure Basajaun Erromako Mitologiako Silvano landa-jainkotik dator, Noëlen arabera basoen buru zena.

-Gure Tartalo: greziar mitologiako ia izen bereko Tartaron du jatorria.

-Gure Mari jainkosari buruz dio ez dagoela agiri-ebidentziarik haren kultura historiaurrean egin zela ziurtatzeko. Hau astakeria! Nola frogatuko da dokumentu epigrafikoen – agiriak– bitartez, idazkerarik ez bazegoen?

Kolonizatzaileen historia kontatzen duen *historiagile* honek Ama Lurra pasioz maite duela dio, baina gure ondare mitologiko-kulturala gutxien du.

Mitologia unibertsalari buruz zerbait irakurri duen edonork daki antzekotasunak daudela euskal mitologiaren, mitologia greko-erromatarraren eta germaniarraren artean. Baina horregatik ez dugu pentsatu behar batzuk besteen zordun direnik. Hainbatek aipatu dutenez, denek iturri komun bera dute: Historiaurreko Kultura Matriarkal Mediterraneo-Europarra.

Santana eta diru publikoarekin euskaldunon aurka doazen erasoak eta zientifikoki frogatu gabeko teoriak lau haizetara zabaltzen dituzuenoi "aski da" esateko garaia heldu da.

Baina nor naiz *historiagile jakitun* bati gomendioak emateko? Eta non daude gure hizkuntza eta kulturaren alde lan egiten duten euskaltzain eta euskaldun peto-petoak? Euren poltronan eroso? Zeren beldur dira?

Gure hizkuntza, ondarea, historia, kultura eta abar maite dutela esaten duten *euskaltzain* guztien isiltasuna ikusita, *Una historia de*

Vasconia-n kontatzen diren gezurrei aurre egiteko, izugarri gogoratzen ditut Henrique Knörr eta Txilladergi. Euren lan egin zuten euskararen alde bizitza osoan.

Karapaixoaren etimologiaz

OSKAR MARTINEZ DE GEREÑU
GASTEIZ

Aurtengo *karapaixo* garaia aspaldi bukatu bada ere, aukera aprobetxatu nahi nuke berriki egin dudana aurkikuntza bat lerrootan komentatzeko. Izan ere, lehengoan portugesezko testu bat irakurtzen ari nintzela, *carapaça* hitza azaldu zen. Eta hitz horrek dituen esanahien artean –jatorriz, *oskola* da, espainierazko *caparazón* adierarekin lotua–, bat oso adierazgarria iruditu zitzaidan; kasu honetan: *mozorroa*.

Zera pentsatu nuen: ez al da gure *karapaixoa carapaça* bat izango, *mozorro* bat? Hor uzten dut hausnarketa, filologoentzat...

Jaien eta eraso sexisten harira...

GOIZANE ZUBIZARRETA, EIDER
KORTAZAR ETA MONSE GARCIA

ESKORIATZAKO MUGIMENDU
FEMINISTAREN IZENEAN (ESKOITZAKO
NESKA* GAZTIAK, ESKORIATZAN
FEMINISMOA BIZIRIK ETA GUERRERAS)
ESKORIATZA

Jada bi hilabete pasatu dira Eskoriatzako San Pedro jaiak ospatu genituenetik, eta, horren harira, Eskoriatzako Mugimendu Feministak hainbat gertakari azaldu nahiko genituzke:

Jaiak gerturatu zebiltzala ikusita, Eskoriatzako Neska* Gaztiak taldetik Txosnagunera bideratutako protokolo baten lanketa egin genuen, bertan martxan jartzeko helburuarekin. Egunek aurrera egin ahala, festetako programazioa jaso eta eraso sexisten gaiari erantzun zion Puntu Lila bat egongo zela jakin genuen. Hala ere, hau ordu jakin batzuetara bakarrik mugatzen zen –19:00-22:00; eta 29an, ezer ere ez–, eta iruditu zitzaigun hori ez zela nahikoa eraso sexistekiko herri segurua bermatzeko. Hori ikusita, udaletxera jo genuen informazio bila, eta geure galderei emandako erantzunak ez ziren batere argiak izan; horrez gain, hasiera batetik argi utzi ziguten beraiek ez zutela herrira egokitutako protokoloarekiko ardurarik hartzeko asmorik.

Eskoriatzako Udalaren jarrera ikusita, Neska*

Gazte taldeak erabaki genuen landutako protokoloa Txosnagunera ez ezik, herrira ere zabaltzea beharko genuela. Beraz, Eskoriatzako Feminismoa Bizirik eta Guerreras herriko talde feministekin batu eta prozesua elkarrekin egitea erabaki genuen. Geroztik protokoloaren baitan sortutako ardurak Herriko Mugimendu Feministaren artean banatu dira, eta horrela kudeatu ditugu jaietako gau eta egunak.

Jaiei dagokienez, uztailaren 1ean egindako kontzentrazioan azaldu genuen bezala, jazarpen-egoera bat salatu zen. Horrez gain, ez zen beste erasorik salatu. Alabaina, gertatutakoaren ondoren ere ez dugu Udalarengandik inolako interes ez eta babesik ere jaso.

Herrira begira, orokorrean, pozik gaude herritarren erantzunarekin. Izan ere, egunetan zehar jende desberdina gerturatu zitzaigun protokoloarekiko interesa eta esker ona adieraziz, eta hori oso positiboki baloratzen dugu.

Azkenik, argi dugu gertatutakoa herrian gaiarekiko dagoen kontzientziazio faltaren isla dela. Horregatik, datozen ikasturteetara begira, uste dugu hutsune hori betetzea Eskoriatzaren erronka nagusietako bat izan beharko litzatekeela, instituzio zein herri mailan.

Salaketa-gutuna
Eskertza-gutuna
Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna
Aldarrikapen-gutuna
Kexa-gutuna

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBIÑE UBEDA



Aldaketa batzuekin itzuli da TAO sistema irailean

Abuztuan indargabetuta egon ostean, atzo, eguena, berrabiatu zen aparkatze sistema, eta, irailarekin batera, hainbat aldaketa sartu dira indarrean; gune urdinean, adibidez, doakoak izango dira lehen bi orduak; halaber, herriko hainbat gunetan TAO jarri dute

Eneko Azurmendi ARRASATE

Uztaileko osoko bilkuran behin betiko onarpena jaso ostean, aldaketekin itzuli da TAO sistema irailean. Alde batetik, gune urdin-gorrian bi orduz doan aparkatu ahalko du edonork, tiketa aterata; orain arte, ordu eta erdikoa zen gehieneko iraupena. Mota horretako hiru gune daude: Ferixalekukoa, San Andresko Super BM ondokoa eta Munar kalekoa.

Halaber, orain arte ez moduan, gune urdinean edo TAO arruntean ere doakoak izango dira lehen bi orduak eta, ondoren, dagokion tarifa aplikatuko da; hau da, 15 minutuko 0,20 euro.

TAO luzean edo gune urdin-berdean, bestalde, prezioak merkatu egin dira; hala, goiz edo arratsalde osoa aparkatuta izateagatik euro bat ordaindu behar da orain eta egun osoz aparkatzeagatik, berriz, bi euro. Atzo ezkerreko, kale hauetan ere badago tarifa hori: Aprendices, Txaeta, Martxoak 8, Bizkaia etorbidea eta Altamirazpi.

Gune berrietan, egokitzapena

Era berean, TAO sisteman barneratu diren auzo edo kale berrietan egokitzeko epe bat jarri dute; hain zuzen, irailaren 12 arte ez dute isunik jarriko, "auzokideek bertako txartela egiteko aukera izan dezaten", Udal Gobernuaren esanetan. Horrez gain, TAO berriki jarri den gunetako txartelaren kostua honako hau izango da 2022an: lehen autoa, 17,50 euro; bigarren autoa, 37,50 euro. Hala ere, 2023an tarifa normala aplikatuko zaie: lehen autoa, 35 euro; eta bigarrena, 75 euro.

Zerrajeran, adibidez, Etxaluzetik Eroskirainoko aparkalekuak egoiliarrentzako dira orain eta hortik Aprendices kalerainokoa gune urdina da, TAO arrunta. Aprendices kalean, berriz, egoiliarrendako aparka-



Abuztuan aritu dira margotze lanak egiten, aldaketak gauzatzeko. HASIER LARREA

ERGUINGO HAINBAT KALEAN, ALTAMIRAN, ALTAMIRAZPIN ETA ZERRAJERA KALEAN TAO EZARRI DUTE

lekuak zein gune urdin-berdeak jarri dituzte: TAO luzea.

Erguini dagokionez, Kalealdean, Anboton, Uriburun eta Jauregibarrian egoiliarrendako aparkalekuak jarri dituzte eta gune urdina ere jarri dute. Aitzitik, Udalpen eta Itxaropena kalean ez da TAO sistemarik egongo aurrerantzean ere, orain arte moduan jarraituko dute.

Otalora Lizentziaduna kalean ere hainbat aldaketa jarri ziren indarrean atzo. Hala, Taupa tabernaren eta Uarkape frontoiaren arteko aparkalekuak TAO arruntekoak dira orain, baita Goiena Komunikazio Taldearen egoitzaren aurreko erdiko ilarako aparkalekuak ere. Jose Luis Iñarra kaleari dagokionez, Mesedetako ikastetxetik Altamirazpirainoko aparkalekuak egoiliarrenak dira eta Altamirazpin, berriz, TAO luzea

egongo da, egoiliarrendako hainbat aparkalekurekin batera.

Ospitale eta ambulatorio inguruan, bestalde, bi tarifa mota daude, lekuaren arabera: TAO *express* eta TAO arrunta.

Bi gogorarazpen

Aldaketen berri ematearekin batera, bi gogorarazpen egin ditu Udal Gobernuak: batetik, bertakoek, txartelarekin, haien zonako kolore urdinean, berdean eta bertakoetan aparkatu dezaketela. Bestetik, zona urdinean, berdean eta bertakoetan ez dela TAO sistemarik aplikatuko 13:30etik 15:30era, ezta asteburu eta jaiegunetan ere.

Sentsibilizazio kanpaina

Abuztuan itxita egon bada ere, asteleheneetik zabalik dago TAO bulegoa, sistemari lotutako izaipideak egiteko eta herritarrei informazioa emateko. Horrekin batera, irailean zehar, sare sozialen eta udal kanalen bitartez TAO zerbitzuaren inguruko sentsibilizazio bideoak zabalduko dituztela aurreratu du Udal Gobernuak, herritarrek aldaketak barneratzen joan daitezela.



Hainbat zuhaitz moztuta, *Ekobulebar*-ean, abuztuan. H.L.

Udalak "irmoki" gaitzetsi ditu erdiguneko zuhaitz moztetak

Horrelako jarrerak "gizalege, sentsibilitate eta errespetu falta" erakusten dutela adierazi du Arrasateko Udalak

E.A. ARRASATE

Abuztuaren 24ko gauean, Kulturategiaren zuzenbideko zuhaitz moztu zituzten. Hurrengo gauean, Garibai kaleko 1 eta 9. atarien arteko zuhaitz txiki guztiak moztu zituzten "burua estalita zeramatzen lau pertsonak", Udalak kaleratutako oharrak dioenez. Era berean, *Ekobulebar*-eko ureztatze automatikoko sisteman ere kalteak izan zirela salatu du Udalak. Nabarmendu du, gainera, "ureztatze sistemetan aditua den pertsona batek edo batzuek" eragin dutela kaltea, "erabilita teknika ikusita".

Oharrak dio horrelako jarrerak "gizalege, sentsibilitate eta errespetu falta" erakusten dutela: "Tamalgarría iruditzen zaigu alde aurretik pentsatutako, nahita egindako eta prest dauden ekintza bandalikoak egitea kaltea egiteagatik soilik; izan ere, azkenean, bilatzen duten gauza

bakarra udalerriko natura-ondarean kalteak eragitea da, herritarrei inguruneaz gozatea mugatuz, eta, gainera, mantentze eta birgaitze-gastu gehigarriak sortuz".

Lorategian ere kalteak

Era berean, Iturbide egoitzaren aurrean dagoen lorategiko loreak erauzita eta lurrera botata aurkitu zituzten uztaile amaieran, baita zabor edukiontzia bat lorategira botata ere. Orduan ere haserre azaldu zen Udala eta gertaera horiek deitoratu zituen: "Ez du zentzurik dibertimenduagatik edo soilik min egiteagatik txikizioak egiteak".

Gertaera horien harira, uztailetik greban dauden udal lorezainek ohar bat kaleratu zuten, nabarmenduz eraso eta apurketak horiek ez zituztela haiek egin. "Ekintza horietatik bereizten gara", gaineratu zuten.

Banatzaila izateko lan-poltsa irekita du Batu Banatu enpresak

Orain arte, Ibernalo Iparragirre aritu da GOIENA aldizkaria eta *Puntu*a etxez etxe banatzen, eta orain, Oihan Peñasek egingo du lan hori. Halere, egubakoitzetan banaketak egiteko prest legokeen jendearen bila ari dira. Interesik bazenu, hauek dira bideak: 688 69 00 07 telefonora deituta edo *whatsapp*-a bidalita eta *harpidetza*@goiena.eus-era idatzita.

Merkemerkaua egingo du Ibai-arte gaur eta bihar

Ibai-arteko merkatariek udaberri eta udako stocka kalera aterako dute, "prezio ezin hobea", gaur, egubakoitza, 16:30etik 20:00etara eta bihar, berriz, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Ibai-arteko 26 establezimenduk hartuko dute parte azokan eta denetarik egongo da: lantzeria, osagarriak, oinetakoak, ilarako produktuak eta abar.

Azkenean, eraitsi egin du MUK Uribe auzoko zubia

Mondragon Unibertsitatearen Goi Eskola Politeknikoak 2021eko martxoan hasi zituen Gautxori esparrua birmoldatzeko lanak, eta zeresana eman du Uribeko zubi historikoaren balizko eraisketak; azkenean, gauzatu egin da, eta arrabots handia sortu du erabakiak

Eneko Azurmendi ARRASATE

Hondeamakinek abuztua has-tearekin batera eraitsi zuten Uribeko zubia, eta Goi Eskola Politeknikoak hainbat arrazoi eman zituen zubia "eraitsi behar izana" justifikatzeko. Batetik, Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak eta onartutako Gautxoriko urbanizazio proiektuak hori jasotzen zutela azaldu zuen, eta, lur zatiaren jabea eta urbanizazioaren sustatzailea denez, legez behartuta zegoela onartutako proiektua betetzera.

Bestetik, esan zuen eremuaren urbanizazioa eta eraikin berriaren eraikuntza onartutako proiektuan ezarritako epeak betetzea eskatzen zuten laguntzen mende zeudela. "Epe horiek ez bete-tzeak laguntza horiek galtzea ekarriko luke eta, ondorioz, proiektua bere osotasunean ezingo litzateke gauzatu".

Horrez gain, Goi Eskola Politeknikoak argi utzi nahi izan zuen "bidezko kontsulta tekniko eta juridikoak" egin ondoren "ezinezkoa" izan zela zubia mantentzea. "Izan ere, egiazatu zen eraikuntzak eraisteko arriskua zuela, landu gabeko harri txikiz egina zegoelako, eta harri horiek mantentzen zirelako galtzadan eta petrilean zementuz eta hormigoiz egindako errefortzu masiboei esker". Unibertsitateak gaineratu zuen zubia birkokatzeak aukerarekin ere ezin zela aurrera egin. "Desmuntatzeko eta ondoren muntatzeko prozesuan gainbehera egiteko arrisku larria zegoen, eta langileen segurtasuna arriskuan jarri".

Otsailean, erabakia atzeratu

Lanekin hasi eta urtebetera, 2022ko otsailean, zubia eraisteko ideiak bere horretan jarraitzen zuten. Arrasate Zientzia Elkarteak, EH Bilduk eta Podemos Arrasatek zubia ez eraisteko eskaera berretsi zioten unibertsitateari, eta Udal Gobernuak,

aldiz, proiektua aldatzeko aukera eman zion. Nahasmenaren aurrean, Goi Eskola Politeknikoak atzera egin zuen, zubia eraisteko erabakia behin-behinean atzeratuz, eta egoeraren azterketa sakonagoa egiten ari zirela aitortu zuen martxoan.

Erreakzio ugari eragin ditu

Abuztuaren leian, esandako moduan, zubia eraitsi zuten hondeamakinek eta berehala heldu ziren gaiaren bueltan aritu izan diren elkarte eta alderdi politikoaren erreakzioak. Arrasate Zientzia Elkarteak "haserre bizia" erakutsi zuen, eta eraisketa erabateko "adar-jotzea" zela esan. "Disparate bat gehiago, ondare bat gutxiago", zioten.

EH Bilduk "harriduraz eta penaz" hartu zuen eraisketa. "2022ko otsailean jakin genuen Eusko Jaurlaritzaren esku dagoen Ura agentziak ez zuela

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK AZPIMARRATU DU EZINEZKOA IZAN DELA ZUBIA MANTENTZEA



Hondeamakinak Uribe zubia eraisten, abuztuaren lehenean. IKER MURILLO

zubiaren eraistea agindu, eta ez zuela eraisteko beharrik ikusten. Zubia mantentzeko erabakia Arrasateko Udalaren esku zegoela adierazi zuen, baina badirudi Udal Gobernuak osatzen duten EAJk eta PSEK ez dutela ezer egin zubia mantentzeko".

Podemos Arrasatek, bestalde, azaldu zuen 2018tik ari direla zubia ez eraisteko eskatzen, Gautxoriren proiektua aurkeztu zenetik. "Udal Gobernuak proiektuari 1.137.000 euro ematea erabaki zuen, beste behin ere, tokiko ondarea enpresa pribatuen esku utziz".

Udal Gobernuak, azkenik, esan zuen hark ez zuela agindurik eman zubia eraisteko. Unibertsitateari martxoan proiektua aldatzeko aukera eman zutelako gogorarazi zuten, baina "arrazoi ezberdinak tarteko" aldatetako egitea posible ikusi ez zutelako.

Urbanizazioa aurrera doa

Kontuak kontu, Gautxori esparruaren urbanizazioa aurrera doa eta Uribarriko biribilgunea ere osatuta dago jada. Lan guztiak 2023ko irailerako bukatuta izatea aurreikusten dute.

Fibrozentuzko hodiak aldatuko dituzte Garagartzan

Atzo, eguena, ziren hastekoak edateko uraren banaketa-sarea berritzeko lanak. Zanga-lan bat egingo dute, egun dagoen fibrozementuzko hodia kendu eta beste galdaketa-hodi bat jarri. Fagor Etxetresna Elektrikoen lantegi zaharraren eta Kobateko harrobira sartzeko bidearen arteko zatian egingo dute obra.

Fibrozentuzkoa joan den mendean gehien erabili zen materialak bat izan zen, "batez ere, isolamenduekin zerikusia zuten lanetan", Udal Gobernuak adierazi duenez. Hala ere, amiantoa dute hodi horiek, eta material kantzerigenotzat jotzen da. Hori dela eta, aldatu egingo dute hodia, Fagor Etxetresna Elektrikoen lantegi zaharraren eta Kobateko harrobira sartzeko bidearen artean, 800 metro inguru.

Bermeosolo SA enpresak egingo du obra, lau bat hilabetetan. 368.844,94 euroko aurrekontua du lanak -BEZ gabe-. Halaber, Salaberria Ingeniaritza SLk zuzenduko du obra.

Energia trantsiziorako bulego bat eskatu du Ezker Anitza-IUK

Elkarrekin Arrasatek (Ezker Anitza-IU) mozio bat aurkeztuko du, udalbatzari aholkularitza energetikorako bulego bat eskatzeko. "Kontsumoari edota aurrezteari buruzko informazio edo aholku zerbitzua eskainiz, trantsizio energetikorako bultzada emango duen bulego bat gura dugu", nabarmendu dute.

Proposamen horrekin, herritarrei doako informazio eta atentzio zerbitzua eskaini ahal izatea dute helburu, hainbat gairen inguruan: eskubide energetikoak, energia nola aurreztu, dirulaguntzak, energia berriztagarrien sistemak eta abar. Era berean, alderdiak proposatzen du bulegoak elkarlanean funtzioa dezala trantsizio energetikoa inplikaturako agenteekin.

Azkenik, gogorarazi dute Euskal Herriari badaudela zerbitzu hori duten hainbat udalerrri: Irun, Errearteria, Lezo, Oiartzun eta Pasaia. "Bizi dugun krisi klimatikoak aldateta drastikoak eskatzen ditu".

aek
euskara praktikoa

EUSKARA

IKASTEKO BIDELAGUN ONENA

Debagoieneko AEK

EUSKARA KLASEAK
PRESENTZIALAK ETA TELEMATIKOAK

A1, A2, B1, B2, C1, C2 mailak
Mintzapraktika taldeak
Autoikaskuntza
Programa + tutoretzak + praktika

Matrikula: 2022/09/1 - 2022/9/28
Ordutegia 10:00 - 14:00 / 17:00 - 20:00

Iturriotz 21, behea, Arrasate
943 77 03 69 · arrasate@aek.eus
twitter.com/debagoienekoAEK
www.facebook.com/debagoieneko.aek

DIRULAGUNTZAK

Bekak Arrasateko Udalaren eta HABEren laguntzaz!

"Lan-baldintza duinak" eskatzen jarraitzen dute

Uztailaren 18az geroztik greban daude Arrasateko udal lorezainak, eta soldata igoera eta KPIa bermatuko dituen lan akordio bat aldarrikatzen jarraitzen dute; Prezero enpresako langileak dira, berez, baina Udalarentzat egiten dute lan, azpikontratatura

E.A. ARRASATE

48 egun pasa dira udal lorezainek greba mugagabea abiatu zutenetik, eta orduko eskaera berarekin jarraitzen dute oraindik: "Lorezaintzako langileen lan-baldintzak hobetuko dituen lan akordio baten beharra. Besteak beste, soldata igoera eta KPIa bermatuko dituen akordioa erdietsi gura dugu", dio Ana Sebal LAB sindikatuko ordezkariak.

Hamabi langile finko eta aldi baterako bizpahiru langile aritzen dira Arrasateko lorategi publikoak zaintzen, eta azpikontrataturako udal zerbitzua eskaintzen dute. Hala ere, Espainia mailako hitzarmenean oinarritutako lan-baldintzak dituzte eta horrek, salatzen dutenez, ez ditu Arrasateko bizi mailako baldintzak betetzen, gaur-gaurkoz. "Ez dugu beste munduko ezer eskatzen; bigarren mailako langile eta herritarrak sentitzen gara eta ez dugu prekaritate egoera batean bizi nahi", adierazi du Sebalak. "Lan-kide askoren soldata oinarria 1.200 euroren azpitik dago eta horrek aipatutako prekaritate egoera betikotzen du".

Konponbide eske

Uztailaren 19ko osoko bilkuran haien lan-baldintzak arautuko zituzten pleguak zituen onartze-koak udalbatzak, baina berba hartu eta plegu horiek ez onartzeko eskaera egin zuten lorezainek saio hartan, Prezero enpresarekin akordiorik lortu ez zutelara. Langileek negoziatzen jarraitzeko borondatea erakutsi arren, salatu dute enpresak zein Udalak ez zutelara horretarako asmorik erakutsi eta horregatik ekin ziotela greba mugagabeari. "Lan-gatazka honen konponbidea Prezero enpresaren eta Arrasateko Udalaren artean dago eta egoera hau lehenbailehen konpontzeko eskaera egiten diegu. Garbi dugu



Udal lorezainak, Herriko Plazan, atzo egindako prentsa agerraldian. E.A.

IRAILAREN 15ERAKO MANIFESTAZIOA DEITU DUTE; 18:00ETAN ABIATUKO DA HERRIKO PLAZATIK

langileok antolatu eta borroka piztuz gero, emaitzak lortuko ditugula, eta guk horren aldeko apustua egin dugu. Lan eta bizi-za duinaren alde, eta gure eskubideen defentsan, lan-akordioa orain!", nabarmendu dute.

Protestekin jarraituko dute

Greban jarraitzearekin batera, azpimarratu dutenez, protesta eta aldarrikapenekin ere jarraituko dute datozen egunetan, egoera konpondu ezean, behintzat. Hala, astelehenetik egubakoitzera 11:30ean Portaloian elkarretaratzeak egiten jarraituko dutela adierazi dute eta, horrekin batera, manifestazio baterako dei ere egin dute. Irailaren 15ean, eguena, izango da hori, 18:00etan Herriko Plazatik abiatuta, eta parte hartzeko dei egin diete herritarrei.



Araba etorbidea 3, 20500 ARRASATE. www.funerariaarrasate.com



NIRE USTEZ

ANE SANCHEZ ZEZIAGA

Izpia

Lurraren errotazioak eta eguzkiaren lerrokatzeak eragindako fenomeno bitxi bat gertatzen da herensugearen herrian.

Historiaren zehar, kultura gehienak eguzkiaren boterearen testigu izan dira. Horren isla zibilizazio ezberdinek legatutzat lagatuko mitologian aurkitzen dugu. Ugariak dira oso, hain miretsia izan den suzko gorputzari emandako izen eta formak: Eguzki-lorea (Euskal Herria), Helios (Grezia), Ra (Egipto), Shamash (Mesopotamia), Inti (Inkak)...

Izar honek gizakiarentzat izandako protagonismoa ez da harrizkoa, berak ahalbideratu baitu bizitzaren garapena lurrean. Gainontzeko kulturen antzera, arrasatearrok ere bageneukan eguzkiaren ahalmenen berri. Ziurrenik urteko egun berezienak direnetan, sorginen maisulana izango balitz moduan, eguzki izpiek parrokiako arkuaz azpitik gurutzatu eta herriko patroia den San Juan argitzen dute. Ekainaren 24an 20:00etan, minutu batzuek miretsi daiteke fenomeno hau.

Aurreko gauean, herriko gazteen dantzek motibatuta, eguzkiak bueltan ematen digun oparia ote?




JOKIN BEREZIARTUA

Aldaketak Nafarroa etorbidean

Iberdrolak kanalizazio lan batzuk hasi ditu asteen, eta, ondorioz, trafikoan aldaketa batzuk eragin ditu. Hala, bizpahiru astez, noranzko bakarra egongo da Nafarroa etorbidean, Aprendices kaletik Kontzezinoraino. Halaber, Nafarroa etorbideko autobus geltokia ez da erabilgarri egongo eta Zerrajeran geldituko dira autobusak, Etxaluze eraikinaren ondoan.

URKULU MUGIKORRAK

Kontzeziño 4,
Arrasate
943 04 60 60
604 17 94 35
urkulumoviles@gmail.com



"Ultra probetan burua %70 da, hor dago gakoa"

ISIDOR CABALLERO MENDI LASTERKARIA

Arrasatekoak ultra distantziako bi lasterketa egin ditu udan, Ehun Miliak proba eta Chamonixen (Frantzia) egiten duten UTMB; hasi da 2023rako erronketan pentsatzen

Xabier Urtzelai ARRASATE

Komunikabideetan Kilian Jornetek egindako azken balentria izan da abuztu amaieran albiste-kataluniarrak UTMB irabazi du, eta errekor berria ezarri du (19.49.30)–. Harekin batera, baina, abuztuaren 26an beste 2.300 korrikalari abiatu ziren 171 kilometroko mendi lasterketa egiteko gertu, 10.000 metroko desnibel positiboarekin. Denak ez ziren helmugara iritsi, noski. Bai, ordea, Isidor Caballero arrasatearra.

Zer moduz errekuperatu zara?

Oso ondo, egia esateko. Martitzenean Udaltzera igotzekotan egon ginen, baina sargori egiten zuen eta paseatzera joan ginen; hala ere, oso ondo errekuperatu naiz. Egia da dagoeneko 51 urte ditudala eta nire gorputza oso ondo ezagutzen dudala. Hau da, ultra lasterketetan gauzak lasitasunez hartzen ditut, ez naiz topera joaten badakidalako, esaterako, lasterketa bi ordu azkarrago amaitzea, gero, garesti ordain dezakedala. Ez du merezi gero hamabost egun lehertuta egotea.

Alpeetakoa ez da, baina, azken hilabeteotan egin duzun ultra bakarria izan.

Ez, uztail hasieran Ehun Miliak lasterketa izan nintzen. Dago-



Isidor Caballero, eskuman, Joan Manel lagun kataluniarrarekin batera. I.C.

neko lasterketa horretako hiru-garren edizioa izan da eta gustura ibiltzen naiz hor. Eta, gero, entrenamendu saioetan ere ordu dezenteko saioak egin ditugu, ultra distantziara gerturatzen ibili gara. Hortaz, bai, kilometro dezenteko egin ditugu aurten.

Bietako zein da gogorragoa?

Distantzia eta desnibel aldetik nahiko antzerakoak dira, baina niretako Ehun Miliak gogorragoa da. Paraje aldetik bistan dago Montblanceko inguruekin ez dagoela lehiazterik, bereziki Italiako aldea ikusgarria da,

baina gauza bat esango dizut, dezeptio apur bat ere hartu dut UTMBrekin. Urteak neramatzen lasterketa horretan parte hartu nahian, baina zozketan ez nuen zortetik izaten. Hala, Val d'Aran izeneko lasterketa ere UTMBkoek antolatzen dute, eta hor parte hartuta zuzenean lortu nuen UTMBrako txartela. Eta han, lasterketan zehar boluntarioen tratua benetan izan da ona, baina beste gauza asko ez zaizkit gustatu. Lasterketa garestia da, 305 euro, eta anoa postu guztiak berdina ziren, jatekoen artean

ez zegoen askorik aukeratzeko eta helmuga inguruan dagoen dena negoziarioa da, asko du markinetik. Ehun Miliak lasterketan beste giro bat egoten da, anoa postuak zainduagoak, opari polit bat ekartzen duzu etxera eta dezente merkeagoa da. Egia da, baita ere, UTMBko irteera eta helmuga ikusgarria dela. Gu domeka eguerdi inguruan iritsi ginen Chamonixera, jende asko zegoen herrian eta helmuga gurutzatu genuen momentua oso berezia izan zen, ileak tente nituen.

Zelan ibili zinen lasterketan zehar?

Tripetatik arazoezin ibili nintzen eta momentu batzuetan erritmoa lasaitu behar izan nuen, baina egoerari buelta eman nion. Sukaldaria naiz eta lasterketan jan behar ditudan barratxoak eta halakoak nik egiten ditut, baina... Halako proba luzeetan normala izaten da. Dena dela, lau laguneko taldea osatu genuen hasieratik, beste lasterketa batzuetatik ezagutu izan dudana jendea, eta elkarrekin egin genituen bi egunak.

Ordu asko dira elkarrekin...

Bai, umore onez joaten gara, txantxetan... Eramangarriagoa da horrela. Dagoeneko ondo ezagutzen dugu elkar, badakigu bakoitzak non pasatzen duen gaizki, nork sufritzen duen gauean gehiago...

Halako distantzietan ze momentu izaten da zuretako txarrena?

Egunsentia. Une horretan isilik joaten naiz, erdi lo. Guk, esaterako, bi egunetan ez dugu lorik egin; akaso, bost minutu hartzen ditut eseri eta begiak ixteko, baina goizaldeko momentu hori... Gero, buruak klik egiten du eta esnatu egiten zara ostera ere, hurrengo egunari aurre egiteko gertu.

Non egoten da ultra batean gakoa?

Buruan, zalantza barik. Beti esaten dut %70 burua dela. Noski, fisikoki etxerako lanak ondo egin behar dituzu, baina buruan dago gakoa. Lasterketa hasi eta lehenengo gauean denek egiten dute hegan, aldarre onarekin... Gero etortzen da buruarekin egin beharreko lana.

Eta zelan entrenatzen da halako proba luze bat?

Nik bizi osoa daramat mendian, eta, neurri handian, giharrak ohituta ditut mendian ibiltzera. Duela 9 urte inguru hasi nintzen korrika, eta gogoan dut Antzuolako lasterketa izan zela lehenengo. Pentsa... Ondoren etorri ziren inguruan antolatzen dituzten gainontzeko guztiak; tartean, Arrasate-Udalatz.

Uda bete honekin, amaitu duzu denboraldia?

Ez, ez... Bi aste barru Canfranceko maratona joango naiz, eta baliteke Donostiako maratona ere egitea. Ez naiz asfaltoan gustura ibiltzen den horietakoa, baina...

Eta baduzu 2023rako erronkarik?

Erronka potoloa dugu, Tor des Geants egitea dugu begiz jota. Aostako bailara inguruan egiten den 330 kilometroko lasterketa da; 24.000 metroko desnibela. Eta hor lau egun ematen dituzte lasterketa egiteko. Noski, hor bai, hor tarteka lo egin behar da, eta atsedean hori kudeatu behar da. Kilometro askoko beste urte bat izango da hurrengo ere.

"EZ NAIZ AZKARRA ETA 51 URTE DITUT, BAINA DISTANTZIA LUZEETAN ONDO MOLDATZEN NAIZ"

Axpe, bigarren Espainiakoan

Abuztu hasieran Espainiako plater-tiroketa txapelketak jokatu zituzten olinpiar modalitatean El Rebollar-eko tiroketa zelaietan, Valladoliden. Bigarren mailan, Kurtzeta-Gain taldeko kide den Unai Axpe bedoñarra azpitxapeladun izan zen. Ia hirurehun kirolari lehiatu ziren; Axpe 125etik 119 plater hautsita sailkatu zen finalera.



U.A.

Arrasateko atletismo taldean zabaldu dute izenemate epea

Arrasate Atletiko taldean hasi dira denboraldia prestatzen. Irailaren 12an hasiko dituzte entrenamendu saioak, eta 2014an jaiotakoak izango dira gazte-txoenak –2010 eta 2014 urte bitartekoekin atletismo jolasak egingo dituzte. Izenemate *arrasateatletiko.com* atariaren bitartez egin behar da eta bertan dago informazio dena.

Besaidek hainbat hitzordu ditu gertu irailera begira

Hilaren 17an Mondranbike bizikleta martxa egingo dute (izenemate *kirolprobak.com*-en) eta irailaren 24ko eta 25eko astebururako Picos de Europa mendi irteera prestatu dute (irailaren 7an eta 14an egongo dira izenak hartzen 19:30etatik 20:00etara). Bestalde, irailaren 18an Besaideko eguna egingo dute.

Irailaren 25ean egingo dute enduro lasterketa

Bueltan da Arrasateko enduro lasterketa. Irailaren 25ean izango da hitzordua eta dagoeneko zabalik dago izenemate epea – irailaren 18a izango da internetez izena emateko azken eguna *dmilenial.com* atarian–. Antolatzaileek hilabeteak daramatzate bidetxurrak atontzen, eta baita isilpean mantenduko dituzten bide berriak egiten ere.

Trikitixa Eskola plazara, artista handiak oholtzara

Hirugarren Hauspo Eguna antolatu dute Ibai-arte merkataritza elkarteak eta Arrasate Trikitixa Eskolak elkarlanean. Gaur eta bihar trikitilari gazteen eta iaioen presentzia ziurtatuta egongo da erdigunean. Musikaz gain, badaude bestelako ekintzak ere

Hasier Larrea ARRASATE

Merkemerkaua eta Eskola Plazara egitasmoak urtero antzeko datetan egiten zirela ikusita, Ibai-arte merkataritza elkarteak eta Arrasate Trikitixa Eskolak indarrak batzearen aldeko apustua egin zuten pandemia bete-betean. Halaxe sortu zuten Hauspo Eguna, eta, bi edizio arrakastatsuren ostean, aurten bi egun jarraian antolatzea erabaki dute, irailean egun bat eta urrian beste bat antolatu beharrean. Hauspoaren melodiei protagonismorik kendu gabe, Herriko Plazan zenbait ekintza erakargarri programatu dituzte gaurko; izan ere, 18:00etan, *Trikigin* ekitaldian parte hartuko dute hamar taberna ingurutako ostalariek. Trikitixa Eskolako Maixa Lizarribarrek aipatu du zertan datzan Eskola Plazara egitasmoaren lehen edizioetatik egiten den lehiaketa: "Epaimahai batek ostalariek ateratako kopak dastatu eta nota jarriko die; morboa sortzen du txapelketak, eta balio du jendeak beste modu batera izateko Trikitixa Eskolaren berri".

Ikasturtea, ate joka

Horixe baita irail hasierako Arrasateko Trikitixa Eskolaren misioa: urrian hasiko diren ikastaroen matrikulazioari buruzko informazioa zabaltzea. "Eta zer hobeto etxeko festa bat antolatzea baino?", gehitu du Lizarribarrek. Izan ere, osagai ugari dauzka aurtengo Hauspo Egunak. Eskola Plazara ekimenarekin Kulturolatik irtengo dira trikiti eta pandero ikasleak kalejiran, 18:00etan, Herriko Plazarako noranzkoan. Bertan prest egongo dira Txatxilipurdik antolatutako jolasak, talogileen taloak eta artisau baten pandero postua, kuriositatea eta gosea duenarentzat.

Arratsaldeko zortzietan, Portaloian, Sine Die proiektu berria estreinatuko dute jendaurrean

Xabier Zabala trikitilariak eta Igor Torre biolin-joleak. Maisu handia izateaz gain, Trikitixa Eskolako kideen aspaldiko laguna da Zabala: "Eskolaren 25. urtemugaren osteko diskoko produktorea izan zen, eta Eskola Plazaren aldi batean ere hitzaldia eman zuen behin, haren ibilbide musikala azaltzeko", azaldu du Lizarribarrek. Ibai-arte Jon Apraizek Trikitixa Eskolako bertute hori goraiatu du: "Eurekin lan eginda errazagoa da maila handiko musikariak ekartzea, kontaktuak izatearen abantaila!".

Zapatuan, mundu mailakoak

Eskaintza musikalari dagokionez, ez du koskarik jaitsiko hurrengo eguneko egitarauak. Nazioarteko kutsua izango du, hori bai. Horren harira, Apraizek honako ikuspuntu hau partekatu du: "Trikitia gure musi-

**SINE DIE, ETOILE
MUSSETTE ETA
FALTRIQUEIRAREN
DOINUEK GIROTUKO
DUTE ASTEBURUA**



Faltriqueira boskoteko hiru kide, maiatzeko Pandero jaialdian, Amaian. E. AZURMENDI

ka-tresna dela aintzat hartuta, interesgarria iruditzen zaigu beste herrialde batzuetan zer-nolako erabilpena ematen dioten ikustea; jaialdiak ere badu helburu hori". Hala, Belgikatik etorriko da Raquel Gigot artista, *Etoile Musette* izenpean. Bi ikuskizun eskainiko ditu Herriko Plazan; bata 18:00etan eta bestea 20:00etan. Lehenengoan, gainera, txotxongiloak erabiliko ditu neska-mutilak liluratzeko: "Guretzat sorpresa izan da txotxongiloen proposamena. Berez, hauspoarekin kontzertua ematera etorri behar zuen, baina aipatu zigun bazuela ikuskizun hori ere, eta, noski, guk pozarren hartu dugu", dio Lizarribarrek.

Eta, azkenik, Hauspo Egunari ginga jartzeko erronka izango dute, 23:00etan hasita, jadanik herrian ezagunak diren Faltriqueira galiziarrek. Maiatzeko Pandero Jaialdiko protagonistetako bat izan zen emakume taldea, eta orduan erakutsi zuten sasoi bete-betean jarraitzen dutela: "Izan ere, nazioartean panderoa ezagutarazi zuten aitzindariak izan ziren duela pare bat hamarkada".



Gaurko protagonista, Amaia Miranda. AITOR RODERO

Proposamen ausartak dakartza berriro Kulturate Akustikoak

XIV. aldiz antolatu du Udaleko Kultura Sailak iraileko lehen bi asteburuetan garatzen den kontzertu sorta

H.L. ARRASATE

Musikazale kuriosoenentzat bereziki erakargarria den kontzertu zikloa gaur hasi eta irailaren 10ean bukatuko da, tarteko ostiral, zapatu eta domeketan panorama musikaleko lehen lerroaren atzean dauden taldeen proposamenak ezagutarazteko helburuarekin. "Asmo horrekin jaio baitzen Kulturate Akustikoa, ikus-entzulea harritzeko bokazioarekin", adierazi du Karmelo Alberdi Kultura teknikariak, eta gaineratu aurten "ohi baino bizkorrago" iritsiko direla hitzorduak, hain justu, irailaren 1a tokatzen delako hileko lehen ostirala; gaurko eguna, alegia.

Egitarau zabala

Hala, Amaia Miranda bakarlariak irekiko du aurtengo kartela. Musikari bilbotarrak entzuleak lasaitasun, edertasun eta sentikortasun inbertso batera eramateko gaitasuna du, hitz soilkin eta gitarra akustikoaren akordeetatik abiatuta. Estilo hori guztiz bat dator musika zikloaren filosofiarekin, izenak berak iradokitzen duen moduan, baina beste estilo batzuei ere ateak irekitzen dizkie egitarauak.

Biharko emanaldia da horren adibide, bateria eta saxofoi-doinuetara egingo baitu salto Kulturate Akustikoak, Dos bikotearen zuzenekoarekin. Sergio Rodriguezek eta Ibon Irijoak osatzen dute taldea, eta kalera-tutako *Super* lehen EPak kritikaren aldetik onarpen handia izan du. Jaialdi sonatuetan jo-

tzeko aukera izan dute; Donostiako Jazzaldiko eszenatokietan, esate baterako. Gainera, nazioartean ere egin dute euren bidetxoak, Kolonbiako *Idartes* aldizkariak eskaintza musikal berri hobereza bezala definitu izan baitu.

Domekan, ostera, Miren Narbaizak *Mice*-k bere bakarkako proiektua aurkeztuko du. Napoka Hiria, Perlak, Drumkopters eta Dual Split taldeetan ibili ostean, ibilbide propioa urratzen dihardu euskal musika eszenan talde esanguratsuetan jo izan duten musikarien laguntzarekin. Besteak beste, irailean kalera-tuko duen *Lautada* laneko abestiak eskainiko ditu abeslariak. Bertako kantuen atmosfera ilun, distortsio eta erritmo ugaritako tempoz osatuta daude, *Mice*-ren ahotsari nabarmentzeko testuingurua eskainiz.

Datorren asteburuan beste hiru proposamen interesgarri egongo dira aukeran: diziplina anitzeko *Ghau* ikuskizuna, flamenkoa, popa eta doinu latinoak uztartzen dituen Maruja Limon eta rock, blues eta country klasikoan oinarritzen den Frank Blackfield. Esan bezala, irakurleari ezezagunak egin ahal zaizkio musika zikloko protagonista gehienak, baina, Alberdik gogora ekarri duen legez, "etorri izan dira aurretik ere momentuan ezagunak ez baina urteekin punta-puntako bihurtu diren artistak".

Emanaldi guztiak Kulturateko areto nagusian egingo dira, 20:00etan hasita.

Micaela Portilla jaio zela 100 urte bete dira

Arabako Foru Aldundiak omenaldia egin zion haren jaiotzaren urteurrenean. Horrez gain, Portillaren ibilbidea jasoko duen dokumental bat prestatzen dabilta. Aramaion ere ondo akorduan dute Portilla: Untzillako maistra izan zen 1945ean

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Uztailaren 30ean, 100 urte bete ziren Micaela Portilla antropologoa, historialaria eta pedagogoa jaio zela. Urteurren borobila aprobetxatuta, omenaldi berezia egin zion Arabako Foru Aldundiak Fontechan, Portillaren izena daraman lantegi eskolaren egoitzan.

Ekitaldia hasi zuten Portillaren irudia eta haren jaiotzaren mendeurrenaren urteurrena gogoratzen dituen plaka bat inauguratuz. Plaka harrizko monolito baten gainean dago.

Dokumentala egingo dute

Omenaldiaz gain, Micaela Portilla fundazioak, Aldundiaren eta Vital Fundazioaren laguntzarekin, dokumental bat egingo du, Portillaren bizitza jasoko duena. Dokumentalean pertsona eta haren lana ezagutarazi nahi dute; eta, era berean, emakumea eta zientzialaria omendu. Ikus-entzunezkoan, Arabako hainbat herritan egindako ekitaldien bideoak, argazkiak, oroitzapen pertsonalak... jaso nahi dituzte. Besteak beste, Portillaren bizitzako leku esanguratsuenak batu nahi dituzte: Gasteizko San Pedro eliza eta hazten ikusi zuen etxea, Samaniego kaleko 6. zenbakia; irakasle moduan lehen urratsak egin zituen Aramaio; Madril, Artearen Historiako irakasle izan zen han; eta baita Lovaina ere.

1945ean etorri zen Untzillara Portilla, maistra lanak egitera.

Haren lehen ikasleak

Untzillako hamabi bat neska-mutiko izan ziren Portillaren lehen ikasleak. Honela gogoratzen du Juana Mendizabalek: "Gellao auzokoa naiz ni, baina Untzillako eskolara etortzen nintzen. Kategoriako irakaslea izan zen, inork ez dizu gaizki berba egingo. Ikasle guztiak berdin tratatzen zituen, maitasun han-



Uztailaren 30ean egin zitzaion omenaldiko irudia. ARABAKO FORU ALDUNDIA

diarekin. Maistra izateko bokazioa zuen, umeak gustuko zituen. Guk ere asko maite genuen hura".

Mendizabalek dio 10 bat urte zituela Portilla Untzillara etorri zenean –egun, 88 urte ditu–. Pena

du, urte bakarra egin zuelako Untzillan maistra: "Lastima denbora gutxi egin zuela, bestela irtengo ginen...".

2005eko urriaren 8an hil zen Portilla. Urtebete geroago, omenaldia egin zioten Untzillan.

Kaleko erakusketan, gogoan

Aramaio herriak eta baita Udalak ere ondo gogoan dute Micaela Portillak egindako ekarpena. Hori horrela, ikuspegi feministatik egin zitzaion omenaldia Martxoaren 8an. Aramaio herriari ekarpena egin dioten emakumeak omendu zituzten: kaleko erakusketan inauguratu zuten, Aramaion garrantzitsuak izan diren 12 emakumeren izenekin; tartean, Micaela Portilla.

Eskolako atearan ondoan dago Portillaren omenezko plaka, erretratuarekin eta azalpenarekin. 1945ean Untzillan irakasle egindako lana aipatzen da; baina baita Portillak idatzi zituen arte eta historia liburuetan Aramaio artelanak bildu izana ere. Izan ere, Portillak milaka orri idatzi zituen artikulua eta liburuetan; Arabako eta Aramaioko ondare historikoa eta artistikoa gordetzeko lan handia egin zuen.



Portillaren argazkia, eskolan. A.E.

Jazz doinuekin hasiko dute Sastiñako musika jaialdia, gaur

Gasteizko Infraganti boskoteak kontzertua egingo du, 19:00etan; irail osoan izango da jaialdia

A.E. ARAMAIO

Gasteizko Infraganti boskoteak girotuko du gaurko arratsaldean Sastiña aurrealdean. Jazza, swinga, bluesa eta funka uztartzen ditu taldeak, Julia Butenko abeslariaren ahotsak lagunduta. Musika egiteko lau instrumentu izango dituzte: baxua, gitarra, saxoa eta bateria.

Azken urteetako ohiturari jarraituz, iraileko barikuetan izango dira emanaldiak: gaur hasi eta irailaren 23ra arte.



Taldeko abeslaria. INFRAGANTIVITORIA

Bestelako doinuak

Lau emanaldi izango ditu aurtengo jaialdiak: irailaren 9an, El Callejon de Cachan hirukoteak egingo du emanaldia. Ironiaz eta kritika sozialaz jositako abestiak joko dituzte. Ana Soaga da taldeko abeslaria.

Musika modernoaren errepertorioa duen ganbera abesbatzaz

gozatze aukera egongo da irailaren 16an: Shuffled Choir Soul Proyect taldearekin.

Irailaren 23an amaituko dute jaialdia, Gorrondatxe taldearekin. Euskal abestiak joko dituzte: eurenak eta baita bertsoak ere. 19:00etan izango dira saio guztiak.

Imanol Ituiñoren magia aurrez aurre ikusteko aukera

MagialdiArabaren VIII. edizioaz gozatze aukera egongo da Aramaion irailaren 7an, eguaztena. 7 eta 12 urte bitartekoendako magia tailerrak eskainiko dituzte, 18:00etan, ludotekan; aldi berean, 18:30etik 19:30era, tabernetan, magia gertutik eza-gutzeko aukera egongo da; eta 19:30ean, Imanol Ituiñok magia ikuskizuna egingo du Sastiñan.

Irailaren 5etik 9ra ate irekiak egingo dituzte Musika Etxean

Musika Etxeko eskaintza eza-gutzeko aukera egongo da irailaren 5etik 9ra, 17:00etatik 19:00etara. Musika eta mugimendua, hizkuntza musikala, pianoa eta gitarra... eskaintzen dituzte. Horien gaineko informazioa jaso eta izena emateko aukera egongo da datorren astean. Adin guztietarako aukera dute. Informazio gehiago, Musika Etxean.

OHARRAK

Marixekako jaiak domekan

Marixekan jaiak ospatuko dituzte irailaren 4an. 11:00etan, salda eta txorizoa; 12:00etan, meza; ondoren, kantu poteoa; eta 18:00etan, umeendako poneyak eta bigantxak.

Ikasturte berria

Irailaren 8an hasiko dute 95 ikasleek 2022-2023ko ikasturtea Aramaio Herri Eskolan. Egunean eta barikuan goizez izango dituzte eskolak eta irailaren 12tik aurrera, egun osoz.

Odol-ematea: irailaren 8an

Odola emateko autobusa kultura etxe ondoan egongo da 16:45etik 20:00etara irailaren 8an, eguena.

Herritarren ekarpenak izan dituzte aztergai

Foru Aldundiaren Etorkizuna Eraikiz kapsulak ekainaren 22an jaso zituen aretxabaletarren proposamenak, eta orain, Markel Olano diputatu nagusia alkatearekin elkartu da horiek ezagutzera emateko eta elkarlanean jarduteko

Mirari Altube ARETXABALETA

Gipuzkoako 26 udalerritan –baita unibertsitateko lau campusetan ere– izan da Etorkizuna Eraikiz kapsula herritarren ekarpenak, proposamenak eta kezka batzen, eta Aretxabaletan jasotako berri eman zion eguaztenean Markel Olano diputatu nagusiak Unai Elkoro alkateari; Gizartegintzako zinegotzi Karmele Uribarriekin egin zien lagun.

Haurren gaineko gaiak

Biztanleei galdetu zitzaizen nola irudikatzen duten Gipuzkoa 2040an, eta horri erantzunaz askotariko gaien gaineko ekarpenak egin zituzten: 133, hain zuzen ere. "Gure balorazioa positiboa da. Ekarpenean anitzak izan dira, norberak ezarritako lehen-tasunetik abiatutakoak; hala, garraio kontuak, azpiegituren gaineko kezka eta gaur egungo agendarekin zerikusia duten kontuak jaso dira", adierazi zuen Olanok.

Herritarrek egindako eskaera asko ez direla berriak Udalarendako adierazi zuen alkateak: "Atzemanda ditugu geuk ere. Horiez gain, berriren bat ere egon da. Orain aztertuko dugu herritarren behar horiek nola txerta ditzakegun hurrengo urteetako plangintzetan".



Karme Uribarri, Markel Olano eta Unai Elkoro herritarren ekarpenekin. A. EZKIBEL

Jasotako 133 ekarpenen %27,8k haurren gaineko gaiekin dute zerikusia; herriko parkeak estaltzea da kezka nagusia, hain zuzen ere. Kirolari dagozkionak %18,8 izan dira eta kanpoko igerilekua eraikitzea dago proposamenen artean.

Aretxabaletan jasotako horiek Diputazioaren Aurrekontu Irekien prozesu barruan sartuko dituzte. Azken fasean hamabi proiektu egongo dira, eta herritarrek proiektuok hautatzeko aukera izango dute Internet bitartez.

Herritarren parte-hartzea

Diputatu nagusiaren iritziz, Etorkizuna Eraikiz programari esker, "gobernatzeko modua eraldatzen" ari da Gipuzkoan eta udalerrien eta herritarren "parte-hartzea bultzatzea oso garrantzitsua" da: "Inportantea da herriak berak garbi izatea zein garapen dituen etorkizunari begira. Gizarte politika arloak nagusitasun handia izango du, eta elkarlana funtsezkoa da". Elkororen esanetan ere, ekimen garrantzitsua da herritarrei hitza ematen dielako.



Eskaintzak herritarren eskura Haurrak dendaren aurrealdean. SILVIA ALVAREZ

Ixadebalde merkealdien azoka irailarekin batera etorri da

Zazpi merkatarik dendan aurrealdean izango dute jeneroa, merkatuta, zapatu eguerdia bitartean

M.A. ARETXABALETA

Aretxarte merkatarien elkarteak antolatutako Ixadebalde azoka iraileko lehen egunetan dator aurretik; atzo hasi eta bihar eguerdia arte (10:00-14:00) egingo dute. Zazpi merkatarik hartuko dute parte orainoan, eta, azken urteetan legez, dendan aurrealdean jarriko dituzte postuak.

Eskaintzak eta opariak

Saldu gabe geratutako jeneroa eskaini gura izan dieten herritarrei honako merkatarik hauek: Haurrak, Asensio, Tak, Belar Meta, Kilima, Almila Shop eta

Amaia ume denda. Udako arropa, oinetakoak, osagarriak eta beste hainbat produktu dituzte, prezio "ezin hobeekin". Orainoan ere izango direla opariak adierazi dute; denda bakoitzean gastatzeko bonuak zozketatuko dituzte bezeroen artean.

Argazki lehiaketa

Bestalde, argazki lehiaketa deitu du Aretxartek 2023ko egutegia osatzeko. Argazkiak urriaren 30a arte bidali daitezke, helbide honetara: aretxarteelekarte@gmail.com. Saria izango da 50 euro argazki bakoitzeko.

Andramaixak ospatuko dituzte Areantza auzoan

Irailaren 8an, eguenean, hasiko dituzte Agorreko Andramaixak, Areantzan, Martin Kabarrixari ongietorria eginda eta tantaia jasota (20:00). Egubakoitzean, hilaren 9an, kanpai-joaldiak eskainiko dituzte lehenengo (20:00), eta ondoren (20:30), auzo-afaria izango dute, dantzaldi eta guzti.

Irailaren 10ean, meza izango da auzoan hildakoen alde (12:00), eta bukatutakoan (13:00), mokadutxo eskainiko dute eta ginkana jolasari ekingo diote. Areantzako jolasak ere egingo dituzte arratsaldean (17:45). Domekan, Kurtzebarri Egunarekin bat egin eta argazkia aterako dute mendi tontorrean (12:00).

Jardueren eskaintza gertu dauka Ibarra kiroldegiak

Kirol denboraldia irailaren 19an hasiko dute Ibarra kiroldegian eta dagoeneko ikusgai daukate webgunean *-ibarrakiroldegia.eus-* jarduera guztien berri dakarren dokumentua. Aste horretan, hilaren 19tik 23ra, gainera, ate irekiak izango dituzte jarduerak ezagutzera emateko. Taldea osatzeko gutxienezko kopurua zortzi pertsona izango da aretoko jardueretan eta zazpi uretakoetan.

Umeen igeriketari dagokionez, aurretik ikastaroetan dihardutenek igeriketara maila-probak irailaren 5a eta 8a bitartean izango dituzte; lehenengoz izena emandakoek, osteran, irailaren 12tik 16a bitartean.

Jasotako ekarpen esanguratsu batzuk

Haurrak (%27,8)

- Parkeak: estaliak, tirolinakin...
- Ur txorrotak.
- Umeendako ekintza gehiago.

Kirola (%18,8)

- Kanpoko igerilekua.
- Pilotalekua: berritu, aldagelak.
- Saskibaloia kantsa gehiago.

Azpiegiturak (%16,5)

- Eskailera mekanikoak.

- Iturri gehiago.
- Herria konpondu: asfalto lanak...
- Garbiketa lanak: estolderia...
- Aterpe gehiago.

Mugikortasuna (%14,3)

- Garraio publikoa hobetu: autobus gehiago, ordutegi zabalagoa.
- Bidegorria: herri barrukoa hobetu, herri artekoa indartu.

Ingurumena (%7,5)

- Natura parke gehiago.
- Kutsadura murriztu.

Ekonomia (%4,5)

- Etxebizitzak: eskura, alokatzeko merkeagoak...
- Gasolina merkatu.

Gazteak (%3)

- Etxebizitzak.
- Lanpostuak.



David Agirre, joan den asteburuan jasotako saria eta tomate irabazleak eskuetan, Larrino auzoan. H.L.

Beste sari bat herriko tomate preziatuarentzat

laz bezala, aurten ere Aretxabaletako tomate barietateak irabazi du Espainia mailako tomate onenaren saria Santa Cruz de Bezanako –Kantabria– azokan. David Agirre ekoizleak jaso du saria: "Meritua fruitu mota honen alde lan egin dutenena da"

Hasier Larrea ARETXABALETA

2021eko udan, tomatearen munduan ezagun egin zuen Aretxabaletako barietatea Larrinogarai baserriko David Agirrek. Santa Cruz de Bezanako azokan aurkeztu zuen uzta: "Aretxabaletan ere azoka egiten dugunez, beste herri batzuetakoak nolakoak diren ikusteko". Haren sorpresarako, Espainia mailako sari-

ketan tomaterik onena bezala izendatua izan zen Agirrek aurkeztutakoa, adituz osatutako epaimahaiak hala erabakita.

Beste bi tomate-motarekin lehiatu zen finalean: Malagako zezen-arrautzarekin eta Los Arcosko (Nafarroa) tomate arrosarekin. Hirurak dastatzerakoan, bost epaileek ez zuten zalantzarik izan sari nagusia iazko ber-

berari emateko garaian. "Aretxabaletako tomatea hartu bezain azkar, Zaragozatik etorritako epaile batek kamera bat hurbiltzeko eskatu eta zera esan zuen: "Tomate hau asimetrikoa da; beraz, barietate zaharra da, ez du tratamendu berezirik, eta azala haragiarekin lotuta dauka; hau da benetako tomatea!". Hainbeste azalpen eman zituen,

harrিতuta geratu ginen!", azaldu du Agirrek.

Tomate zaharrak bakarrik

Sona handiko lehiaketa horretara mundu osoko 220 parte hartzaile aurkeztu dira aurten, horretarako baldintza izanik tomateek barietate zaharrekoak izan behar dutela: "Normalena da 40 urte baino gehiago izatea, eta jadanik barietate bezala onartuta egotea; hau da, ez du balio, adibidez, *Larrinoko tomatea* bezala aurkeztea, hala-korik ez baitago erregistratuta. Transgenikoa ere ezin da izan, ezta barietateen arteko nahasketak ere".

Bistan denez, Aretxabaletakoak betetzen ditu baldintza horiek, Agirrek aitortu bezala, pertsona talde batek lan handia egin duelako barietate autoktonoaren alde: "Koldo Zubizarreta izan zen tomate mota hau berreskuratu zuena; gero, Tomas Larrañagak aurrera egiteko bidea ondu zuen; eta, azkenik, hemen gabiltza beste batzuk tomate horri izena eman eta zabaltzen".

Modu naturalean, hobeto

Bailarako ortu gehienetan ikus daitezke tomate landareak uda garaian. Ekoizleei fruitu goxoa lortzeko gomendio ximple bat eman die Agirrek: landare osasunerako produktu artifizialik ez botatzea. "Izan ere, tomatea era naturalean zaintzen ez bada, igarri egiten da, gainontzeko

"LANDAREEN %85 UREZ OSATUTA DAUDE; EZ DUTE UR ASKORIK JASOTZEKO BEHARRIK"

Azoka berezia egingo da

Irailaren 11rako, Aretxabaletako tomateari eskainitako egitaraua dago antolatuta Durana kalean. Tokiko ekoizleek osatutako hogeitabat erakustokiren artean, tomaterik itsusiena eta barietate handiena eskaintzen duen postua sarituko dute. Hona hemen programa:

- **10:00** Irekiera.
- **12:00** *Haziak atera denon artean. Hazilana tailerra.*

Oharra: hilaren 8tik dastatu ahalko dira bertako tomatearekin egindako pintxoak tabernetan.

landareekin gertatzen den bezala. Urte batean hondatu egiten direla eta produktu kimikoak botatzea erabakitzen duzula? Ondo. Baina hasten bazara produktu fitosanitarioak sartzen, lurra egokitu egiten da; ondorioz, ez du behar bezalako substratua jasotzen. Zirkulu horretan sartuz gero, elikagaiak hor geratzen dira datozen urteetan ere", zehaztu du Agirrek.

Berriz ere Kantabriara

Azokei gustua hartuta, asteburu honetan Torrelavegako lehiaketan izango da Agirre, herriko tomatearen ospea lau haizeetara zabaltzen. Irailaren 11ko herriko tomate azoka berezian egongo ote den galdetuta, erantzun du espero duela "ordurako ere tomate onak izan eta zerbait txukuna aurkeztea".

Azken proba, eta lehiatzera

Ohorezko Erregional Mailako taldeak herenegun egin zuen argazki ofiziala, Realeko gazteen aurkako partiduan. Domekan, 16:30ean, Urgatziren bisita jasoko dute azken lagunartekoan. UDAk bost jokalarri berrirekin –harrobiko bi eta kanpoko hiru– hasiko du liga datorren astean; Aloña Mendi izango du aurkari Ibarran, eta hiru aste barru, Bergara.



MIRARI ALTUBE

Egun osoko egitaraua hilaren 10ean, astorian kontura

Hiru urteren ostean, berriz izango dute aretxabaletarrek astoa dastatzeko aukera, *Gilda* izeneko, datorren asteko zapatuan. Mitarte kalean izango da herri bazkaria, 14:30ean, eta txartelak Orlyn, Kixkorren eta Arlutzen eros daitezke, 30 eurotan. 11:30ean bolo txapelketa egingo dute, 13:00etan txikiteoa eta 18:30ean Upeidek jarriko du musika.



Mitarte 10 Aretxabaleta. / 943 77 06 12
gertu@gertujanariak.eus / gertujanariak.eus



Uholde gorria sortu zuten gazte bazkarian 300 gazte inguru elkartuta. A.A.



Manolo Zubillaga pregoia esaten. A.A.



Irudi
ILE APAINKETA

Errekabarren kalea 20,
Aretxabaleta.
943 79 80 90



Udalbatzako kide gehienak ikurrinari agurra egiteko unean, eta hala, jaiei hasiera eman. AITOR AGIRIANO

ANDRA MARI
ASESORIA / AHOLKULARITZA

Fiskala
Kontablea
Juridikoa eta laborala

Araba ibilbidea 20A, behea • Aretxabaleta
943 79 29 26 • joseluis@asesoriaandramari.com

Ondo aseta Andramaixen zain izan diren guztiak

Hiru urteren ostean indartuta itzuli ziren herriko jai nagusiak abuztuaren erdian, eta Udaleko Kultura Saileko zein Gazte Mugimenduko ordezkariak oso pozik agertu dira antolatutako ekitaldiek zein kontzertuek izandako harrera beroarekin

Mirari Altube ARETXABALETA

Ohiko Andramaixak berreskuratzerakoan egitaraua indartzeko ahalegin berezia egin zuten Udalak zein Gazte Mugimenduak, eta herritarrek eskertu egin dute hori.

Manolo Zubillagak botatako pregoiarekin eman zieten hasiera ofiziala jaiei eta jendetza batu zen udaletxe inguruan horiei ekiteko gogotsu. Betiko ekitaldiek harrera beroa izan zuten: umeendako ekintzek, profesionalen arteko pilota partiduek, paella erraldoiak -700 lagunendako egin eta bakarren bati ailegatu ez-, kuadrillen arteko jokoek, sokamuturrak

eta Rockalean taldearen emanaldiak, esaterako; baita berriek ere, *scape room*-ak eta El Drogasen kontzertuak, besteak beste. "Ekintza guztiak izan dute parte-hartze handia; hortaz, balorazioa ezin hobea da. Ezustekorik ere ez da izan, bakarrik sokamuturrean kolpe batzuk", adierazi du Ainhoa Cabero Kultura zinegotziak.

Herriko taldeak txosnagunean

Gazte Mugimenduko kideek ere egitarau osatua gertatu zuten herriko taldeei -hamarretik gora- eta sortzaileei leku handia eginda. Eta oso gustura agertu dira izandako erantzun-

narekin. "Ekitaldi gehiegi ez ote dugun antolatu... Hori bai, sekula baino jende gehiago izan da eta aparteko giroa sortu dute", adierazi du Jokin Uribetxebarriak.

Hudaltzainak taldea aipatu behar da horien artean; izan ere, herriko hainbat musikaririk Andramaixetarako bakarrik sortu zuten, Hertzainak taldearen abestiak eskaintzeko, eta txosnagunea lepo bete zen.



Argazki gehiago eta bideoak ikusteko, eskaneatu QR kode hau telefonoarekin.

www.aredhana.es
Ikastaroak 22-23
Irailetik Uztailera

Mindfulness
Chi-Kung
Meditazioa
Yoga
(taldeka / banaka)
Gestalt terapia
Yoga terapeutikoa

Santia Kurtz 24, ARETXABALETA
616 96 57 95



Sua eta perkusio ikuskizuna Zozongo taldearekin. MIRARI ALTUBE



El Drogas kantuan, Herriko Plazako oholtzan. A.A.



Herriko pilotariak garaikurrekin, erakustaldiak egin ondoren. M.A.

**EL DROGASEK BETE
EGIN ZUEN HERRIKO
PLAZA ETA KANTUAN
JARRI ZITUEN
JARRAITZAILEAK**

**MILAGROKO BANDAK
IKUSMINA PIZTU
ZUEN, BESTE BEHIN;
BEREZIKI PERKUSIO
JOLEAREN SAIOAK**



Milagroko banda kontzertua eskaintzen Durana kalean, herritarrek inguratuta. A.A.



Ama Birjinaren irudia kalean. M.A.



83. txirrindulari txapelketako irabazle Samuel Fernandez helmugaratzen. A.A.

Gemes
Irudi aholkulariak

Thermolipolisia
Urruneko infragorria
Salo bakararekin
Iortuko duzu!

Gerria eta izterrak murriztea,
azalaren tonu hobea,
tentsioak leuntzea.

Animatu eta txanda hartu:
943 79 99 18

**EUSKAL
OGIA**

GURE GARIA, GURE OGIA
NUESTRO TRIGO, NUESTRO PAN

BEROA OKINDEGIA
Basabe poligonoa 2 / Loramendi 6
Aretxabaleta

hazi

Trinak
Espainolegi & Estetika

Herriko plaza 5 • Aretxabaleta • 943 79 83 64

MAKAI
X COOP ETXEA

*Barruko eta kanpoko lorategiak
zaindu eta sortzen ditugu*

*Ureztatze-sistema automatikoak
instalatzeko ditugu*

Basabe ind. D-2-1, Aretxabaleta
943 79 78 45 • makai@makaiscoop.com



**ALBERDIK ETA
AGIRIANOK EGIN
ZIOTEN ONGIETORRIA
UMEEI ESKAINITAKO
EGUNARI**

**700 LAGUNENDAKO
EGINDAKO PAELLA
JAN OSTEAN
JOLASEAN JARDUN
ZUTEN KUADRILLEK**



Gorka Madinabeitia aretxabaletarra bola jauritzen Andramaixetako txapelketan. M.A.



Gaztetxo bat zezen mekanikoari helduta. A.A.



Ihintz Alberdi eta Unax Agiriano alkate txikiak pozik. A.A.



Kuadrilla bat paella jaten hastear Herriko Plazako arkupeetan. A.A.



Bikote bat jolasean kuadrillen arteko jokoetan. A.A.



Zezenkoa Durana kaleko jarlekuaren ostean pilatutako gazteei begira. A.A.

**SOKAMUTURREAN
GAZTE MORDOA
ELKARTU ZEN, ETA
ASKOK JASO
ZITUZTEN KOLPEAK**

**ANDRAMAIXETARAKO
PROPIO SORTUTAKO
HUDALTZAINAK
TALDEAK TXOSNA
AZTORATU ZUEN**



Herriko musikariek osatutako Hudaltzainak taldea txosnaguneko oholtzan. M.A.



Herriko Plazan elkartutakoak kantuan eta dantzan Rockalean taldearekin. M.A.

Mobiliario
ARENAZA

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

SANER

Iturgintza, gasa eta berogailuak
Aportzaga auzoa. Eskoriatza
605 71 66 92

Bainuontziaren ordeztutako jarriko
dizugu EGUN BATEAN!

Galdarak aldatzen ditugu



Errekan Gora jaialdiko egitaraua aurkezteko, *aperitif* kontzertua izan zen HABI taldearen eskutik, Inkernu kanpoan. IÑAKI KORTAZAR

Korronteari aurre egiteko moduko kultura eskaintza Errekan Gora jaialdian

Iraileko hirugarren asteburuan, sei kontzertu izango dira Eskoriatzan Atxorrotx Kultura Elkarteak antolatutako Errekan Gora jaialdiaren hamalagarren edizioaren barruan. Emakume musikarien presentzia bermatu nahi izan dute aurtan

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** Atxorrotx Kultura Elkarteak antolatutako Errekan Gora jaialdia iraileko hirugarren asteburuan izango da, eta, hasierako edizioetan ez bezala, asteburu bakarrera mugatzearen aldeko apustu irmoa egin dute hamalagarren edizio honetan antolatzaileek, iaz moduan.

Jaialdia antolatzen hasi zirenetik uztaileko asteburuetan banatu izan da programazioa, eta bereizgarritasun asko izan ditu orain arte: emanaldiren bat herrigunetik atera izan dute; ohiko txokoez gain, herriko bestelako eremuak ere erabili izan dituzte kontzertuak egiteko; musikaz gain, bestelako kultura diziplinak ere izan dira... Hala ere, uztailean Debagoienean izaten den kultura proposamen handiaz jabetuta, irailera aldatzea eta aste bukaera bakarrera

mugatzea erabaki zuten Atxorrotx Kultura Elkarteak. Hori horrela, edizio honetan, sei musika talde izango dira, guztira, irailaren 16ko, 17ko eta 18ko asteburuan Eskoriatzan.

Emakume presentzia bermatu

"Iazko edizioaren balorazioa oso ona egin genuen Atxorrotx Elkarteak. Iraileko asteburu bakarrean antolatu genuen jaialdia, eta, emanaldi bat herrigunetik atera arren, Fernando Eskoriatza plazan izan ziren kontzertu gehienak. Hori horrela, aurtan lau emanaldi izango

PUNTAKO MUSIKA TALDEAK IZANGO DIRA HAMALAGARRAREN ERREKAN GORA JAIALDIAN

dira Fernando Eskoriatza plazan, beste talde bat kaleetan zehar arituko da eta beste bat Gernika plazan egingo da. Beste urte batez, puntako taldeak ekartzeko ahalegina egin dugu, eta asmatuko dugula aurreikusten dugu. Gainera, emakume musikarien presentzia bermatu nahi izan dugu aurtengo programazioan...", adierazi dute Atxorrotx Kultura Elkartetik.

Menua aurkezteko, 'aperitif'-a

Aurtengo Errekan Gora jaialdiko egitaraua aurkezteko, Yeray Gasconek eta Jon Ander Artolak osatutako HABI taldearen emanaldia izan zen joan den zapatuan Inkernu taberna parean. Royal Blood eta Queen of Stone Age taldeen musikaren antzekotasunekin, estilo askoren nahasketez betetako kantuak izan ziren gozagarri.

Jaialdian izango diren musikariak



LIHER
Herriko plazan
Irailak 16, egubakoitza / 22:30



ANARI
Herriko plazan
Irailak 17, zapatua / 13:00



KINBONBO BRASS BAND
Herriko kaleetan zehar
Irailak 17, zapatua / 19:30



NEOMAK
Herriko plazan
Irailak 17, zapatua / 22:30



ERROMINTXELAK
Gernika plazan
Irailak 18, domeka / 13:00



THE RIFF TRUCKERS
Herriko plazan
Irailak 18, domeka / 19:30



Musikari laguntzeko, 'foodtruck'-a

Berezitasun moduan, Errekan Gora jaialdiaren baitan *foodtrack* karabana bat izango da musika-hitzorduei laguntzeko. Mota askotariko hanburgesak eskainiko ditu, hot dogak, patata frijituak gaztarekin eta hirugiharrekin, pintxoak, pastelak...

Bidegorriko hoditeriaren lanak, irail amaierarako

Eskoriatzatik Aretxabaletako noranzkoan ur hoditeria nagusian egin beharreko lanengatik itxita egon da bidegorria. Aurreikuspenen arabera, hilabete honetan amaituko dituzte, baina zenbait erabiltzaile kexu dira alternatibarik ez delako jarri

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Uztailaren 5ean Eskoriatzako Udalak webgunean jakinarazi zuen moduan, Eskoriatza eta Aretxabaleta arteko bidegorriaren lanak egiten hasi ziren, hura zeharkatzen duen ur hoditeria nagusian zenbait konponketa egin behar zituztelako. Hori horrela, oinezkoentzat, bizikletan aritzen direnentzat edo herri batetik bestera patinetek aritzen direnentzat, hau da, erabiltzaile guztientzat, itxita izan da bidea ordutik. Lanak ondo bidean, irailean normaltasunez irekitzeko aurreikuspena zuten, baina oraindik ez dituzte lanak amaitu, eta, beraz, bidegorriak itxita jarraitzen du, nahiz eta ezinbestean bertatik pasa behar dutenek pasatzen jarraitu duten, errepidea ez zaltzeko eta beraien segurtasuna bermatzeko.

Ur Kontsortzioak hoditeria nagusian hainbat hobekuntza lan egin behar zituelako itxi zuten Eskoriatzatik Aretxaba-

letara bitarteko bidegorria, eta, beraz, Jose Arana nagusien egoitza atzealdetik pasatzen den zatia itxita egon da bi hilabetez. Lehenbizi, nagusien egoitza Intxaurtxuetako pasabiderainoko bide-zatia oinezkoentzako moztuta geratu zen, eta gero, Fagor Automationera bitartean hasi ziren lanak egiten.

Alternatiba eskatu

Abuztuaren 14an, Eskoriatzako eta Aretxabaletako EH Bilduko kideek bidegorriko erabiltzaile guztiei alternatiba bat eskaini behar zitzaie adierazi zuten, lau puntu nagusitan banatuta. Funtsean, adierazi zuten bidegorria ezinbesteko pasabidea dela, esate baterako, lanera joateko:

UR HODITERIA NAGUSIAN EGIN BEHARREKO LANENGATIK IZAN DA ITXITA BIDEGORRIA

"Autoentzat eta autobusentzat alternatibak jartzen diren moduan, bidegorrian dabilzan herritarrentzat ere aukerak jarri behar direla deritzogu; bidegorria ez da aisialdirako bakarrik, desplazamenduetarako ere bada. Kontu izan behar da, eta pairatzen ari garen energia krisiaren testuinguruan, bidegorri bidezko desplazamenduek garrantzia irabazi dutela eta tentu handiagoz zaindu beharra dugula aukera hori. Gauzak horrela, eta garraio jasangarriaren alde egin nahi badugu, oinez, bizikletaz edota patinetek dabilzanez autoz dabilzanez baino lehentasun handiagoa eman behar zaiela deritzogu; eta bidegorria ixteak hainbat herritarri eragiten die: eguneroko paseoa edo korrikaldia egiten dutenei; lanera autoz edo autobusez joaten ez direnei; ondoko herrira aisialdirako joaten direnei... Horren adibide, egunotan errepidetik edo obra tartetik, itxitura gaindituz, ikusi direnak".



ISA VILLAR

Sanbartolometan auzo-bazkaria

Abuztuaren 24an, San Bartolome eguna ospatu zuten Mazmela elizateko auzokideek. Hori horrela, urtero moduan, auzo-bazkaria egiteko batu ziren zenbait lagun Basauria elkartearen. Mikel Ortueta kanpai-joleak errepikak eskaini zituen, eta, *catering* batek prestatutako bazkari goxoaz gain, trikitilariak girotu zuten bazkaloste.



ESKORIATZA KE

Eskozaleak direla adierazi dute

Beste urte batez, Eskoriatza Kirol Elkarteko kideek *Eskozale oporrak* kanpainarekin bat egitea eskatu diete klubeko zaleei. Hori horrela, oporraldiko argazki ugari bidali dituzte eskoriatzarrek taldeko kamiseta edo bufanda jantzita, eta guztiak partekatu dituzte sare sozialetan. Erretratuan, Fonfria (Zamora) herrian ateratako talde argazkia.

Buztina eta zeramika lantzeko ikasturte berria hastear da

Buztinate buztingintza eta zeramika elkarteak ikasturte berria hasiko dute irailean, Eskoriatzako Zubiate labean, Alvaro Garcia irakaslearen gidaritzapean. Aurten, *Zure sormena landu* lelopean, iazko egutegi eta ordutegi berarekin hastea aurreikusiko dute; hau da, eguaztenetan izango dira saioak: haurrentzako -gutxieneko adina,

6 urte- ordutegia 16:45etik 17:45era izango da eta helduentzat, goizez joateko aukera edo arratsaldeko joateko aukera ezarri dute: goizez, 11:00etatik 13:00etara bitartean, eta arratsaldean, 18:00etatik 20:00etara bitartean.

Hori horrela, iazko ikasturtean saioetan aritu zirenei mezua bidali diete ea jarraitu nahi duten galdetzeko, eta, aldi berean, ikastaroa probatu eta ezagutu nahi dutenei ateak irekita ditzutela gogorarazi diete.



Asteon ateratako erretratuan, Eskoriatza eta Aretxabaleta arteko bidegorriko lanen itxura. IMANOL BELOKI



2019an, San Pedro eta Intxaurtxueta auzoetako jaiak ospatu zituztenean, herri bazkaria Partxis plazan. IMANOL SORIANO

'San Pedro txiki' gosez, ilusioz festetarako

San Pedro eta Intxaurtxuetako Jai Batzordearen esanetan, bi auzoetako herritarrak jaietarako gogoz daude, eta programa antolatzeko egindako aurrelanketak fruituak emango dituelakoan daude. Jaiak irailaren 9tik 11ra arteko asteburuan ospatuko dira

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** *San Pedro txiki* jaiak berreskuratu eta errotzeko asmoz, berriro antolatu zituzten San Pedro eta Intxaurtxueta auzoetako herritarrek 2019an. Orduan izandako harrera sekulakoa izan zen, eta pandemiaren ondorioz jaien ordez asteburu kulturala ere antolatu zuten arren, zenbait ekintza antolatuz, bi auzoetako

bizilagunak behar bezala ospatzeko gogoz daude, eta, beraz, San Pedro eta Intxaurtxuetako Jai Batzordeko kideek hiru eguneko programa proposatu dute irailaren 9rako, 10erako eta 11rako. Gainera, zapi berriak eta poloak atera dituzte eta hamabost eurotan salgai jarri, bi auzoetako tabernetan eskatu daitezkeenak. Hala, jaiegunetan

arituko diren herritarrek horiek janzteko eta jaiak koloreztatze-ko asmoz.

Lehenengo egunean, besteak beste, musika izango da protagonista, batez ere. Izan ere, Iru-litxa txarangak bi auzuneetan mugituz musika dantzagarria eskainiko du. Horrekin batera, San Pedro jaietan Gorosarri plazan jarritako oholtzan aritu-

tako rap kantariak ere arituko dira musikaren laguntzarekin letra landuak eskaintzen. Egunari amaiera emateko, DJ Moto -Andoni Moto- izango da. Azken hau San Pedro eta Intxaurtxuetako Jai Batzordean programa antolatzen aritzen da, baina beti izaten da harentzat lekua agertoki gainean. Honako hau adierazi du aurtengo jaien baitan: "Iaz, asteburu kultural gisa antolatu genituen festak, eta pixka bat hankamotz geratu ginen, gehiagorako gogoz. Beraz, aurten, denbora luzez prestatzen eta lotzen aritu garen hitzorduekin bete dugu egitaraua, eta San Pedro eta Intxaurtxueta auzoetako bizilagunen artean ilusioa dagoela nabari da".

Paella-jana 400 lagunentzat

2019an egindako herri bazkarian jendetza batu zen Partxis plaza-ko karparen azpian, eta aurreikuspen berekin daude aurten ere antolatzaileak. Hori horrela, Ilargi, Compostela eta O'Dogherty tabernetan salgai jarri dituzte dagoeneko bertara joateko txartelak, hamabi eurotan. Paella mistoa edo haragizkoa izango da, ogia, edaria eta postrea barne, eta txartelak erosteko azken eguna irailaren 3a izango da.

Kirolak bere lekua izango du

Gimnasia erritmikoa praktikatzen duten Eskoriatzako gimnastek erakustaldia eskainiko dute hilaren 10ean. Hirugarren maila nazionalean denboraldi berria hasiko duen areto futbol taldeak partidua jokatuko du, eta horiekin batera, Eskoriatza Kirol Elkarteak osatzen duten saskibaloiko eta areto futboleko talde guztien, entrenatzaileen eta jokalarien aurkezpena egingo da irailaren 11n.

Jaietako egitaraua egunez egun

Egubakoitza, 9

- 11:30 Puzgarriak.
- 17:00 Karro-poteoa
- 18:00 Txupinazoa.
- 18:15 Buruhandiak.
- 19:00 Iru-litxa txaranga.
- 22:30 Suzko erruberak.
- 23:00 Rap kontzertua. Cryne, Alka, Gafer, Gota, Chaos eta Poki.
- 00:30 DJ Moto.

Zapatua, 10

- 10:00 Txistularien kalejira.
- 11:30 Gimnasia erritmikoa erakustaldia.
- 14:30 Herri bazkaria.
- 16:00 Azahar taldea.
- 17:30 Eskoriatza areto futbol taldearen partidua.
- 19:00 Urolatarrak txaranga eta parrillada.
- 22:00 Obaneuque erromeria.
- 01:00 DJ Mandraberera.

Domeka, 11

- 10:00 Txistularien kalejira eta artisauen eta ekoizleen azoka.
- 12:00 Sagardoa, txistorra eta txanpiak.
- 13:00 Eskoriatza KEren Denboraldi berriko aurkezpena.
- 14:30 *Zuk ekarri, zuk jan* bazkaria.
- 16:00 Bingoa eta puzgarriak.
- 19:00 Adineko pertsonentzako dantza.
- 21:00 Jai amaierako traka.

Luis Ezeiza Herri Eskola pareko kantxa eraberritu egin dute

Zorua aldatuta, saskibaloian eta areto futboleko aritzeko marrak margotu dituzte; zenbait lanen falta dira

I.B. **ESKORIATZA**

Luis Ezeiza Herri Eskolako kantxa herriko haur eta nerabe askoren topagune izan da, eta gaur egun ere hala izaten jarraitzen du. Ez dira soilik bertan batzen eskolako haurrak jolas-

torduetan, Joseba Inurrategi pilotalekuko eraikinean dagoen Eskoitzako gaztelekuko erabiltzaileek ere sarri erabiltzen dute... Beraz, asko erabiltzen den gunea dela kontuan izanda, eraberritzeko aprobetxatu du

Eskoriatzako Udalak udako operaldia.

Irristatzen zuten gune ugari eta arriskutsu zeuden kantxaren zenbait eremutan, zorua egoera kaskarrean, eta lurtean margotutako marrak ezabatuta... Hori horrela, lurra konpondu eta astelehenean margotu egi zuten; nahiz eta areto futboleko jokatze-ateak, saskibaloiko zutabeak eta uztaiak eta lurtean margotuko dituzten jolasak falta diren oraindik lanak bukatzeko.



Luis Ezeiza Herri Eskola pareko kantxaren gaur egungo egoera. I. BELOKI

JAIETAKO EGITARAUA

EGUAZTENA 7

19:00 NOBENA AMAIERA. Dorleta Santutegian.

19:30 GAZTA MOKADUTXOA. Dorleta Santutegian.

EGUENA 8

12:00 MEZA NAGUSIA, Dorleta Santutegian.

12:00 OTXANDIARREI ONGIETORRIA. Herriko plazan egingo zaie harrera Otxandiotik Leintz Gatzagara oinez joaten direnei, eta, urtero legez, salda eta pintxoak izango dituzte, Gatzagako erretiratu taldekoek prestatuta.

18:00 PILOTA PARTIDUAK. Gazteak: Luka-Aner / Xiker-Adei. Profesionalak: Ruiz de Infante-Oses / Etxegarai-Mujika.

19:30 PINTXO-POTE MUSIKATUA.

EGUBAKOITZA 9

13:00 VERMOUTH HERRIKOI MUSIKATUA.

17:30 APAR FESTA HAURRENTZAT.

22:30 KONTZERTUAK: Berandu Baino Lehen, Rebel Noise, Sofokaos eta Neallta Fola. Herriko Plazan izango dira emanaldiak, eta, txosnagunean txandak egin nahi dituztenek aukera dute horretarako, Labidean dagoen izen-emate orria beteta.

23:00 BOLA-JOKO TXAPELKETA. Bolatokian. Izen-ematea egunean bertan egingo da, eta horren arabera banatuko dira gero sariak; hiru, guztira.

ZAPATUA 10

12:00 CANTI VAGANTI. Hurrei zuzendutako *show* musikala.

13:30 TXISTULARIAK ETA KANTU-POTEOA.

17:00 MUS ETA BRISKA TXAPELKETA.

17:00 HAURRENTZAKO PUZGARRIAK.

21:300 HERRI AFARIA. Txartelak salgai daude Labidean. Helduentzat 17 eurotan eta 12 urtetik beherako haurrentzat 12 eurotan. Menua: entsalada mistoa, txuletxoak eta saiheskia brasan, eta flana.

23:30 LAKET ERROMERIA.

DOMEKA 11

12:00 HERRI KIROLAK. Unai Mugerza, Julen Alberdi txikia eta Paulo Azpiazu.

13:30 TXISTULARIAK.

00:00 JAIKI HADI. Dantzaldi herrikoa.



2018an, Gatzagako bolatokian haurrak bola-jokoan aritu zirenekoa. GOIENA

IRAILAK 7,8,9,10 ETA 11

ANDRAMAIXAK 2022

Ondo ibili jaixetan!



Brasan egindako janak batuko ditu herritarrak

Leintz Gatzagako Andramari jaietan, irailaren 10ean egingo den herri afarirako txartelak salgai daude Labidean. Helduek 17 euro ordaindu beharko dituzte afarira joateko eta 12 urtetik beherako haurrek eta gaztetxoek, berriz, 12 euro

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

"Pandemia tarteko herritarrok elkartu eta Andramaixetan klasiko bat den herri afari ederraz disfrutatzea da programazioan azpimarratzeko hitzordua, zailantza barik. Izan ere, ez dugu izan aukerarik guztiok batzeko eta une eder batez gozatzeko; beraz, gatzagarrik horretarako gogoz daudela esango nuke. Gainera, auzolanean egiten den afaria da, giro ederra izateaz batera, sekulako menu aparta izaten dugu", adierazi du Beñat Agirreurretak, Leintz Gatzagako Kultura zinegotziak.



Leintz Gatzagako jaietan, frontoian egindako herri-afarian. GOIENA

Auzolanean eginda

Urteroko ohitura jarraituz, elkarlanean prestatzen dute gatzagarrek afarirako menua. Batzuk sukaldari lanetan aritzen dira eta beste batzuk, aldiz, zerbitzari. Hala, aurten ere modu berean egingo dute irailaren 10ean 21:00etan hasiko den afaria. Menua honako hau izango da: entsalada mistoa, brasan prestatutako txuletatxoak eta saiheskia, eta flana. Azken hau, gainera, Eusebio Villar herritarrek prestatzen duen postrea da, eta ez da lehenengo aldiz izango herri afarirako prestatutako duena: "Hainbat urtean prestatu izan dut flana, baina

ez beti. Normalean, 150 lagun inguru batzen gara afaltzeko; beraz, kalkuluak egin eta gutzientzat iristeko adina flan egiten dut. Hainbat alditan egin izan dudanez, ohitura bihurtu eta asmatzen dut kantitate egokia, gutxi gorabehera. Ea aurten ere ona irteten den", adierazi du Villarrek.

Bertako produktua brasan

Hainbeste lagunentzat afaria prestatzeak, kantitatea ondo neurtzeak eta egindakoa guztien gustukoa irteteak bere zailtasu-

nak ditu, baina brasan aritzen den gatzagar bat Perico Orobengoa da, eta hark argi du nola egin behar diren gauzak: "Bertako harategian erositako produktua erabiltzen dugu, 70 kilo haragi, guztira; produktu bakoitzetik 37 kilo inguru. Guztia prestatzeko 120 kilo ikatz erabiltzen dugu, su indartsua lortzeko asmoz, eta bi ordu lehenago hasten gara brasa egiten. Hamar lagun inguru aritzen gara bertan lanean, eta okela egindakoa, Gatzagako gatza botata, ez dago huts egiterik".

Euskara ardatz duten punk-rock taldeak asteburua hasteko

Oholtzara lau talde igoko dira, txosna jarriko dute eta mokadutxoak jan nahi duenarentzat 'foodtruck'-a

I.B. ESKORIATZA

Azken urteetan klasiko bihurtu da Gatzagako jaietan punk-rock kontzertuak antolatzea, Gatz City Krew gazte taldeko kideek eskatuta, eta jende asko erakartzeko modukoak antolatu dituzte aurten ere. Hori horrela, Berandu Baino Lehen, Rebel Noise, Sofokaos, eta Neallta Fola taldeak izango dira agertoki gainean, irailaren 9an, 22:30ean hasita.



Andoni Agirre (Rebel Noise). I. S.

Musika, jana, edana...

"Txosna jarriko dugu plazan, eta, egun horretan lan dezente izango dugunez, Labidean jarri dugu txanden izen-emate orria, txosnan lan pixka bat egin nahi duenarentzat. Horrez gain, edaria ziurtatu dugu, baina, beste urte batzuetako esperientzia kontuan hartuta eta herrigunean afaltzeko taberna edo jatetxe

asko ez ditugula kontuan izanda, *foodtruck* bat jarriko dugu, bertaratzen direnek jateko zerbitzu izan dezaten. Horrez gain, gaueko autobus zerbitzu berezia izango da; batez ere, bailarakoak etor daitezten...". adierazi du Garazi Orobengoa herritarrek.

Haurrek ere gozatzeko ekintzak programazioan

Leintz Gatzagako Udalak proposamen ugari egin ditu jaietarako, urtero moduan, herriko neska-mutikoentzat. Besteak beste, zenbait puzgarri izango dituzte frontoian; azken urteetan erroto izan den apar festak ere ez du hutsik egingo; eta, berezitasun gisa, Canti Vagantiren ikuskizun musikala izango da, haien gozamenarako.

Irailaren 10ean izango da Canti Vaganti antzerki taldearen saioa. Bruno Gullo eta Kateleine Van der Maas artistek *Siempre en camino* ikuskizun musikala eskainiko dute, eta oholtza gainean bufoi baten historia kontatuko dute bi antzezleek. Bufoia nazkatuta dago artista ibiltari gisa duen bizi-tzarekin, normala izan nahi du. Baina saioaren ardatza ikusleei haren pasioa deskubritzea izango da, diziplina askoko saioa eskainita.

sormen ODD
We design products



Nobedadeak ferian, muga gabeko jaiak iragartzeko

Irailaren 10ean egingo da sanmartinetako azoka, ezta bertatik bertara egiteko erakustaldi bat eta talo postua berrikuntza moduan dituela; pandemia aurreko baldintzetan egingo da feria bera, eta baita datorren astean aurkeztuko den egitarauko ekitaldi guztiak ere

Jokin Bereziartua BERGARA

Aurten bai, aurten pandemia aurreko baldintzetan ospatuko dituzte bergararrek San Martin jaiak. Egitarau osoa datorren astean aurkeztuko du Udalak, baina dagoeneko eman du festotoki ekitaldi esanguratsuen artean dagoen ferian berri. Irailaren 10ean egingo da azoka, 09:30etik 13:30era, eta bi koka-leku nagusi izango ditu: San Martin plazan fruta, barazki eta gazta ekoizleak egongo dira, eta gainontzeko ekoizleak eta saltzaileak Seminarioko patioan jarriko dituzte euren postuak. Ohiko lehiaketak egingo dira fruta, barazki eta gazta ekoizleen artean, eta saridunak 13:30ean emango dituzte aditzera.

Feria: ezta eta taloak, nobedade Feriak izango du nobedaderik. Lehena da erleen erakustaldia egingo dela 12:00etan San Martin plazan. Erakustaldi horretan eztiaren eraldaketa bertatik bertara ikusteko aukera egongo da, eta ezta eraldatu ondoren dastatzeko aukera ere egongo da. Beste nobedade bat da Seminarioko patioan jarriko den Mieltxo Saralegiren talo postua. Bestalde, feriatxo klasiko bat izan ohi diren odolosteak ez dira faltako; Urzelai, Imaz eta Letu-




Maskarak iazko ferian; pandemia aurreko baldintzetara itzuliko da azoka. GOIENA

ria harakinen odolosteak izango dira eta San Martin plazan egongo den txosna hori Harrera Taldeak kudeatuko du. Gainera, Jardunek umeendako tailerrak antolatu ditu eguerdirako, eta, bestalde, 17:30ean, gaztetxoendako zezentxoak eta poneyak egongo dira Seminarioko patioan.

Danborradak bueltan, azkenik Ohiko San Martin jaiak ekitaldi jendetsurik badute, horiek danborradak izan ohi dira. Heldue- na irailaren 15ean irtengo da udal biltegitik, 22:30ean; ume-

na, berriz, irailaren 16an irtengo da leku beretik, 18:30ean. Atzo amaitu zen helduen danborradan izena emateko epea -hurrengo astean emango du aditzera Udalak talde kopurua-, eta entseguak irailaren 5ean, 7an, 8an, 12an, 13an eta 14an izango dira Seminarioko karpan, 20:00etan hasita -derrigorrezkoa izango da entseguetara joatea-.

Umeen danborradan izena emateko nahikoa izango da entseguetara agertzea; helduen entseguen egun beretan elkartuko dira, 19:00etan.



Murgiondo eta Galarraga Elgoibarko txapelketan, abuztuaren 26an. BARREN.EUS

Murgiondo eta Galarraga, sasoiko

San Martin jaietako klasiko bat izan ohi da Moises Azpiatzuren omenezko bikote nagusiendako dantza askatu txapelketa. Aurtengoa 37. aldia izango da, irailaren 17an Seminarixoa aretoan jokatuko dena (20:00). Eta txapela janzteko favoritoen artean dago Saioa Galarraga eta Julen Murgiondo bikote bergararra; 2019ko eta 2020ko edizioak irabazteaz gain, abuztuaren 26an Elgoibarko San Bartolome jaietan jokatuko zen txapelketa ere irabazi zuten. "Bero handia egin zuen Elgoibarko plazan, baina gustura geratu ginen egindako lanarekin", adierazi du Murgiondok.

Gogotsu daude Moises Azpiatzuren omenezko txapelketari begira: "Ia astero ari gara lehiatzen eta sanmartinetarako ondo helduko gara. Etxean beti egoten gara urduriago, baina animo gehiago ere igartzen dira. Ea irabazterik dugun!".

Munibera itzuliko da Xaxau

Xaxau eman du Munibe plazako txosnaguneko egitarauaren berri. Irailaren 15ean irekiko dituzte txosnak (19:00), eta ondoren, pintxo-potea eta bikote jolasa (19:30) izango dituzte. Irailaren 16an, mojito festa (19:30) eta kontzertuak izango dituzte (20:00): Nhil, Golden Blend, Lizartxo eta DJ Xaxau. Irailaren 17an, mari-nito festa eta oliba-hezur jaurtiketa lehiaketa (13:00); herri bazkaria eta bingo musikatu (14:30); karropotea (18:30); eta

Kilimak, Virgin Mari eta DJ Hirukiak taldeen emanaldiak izango dituzte. Xaxautarrak "oso gogotsu" daude betiko sanmartinez gozatzeko: "Iaz, formatu mugatua egin behar izan genuen, eta orain, bueltan gatzoz ohiko jaiekin. Askotariko ekintzak antolatzen saiatu gara; adibidez, ohi baino jolas eta joko gehiago antolatuko ditugu. Gainera, musikari dagokionez, herriko eta eskualdeko taldeek presentzia berezia izango dute. Animatu parte hartzera!".

Irailaren 11ra arte dago zabalik Amaiurren gaineko erakusketa

Uda hastear zela ireki zuten 'Amaiur 1922-1936 Memoria demokratikoa' erakusketa, Laboratoriumen

J.B. BERGARA

Uda hastear zela ireki zuten *Amaiur 1922-1936 Memoria demokratikoa* izenburu duen erakusketa, eta irailaren 11ra arte bisitatuko ahalko da, Laboratorium museoan; astelehenetik

zapatura, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara; eta domeketan, 10:00etatik 13:00etara. Udalak XX. mendearen hasieran askatasun demokratikoaren eta Errepublikaren defentsan borroka egin zuen belaunaldi

batek Amaiur nola ulertzen zuen aurkeztu nahi izan du erakusketarekin; Gorka Artola alkatearen arabera, "ezinbestekoa" da memoria berreskuratzea: "Etor-kizuneko Bergara eraikitzeke egiten dugu lan, baina aurrera egiteko ezinbestekoa da atzera begiratzea, historia ezagutzea, memoria berreskuratzea. Hainbat lan egiten ari gara Bergaran ildo horretan, besteak beste, Aranzadirekin. Orain, museoaren bidez Euskal Herriko historiari leku bat egin diogu".



Erakusketaren irekiera, Laboratorium museoan. GOIENA



Belar artifiziala jarri aurreko asfaltatze lanak Agorrosin futbol zelaian, abuztuaren 26an. ENEKO AZKARATE

Zelai berria urri erdirako prest, Udalaren arabera

Udaleko Kirol zinegotzi Aitor Arantzabalek dioenez, bide onetik joan dira Agorrosin belar artifiziala jarri aurreko lanak eta espero dute urri erdirako erabilgarri egongo dela; BKEk laugarren jardunaldia zelai berrian jokatzea nahiko luke, urriko lehen aste bukaeran

Jokin Bereziartua BERGARA

Abuztuan kanpoan egon diren bergararrak harritu egingo ziren orain bertan Agorrosin futbol zelaiak duen itxurarekin, oso urrun dago eta futbol zelai bat izatetik. Belar naturala kentzen hasi ziren uztaile amaieran eta abuztua baliatu dute belar artifiziala jarri aurreko lanak egiteko. "Hasiara baten, belar naturala kendu zen; gero, zuloa eta azpian egin beharreko lanak egin ziren; eta ondoren, sarea jarri zen gainetik. Abuztuko bigarren hamabostaldian, aurreikusitako moduan, asfaltatze lanekin aritu dira. Asfaltatze lanak amaitu ostean, belar artifiziala jartzen hasiko dira, baita ur kanalizazioa eta argiteria ere", adierazi du Udaleko Kirol zinegotzi Aitor Arantzabalek.

Arantzabalen arabera, epeak beteko balira urri erdialderako erabilgarri egongo litzateke futbol zelai berria, eta gogora ekarri du obraren helburua ez dela bakarrik belar artifiziala jartzea:

"Bailaran ari dira beste zelai batzuetan belar artifiziala jartzen, baina hau konplexuagoa izango da; hau da, kirolgune osoari eragingo dio. Etorkizunean, harmailak, aldagelak eta beste zenbait elementu ere berrituko dira".

Etxeko bigarrena zelai berrian

Bergara Kirol Elkartearen aspaldiko eskaria da belar naturala kendu eta artifiziala jartzea, Agorrosin hamabost egunean behin bakarrik erabiltzen zelako eta Ipintzako zelaia ez zelako nahikoa klubaren beharrentzat. Pandemiak eraginda, espero baino beranduago hasi dira lanak, baina laster izango dira bi zelaiak egunerokoan erabilgarri. Hala, BKEko presidente Iosu Elorzak

ASFALTATU OSTEAN, BELAR ARTIFIZIALA, KANALIZAZIOA ETA ARGITERIA BERRIA JARRIKO DITUZTE

ez du espero Ohorezko Erregionaleko Mailako taldeak jardunaldi larregi jokatu beharko dituenik Ipintzan: "Espero dugu obrak irail amaierarako bukatuta egotea. Hori horrela balitz, bigarren jardunaldia [etxean jokatuko duten lehena] Ipintzan jokatuko dugu eta gure helburua litzateke laugarren jardunaldia Agorrosingo zelai berrian jokatzea".

Klubean aski ezaguna den Iker Ruiz de Larramendi izango da gizonezkoen lehen taldeko entrenatzailea. Abuztuaren 16an ekin zioten denboraldiaurreari, eta, Azpeitian, Ermuan eta Abadiñon lagunarteko bana jokatuko ostean, zapatuan Mondraren eta Zumaiaren aurka jokatuko dute Arrasate Hiria txapelketan (Ikus 37. orria). Denboraldi berrirako Beasaingo Unai Irastortza eta Antzuolako Iosu Bouzon dira fitxaketak, eta harrobiko hainbat jokalarik ere igoko dira, hala nola Kepa Roige, Ekhi Basterra, Mikel Azkarate, Unai Aranguren, Alex Roige eta Gorka Ros.

GORA ETA BEHERA



Zikinkeria Miguel Altuna inguruan



Miguel Altuna Lanbide Heziketa inguruan pasean ibili ohi den herritar batek bidali du goiko argazkia, eserleku publikoaren inguruan hainbat alditan zikinkeria egon ohi dela salatzen.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo [688 69 00 07](tel:688690007).

Zabalotegiko jaiak izango dira asteburuan, askotariko ekintzekin

Trikitilariek emango diete hasiera gaur Zabalotegiko festei (19:15), eta buruhandiak ere batuko dira gero (19:30). Ondoren, barru-txapelketa jokatuko dute frontoian (20:15), ordu laurden lehenago txosnan izena ematen dutenen artean. Zapatuan ere askotariko ekintzak izango dituzte: umeendako jolasak (11:00); pintxo-pote girotua (13:00); mus

txapelketa frontoian (15:30); Xaltoa pailazoaren emanaldia (17:00); bingo jolasa (17:00); eta DJ Jabi Sound (19:00etan eta 22:00etan). Mus txapelketarako 15:00etan eman ahalko da izena, bikote bakoitzak 20 euro ordainduta.

Domekan ere egongo da zertaz gozatu: auzoko hildakoen omenek meza (11:00); Katarsia taldeak girotutako auzo bazkaria (14:00); eta Katarsia taldearen kontzertua (17:00). Eguraldi txarra bada, ekitaldi guztiak frontoian egingo dituzte.

OHARRAK

Bedelkarren aukeren azoka, denden atarian

Atzo hasi eta zapatua bitartean, Bedelkarreko merkatariek askotariko produktuak jarriko dituzte salgai komertzio bakoitzaren atarian, denda zabalik egongo diren ordutegian.

Azoka, dastatzea eta musika San Juan auzoan

Irailaren 4an, domeka, San Juan auzoko XII. ortu lehiaketako produktuen azoka (11:30) eta dastatzea (13:00) izango dituzte ermita atarian. Plater konbinatua eta tragoa sei eurotan salduko dute. Aurretik, 12:00etan, Arragoa taldearen eta June Odriozola bakarlariaren emanaldiak izango dira.

Musika Eskolan matrikulatzeko aukera

Izena eman daiteke, bergarakomusikaeskola.com webgunean edo musika eskolako bulegoan; irailaren 5etik aurrera, 15:30etik 19:00etara. Telefono zenbakiak: 943 76 57 80 edo 679 15 45 12. Irailaren 5ean egingo dute instrumentuen araberako orduen banaketa, arratsaldean. Eskolak irailaren 7an hasiko dituzte.

Zabor, estolderia eta ur tasen ordainketak

Irailaren 12ra arte dago aukera 2022ko bigarren hiruhileko erreziiboak ordaintzeko. Argibide gehiago: www.bergara.eus.

Kontzejuko erregistroak digitalizatzen dihardute

1488tik 1796ra bitarteko askotariko dokumentuak katalogatzen eta digitalizatzen ari da Udal Artxiboa, garai bateko Eusko Jaurlaritzaren mikrofilmetatik; abuztua 5a ezker 6.481 PDF berri daude eskuragarri 'bergarakoartxiboa.eus' webgunean

Jokin Bereziartua BERGARA

Bi asteko etenaldia izan arren, abuztuan zehar lanean jarraitu du Bergarako Udal Artxiboak. Artxibo barruan dituzten proiektuen artean badago nobebade bat; izan ere, abuztuaren 5a ezker kontsultatzeko moduan daude kontzejuko erregistro liburuen hainbat dokumentu; kontzejuko erregistro seriearen 48 liburu hustu eta digitalizatu dituzte, 1488tik 1796 urte bitartekoak. Hau da, abuztuaren 5a ezker 6.481 PDF berri daude kontsultatzeko moduan *bergarakoartxiboa.eus* webgunean.

1488tik 1796ra arteko agiriak

Baina zer dira kontzejuko erregistroak? Honela azaldu du Udal Artxiboko arduradun Arantzazu Oregik: "XVI. mendean hasien den serie bat da. Udal aktak, diru kontuak, Diputazioko aginduak, erregearen aginduak... denetarik dago. Garai hartan urtero edo bi urtean behin dokumentu horiek guztiak koardernatu egiten zituzten eta kontzejuko erregistroen serieak sortzen joaten ziren. Horrek esan nahi du denetarik dagoela eta informazio oso aberatsa eta interesgarria dela... Baina baita oso ezberdina ere. Kronologikoki jasotzen zuten liburue-



Udal Artxiboko Arantzazu Oregi mikrofilmak irakurtzeko gailuarekin, martitzenean. J.B.

tan bestelako irizpiderik gabe eta, beraz, oso zaila da kontsultatzeko".

Mikrofilmetatik PDFetara

Kontzejuko erregistroak digitalizatzeko lanetan duela urte asko hasi ziren, Oregi bera artxiboan hasi aurretik. Oso lan nekeza eta luzea dela dio: "Dokumentu bakoitzeko hustuketa bat egiten da, hau da, liburu bakoitzeko informazioa katalogatzen joaten gara. Hori da lan nekezena eta luzeena; gero, dokumentu horiek guztiak mikrofilmatu egin ziren

eta mikrofilm horietatik digitalizatzen joan ginen". Liburuak mikrofilmetan sartzeko lanketa bat egin zuen Eusko Jaurlaritzak aspaldi, tartean udal artxiboekin, eta lanketa horri esker Bergarako Udal Artxiboan hainbat mikrofilm dituzte. "Orduan erosi genuen mikrofilmak kontsultatzeko aparatua, gaur egun katalogotik kanpo dagoena; mikrofilmak irakurtzeko aukera ematen digu baina ezin dugu kopiarik inprimatu. Izan ere, tinta barik geratu zen duela urte batzuk eta gaur egun ez da ekoiz-



Angiozarko eskolaren irekiera, 1958an. UDAL ARTXIBOA / TORIBIO JAUREGI FONDOA

Argazkiak: 20.000 deskargatik gora

Otsalean aurkeztu zuten webgune berritua, eta argazkiek sekulako ikusmina piztu zuten bergararren artean. Oregik dioenez, 20.000 deskarga baino gehiago izan dituzte eta oraindik asko dituzte digitalizatzeko: "Toribio Jauregiren fondoa da handiena [argazkikoa, adibidez]. Pixkanaka joango gara denak webgunera igotzen".

ten tinta mota hori halako aparatu baterako". Mikrofilm biribilki bakoitzak 400 fotograma inguru ditu eta fotograma bakoitza 24 aldiz txikituta dago tamaina errealearekin.

Dokumentuak digitalizatzeko lanari aspaldi ekin zioten: "Unean uneko baliabideen arabera antolatzen ditugu proiektuak; bide luzea dugu aurretik, baina egin ditugu hainbat lan. Akta liburuak, adibidez, eskuragarri daude denak; orain, kontzejuko erregistroarekin gabiltza".

Argazkien arrakasta "itzela"

Bestalde, otsalean aurkeztu zuten Udal Artxiboaren webgune berritua, artxiboa herritarrei gerturatzeko. Arrakasta "itzela" izan zuen hasieratik, bereziki XIX. mende amaieratik XX. men-

de amaierara arteko argazkiek; bolo-bolo ibili dira. Halaxe ziurtatu du Oregik: "Aurretik digitalizatuta genituen argazkiak eskuragarri jarri genituen eta hainbat eta hainbat herritar aritu ziren argazkiok ikusten. Orain bertan ez daukat kopuru zehatza, baina 20.000 deskargatik gora izan ditugu, kopuru oso esanguratsua da". Lan horrekin ere jarraitzeko asmoa dutela dio Oregik, artxiboko proiektu gehien antzera beti dagoelako digitalizatzeko dagoen materiala: "Toribio Jauregiren fondoa da handiena. Mila biribilki baino gehiago eman zizkigun eta horiek guztiak digitalizatzea eta argazkiko informazioa deskribatzea zein protagonistak identifikatzea dirua da. Poliki-poliki joango gara guztiak digitalizatzen".

Fresko itzuli dira Kofraixak

Abuztuaren 26tik 28ra ospatu zituzten jaiak osintxuarrek eta jende gehien hilaren 27an elkartu zen. Sukaldaritza lehiaketarako prestatu zituzten jakiekin egin zuten herri bazkaria, 100 lagundik gora elkartuta. Gainera, ez ziren falta izan, besteak beste, ume zein helduendako jolasak –argazkian–, Matraka taldearen elektrotxaranga eta Luhartz taldearen erromeria.



OSINTXUKO JAI BATZORDEA

Euskara ikasteko laguntzak: hilaren 15era arteko epea

Euskara ikasteko edota ikasketa osagarriak euskaraz egiteko laguntzak emango ditu Udalak. Dirulaguntzok 2021-2022ko ikasurtean edota 2022ko udan egingadako ikastaroetarako dira eta eskaerak irailaren 15a baino lehen aurkeztu behar dira Bergararren Arreta Zerbitzuan. Argibide gehiagorako: 943 77 91 31 edo euskara@bergara.eus.



Miguel Okinak Julio Galartari egindako erretratua. M.O.



Miguel Okinaren autorretratua. M.O.

Laguntasunaren isla, Aroztegin

Miguel Okina eta Julio Galarta margolarien erretratu eta antzeko lekuetan marraztutako margolanak izango dira ikusgai Aroztegi aretoan jarriko duten 'Bi adiskide margolari' izeneko erakusketan, irailaren 9tik 25era

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA Miguel Okina bergararra; Julio Galarta, berriz, arrasatearra. Biak margolariak eta elkarren lagun. Laguntasun hori begi-bistan jarriko duen *Bi adiskide margolari* erakusketa antolatatu du Julio Galarta Pintorearen Lagunak elkarteak. Irailaren 9an zabalduko ditu ateak eta hilaren 25era bitartean izango da ikusgai, Bergarako Aroztegi aretoan.

Duela urtebete hil zen Miguel Okina eta gertaera hori gakoa izan da erakusketa aurrera ateratzeko. Alvaro Arregi JGPLEko presidentek adierazi duenez, elkarteak aho batez erabaki baitzuen esposizioa antolatzea, Okina eta Galarta lagun handiak zirelako: "Bearteko kideei ere ondo iruditu zitzaizkien, eta 'aurrera!' esan ziguten. Julio hil artean, beti kontaktuan zeuden

eta leku askotara elkarrekin joaten ziren margotzera".

Leku bat, hainbat ikuspuntu

Oraindik zehaztu gabe dago zenbat koadro izango diren ikusgai. Guztira berrogeita lau aukeratu dituztela aitortu du Josu Okina pintore eta Okinaren ilobak, eta denek azalpen-testua izango dutela. Gainera, litekeena da kanpoan margotzeko erabiltzen zituzten astoak ere Aroztegi aretoan jartzera.

Ilobaren esanetan, elkarrekin margotu zituzten koadroak erakutsi nahi dituzte; hori bai, "gune

"BIAK ZIREN PUNTA-PUNTAKO ARTISTAK; OKINAK OFIZIO EGIN ZUEN BERE AFIZIOA"

ALVARO AGIRRE

berdin edo antzerakoan marraztutakoak, berdinak izan barik". Hortaz, bertako nahiz Arabako, Nafarroako edota Errioxako paisaiak ikus ahal izango dira bi artisten ikuspuntutik, besteak beste.

Bi irudi, ordea, bai ala bai jarriko dituzte; biak Okinak egindakoak. Bata, bergararraren autorretratua, eta bestea, Galartari egindako erretratua. Azken hau "berriagoa" dela dio Okinak: "Neu ibili nintzen Julio estudioa eraman eta ekartzen".

Gehienak paisaiak izango bada ere, Okinak aurreratu du Bartzelonan marraztutako beste erretratu bat ere egongo dela: "Akademian zeudela pintatutako emakume baten erretratua daukate. Ziurrenik ez da pertsona bera izango; hain zuzen ere, askok egiten zituzten modelo lanak".

Afizioa ala ofizioa?

Galartak Roneon egiten zuen lan, eta, Agirrek azaldu duenez, eszedentzia hartu behar izan zuen ikasketak egiteko. Bartzelonako San Jorgeren Arte Ederren Goi Eskolak ikasi zuen, eta Miguel Okina adiskidearekin bat egin zuen: "Hogeita hamar urte zituen Juliok Bartzelonara joan zenean, Miguel gazteagoa zen. Galarta jubilatu eta gero, hil artean margotzen aritu zen. Pentsa, hil baino egun batzuk lehenago koadro batekin zebilen 94 urterekin. Miguelek ofizio egin zuen bere afizioa eta bere ogibidea hori izan zen".

Bergararra, berriz, Parisen izan zen lehendabizi, eta, ondoren, Madril eta Bartzelonan. Ilobak dio ez zela titulua lortzera joan: "Pintatzen ikastera joan zen". Gainera, urte batzuk georago, bazkaria egin zuten akademiako ikasleek: "Bueltan, osabak esan zidan ikaskide guztietatik pinturatik bizi zen bakarra zela".

Bakoitzak bere motiboak zituen. Galarta, ordea, gehiago zentratu zen paisaietan: "Nire osabak denetarik egiten zuen: paisaiak, natura hilak, erretratuak... Azken finean, aurrean

"BARTZELONAN IKASI ZUTENETATIK, OSABAK ZEN PINTURATIK BIZI ZEN BAKARRA"

JOSU OKINA

jartzen zitzaion guztia egiten zuen. Gainera, erretratugile aparta ere bazen".

Lagunen bizipenak

Alvaro Agirrek eta Josu Okinak gertutik ezagutzen zituzten bi artistak eta euren pasadizoak. Auzokoa zuen Agirrek Galarta eta Okina mendizale modura ezagutu zuen hasieran. Okinak iloba da, eta ordu asko igarotzen zituen osabaren estudioan.

Okinak dio "berekoiak" ere bazirela: "Aste Santu batzuetan herritik kanpora joan ziren margotzera. Sekulako eguraldi txarra egiten zuen. Bergararrak arrasatearrari esan zion horrela ezingo zutela margotu, eta besteak, baietz. Herriko apaizak ere zoratuta al zeuden galdetu zien. Osaba dozena erdi koadroekin etorri zen, eta, esan zigunez, tripetatik gaizki eta hoztuta egon ziren. Hurrengo egunean, zer margotu zuen begiratu zuen eta denak borrazteko zirela esan zuen, ez zutela balio eta. Juliok ez dakit zer egingo zuen".

Agirrek gogoan du nola Beasidera egin zuten irteera batera joan zen Okina: "Japoniar bat eskultura egiten ari zen. Argazkia atera nien japoniarrari, beste eskultore bati eta kuadrillakoei, Miguel tartean zela. Hori badakit ondo gordeta daukala".

Arantzaxo bat ere badu, ordea, Agirrek: "Arantzaxoa geratu zitzaigun Galartari eta bioi. 1992an, Bergarako hogeita bederatzik margolari neuk lagun-duta egon ziren Italian. Tartean, Miguel zegoen. Denen artean, hura izan zen koadro bat saldu zuen bakarrenetakoa. Bueltan, Juliori esan nion egunen batean biok joan behar genuela hara, eta gustatuko litzaiokeela erantzun zidan. Nagusia zen, eta ez genuen astirik izan amets hura bete ahal izateko".

2024a: Okina jaio zela 100 urte

2024an, 100 urte beteko dira Miguel Okina jaio zela. Mendeurren horren harira, aitortu du Josu Okinak erakusketa bat egitea aurreikusita daukatela: "Hori Bearten aldetik joango da. Guk baditugu haren margolanak, baina bergarar, arrasatear edota eibartar askoren etxeetan ere badaude, besteak beste. Asmoa dugu koadroak non dauden ikusi eta inguratzea erakusketarako. Hori aurrerago izango da".

600.000 euro Errekalde auzoa biziberritzeko

Uztaileko ohiko osoko bilkuran onartu zuten Errekalde auzoa biziberritzeko eta irisgarri egiteko proiektua gauzatzeko 600.000 euroko kreditu aldaketa. Aurre-proiektuak auzotarrekin Udalak landutako beharrak eta nahiak jasotzen ditu

Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolako EH Bilduren eta alderdi sozialistaren aldeko botoekin onartuta geratu zen uztaileko ohiko osoko bilkuran Errekalde auzoa biziberritzeko proiektua gauzatzeko 600.000 euroko kreditu aldaketa. EAJ, aldiz, abstenitu egin zen, desadostasunak medio.

Urte hasieran abiatu zuen parte-hartze prozesua Antzuolako Udalak Errekaldeko auzotarrekin. Prozesu horretatik nahi batzuk irten ziren eta Udalak nahi horiek aurreproiektu batean gauzatzeko eskatu zion udako oporren aurretik arkitectura enpresa bati. Hain zuzen ere, hasierako proiektuaren helburuak zehaztu zituen enpresak eta auzotarren nahiak zenbaterako kostua izango zuketzen ere finkatu zuen.

Horiek horrela, aurreproiektuaren lehen fasea abiatzeko 600.000 euroko kreditu aldaketa onartu zuten uztaileko ohiko osoko bilkuran. Aurreproiektuak jasotzen ditu Errekalde auzoko irisgarritasuna edota autoak auzotik ateratzeko lanak, besteak beste. "Lehen urratsa izan da benetako proiektua egitea, eta, horri esker, orain jakin bada-gutu gutxi gorabehera zenbat balioko duten Errekalde biziberritzeko lanek. Guretzako garrantzitsua zen uda baino lehen martxan jartzea eta ohiko osoko bilkuran onartzea; hala, irailean beste urrats batzuk egin ahal izango ditugu", azaldu du Beñardo Kortabarria alkateak.

EAJren proposamena

EAJko bozeramaile Basilio Ormazabalak, aldiz, proposatu du onartutako diru kopuru horren erdia orain erabiltzeko aukera egon badagoela eta beste erdia, berriz, aurrekontuetan sartzeko aukera dagoela. Horrek, gainera, ez lukeela proiektua atzeratuko gaineratu du Ormazabalak.

"Batetik, esan behar da aurreproiektua soilik dagoela oraindik, eta luzerako aurreikusten dela. Bestetik, lehen fasean jasotzen da Lazareto botatzea, eta bertan dagoen materiala beste lokal batera eramatea, baina ez da, ordea, aurreikusten lokal hori erostea edo alokatzea. Bigarren fasean, berriz, biribilgunea egitearen proiektuan ere zailtasunak ikusten ditugu eta luze joko duela uste dugu. Horregatik, diru kopuru horren erdia orain erabiltzeko aukera badago proiektua atzeratu gabe; eta beste erdia, berriz, aurrekontuetan sartzekoa".

Irisgarritasun lanak

Hala, aurreproiektuak jasotzen du Errekalde auzoan zenbat irisgarritasun lan egitea eta autoak auzotik ateratzeko lanak egitea, besteak beste. "Auzoan dagoen nahia da bertako iris-

AZPIEGITURA SAILAK BIRIBILGUNEA EGITEKO ESKAERA ATZERA BOTA DU

garritasuna hobetzea; eta baita Lazaretoko gunean aparkalekua egitea eta plaza eta espaloiak txukuntzea".

Bestalde, aurreproiektuaren bigarren fasean biribilgunea egitea jasoa dagoen arren, Diputazioko Azpiegitura Sailak eskaera atzera bota du, besteak beste, "21,5 metroko kanpo-diametroa duen biribilgunea txikiegia" dela argudiatuta.

Erabakia behin betikoa den jakiteko eta bestelako aukerak adosteko, Beñardo Kortabarria alkateak adierazi du Diputazioarekin harremanetan izango dela. "Diputazioko teknikariak ez du begi onez ikusi biribilgunea egitea, honek izango lukeen funtzioagatik eta neurriagatik, txikiegia dela eta baiteritzo. Gu saiatuko gara Aldundiarekin berba egiten behin betiko erabakia izan arte", nabarmendu du Antzuolako alkateak.

Udalaren gerakina

Azpimarratu behar da 600.000 euroko kreditu aldaketa egin ostean, Udalaren gerakinean beste 600.000 euro inguru geratuko direla erabilgarri.



Errekalde auzoko etxebizitzak eta egungo aparkalekua. M.A.



Larrea, erdian, podiuma osatu zuten Perez eta Hugorekin. EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA

Ibai Larrea: "Orain, berriro kros lasterketei begira jarriko naiz"

Absolutu mailan, Andorrako Skyrace Comapedrosa mendi lasterketa irabazi du atleta antzuolarrak

M.A. ANTZUOLA

Mendi lasterketen denboraldi ezin hobea egin ostean, kros denboraldian jarriko dituela indarrak dio Ibai Larreak: "Mendi lasterketen denboraldiaren balorazioa oso ona izan da. Abuztu osoa, aldiz, lasai hartu dut, eta orain, poliki-poliki berriro ere martxan jarriko naiz, baina kros lasterketei begira. Hala, otsail bukaera edo martxo hasiera arte, ez dut beste mendiko lasterketarik egingo".

Andorran nagusi

Antzuolarrak ez zuen aurkaririk izan abuztuan Andorran jokatutako Skyrace Comapedrosa lasterketan.

Hala, euskal selekzioaren elastikoarekin aritu zen Larrea izan zen helmuga-marra zeharkatu zuen lehen lasterkaria, 1.57.19ko denbora eginda. Guz-tira, 24 kilometroko eta 2.375

metro positiboko ibilbidea egin zuen.

Hamar minututik gora atera ziren, aldiz, atzetik izan zituen aurkariei. Marc Perez Bautista kataluniarra sailkatu zen bigarren (2.08.18), antzuolarrarengandik hamaika minutura; hirugarren, aldiz, Drechou Hugo frantziarra helmugaratu zen (2.11.08), ia hamalau minutura.

Izan ere, mendi lasterketen egutegia hasi zenetik, ia nahieran ibili da lasterkari antzuolarrak. Etxeko lasterketako garai-penetik hasi -A8M-, eta ohorezko postuak pilotzen joan da; besteak beste, Elgetako Ahuntzen Lasterketa eta 23 urtez azpiko Espainiako Txapelketa irabazi ditu aurten. Halaber, aipatzekoak dira 20 urtez azpiko Munduko Txapelketan lortutako bigarren postua eta Antzuola eta Gorla arteko joan-etorria osatzen ondutako errekorra ere.

OHARRAK

Euskara ikastaroa

Irailaren 26ra bitartean euskara doan ikasteko ikastaroan izena eman dezakete daiteke liburutegian. Informazio gehiago, 943 76 60 65 telefonoan.

'Yogipuinak'

Irailaren 18an, yoga eta ipuinak uztartzen dituen saioa, 17:00etan, Olanan etxean.

Pirinioetara asteburu osorako irteera antolatu du Arrolak

Irailaren 16an, 17an eta 18an, Arrolak antolatuta, Garmo Negro eta Ibones Azulesera irteera egingo da. Izena emateko, arrolamt@gmail.com helbidera idatzi daiteke edo elkarterko kideekin harremanetan jarri. Bestalde, Arrolaren kamiseta jantzita udako argazki lehiaketan hilaren 20ra arte parte har dezakete herritarrek.

Skate parke berria, dagoeneko erabilgarri

Egurrezko egitura zuen skate parkea ordezkatu eta hormigoizkoa eraiki du Udalak; erabiltzaileak "pozik" ari dira aurrekoa baino "osatuagoa" den gunean gozatzeko. Horren erakusle, azkenaldian jende gehiago hurbildu dela gurgil gainean jolastera

Aitziber Aranburuzabala ELGETA

Herrian askotariko obrak egiteko aprobetxatu du abuztua Udalak, eta dagoeneko erabilgarri dago skate parke berria. "Hormigoizkoa da eta aurrekoa baino pixka bat esparru zabalagoa hartzen duena. *Half pipe* estilo hori izan barik bi *quarter* jarri ditugu albotan eta erdian *fun box* deitzen den horietako bat; *quarter* horietako bat aurrez zegoena baino baxuagoa da, gazteagoek ere errazago ibili ahal izateko", azaldu du Iraitz Lazkano Elgetako alkateak.

32.000 euroko aurrekontua izan du skate parte berriak eta aurrekoak baino gehiago irautea aurreikusten du Udalak. "Aspaldi ari ginen zegoena konpondu guran eta hiru ahalegin egin genituen, baina egitura egurrezkoa zenez, erraz kaltetzen zen eta ez zigun luzerako bermerik ematen; hori horrela, hormigoiarene alde egin dugu, oraingoan, zerbait iraunkorra eta guztiontzako erabilgarria izatea gura genuelako".

Erabiltzaileak, "pozik"

Abuztuko bigarren hamabostaldian iritsi da skate parke berria. Itxaronaldia, agian, luze egin zaie erabiltzaileei, baina jarri dutenetik etekina ateratzen ari dira. "Aurrekoa baino hobeto dago, gauza gehiago ditu eta aukera gehiago ematen du", dio skate parkearen erabiltzaile Alazne Lozanok, eta zera gaineratu du Urtzi Sarasuak: "Lehen zegoen moduko aldapa bat dago, baina beste biak txikiagoak dira. Azkenaldian, jende gehiago dabil".

32.000 EUROKO AURREKONTUA IZAN DU HORMIGOIZKO EGITURA DUEN SKATE PARKE BERRIAK



Skate parke berria, aurrekoa zegoen toki berean. LARRAITZ ZEBERIO

Herri-eskolan ere lanak eginda

Uztailean eskolako patioa udaldundeko gune bilakatzen dutenez, han ere abuztura arte itxaron behar izan dute patioan eta geletan konponketak egiteko. "Lehenengo pisuko gela gehienak margotu ditugu eta

bestelako konponketak gehiago egin ere bai; esaterako, Haur Hezkuntzako patioa txukundu egin dugu eta, horrez gainera, patioari zati bat kenduta haurren jostailuak gordetzeko gela bat sortu dugu", azaldu du alkateak.

Abuztuan, obra gehiago

Bestelako aisialdi-guneak ere konpondu ditu Udalak abuztuan; izan ere, Torrealdeko zein Emakume Erresistenteen plazako jolas-parkeetan bada berrikuntzarik. "Elementu berri batzuk kokatu ditugu. Torrealdekoan lehen nahiko gaizki zegoen txirrista bat duen etxetxo bat ordezkatu dugu eta beste plazan zabu berriak jarri ditugu. Hori egin eta gero, bi tokietan kautxuzko lur berria jarri dugu. 13.700 euroko

inbertsioa izan da bi parkeetako lurretarako", azaldu du alkateak. Arraoz baserrirako bidean eta frontoian ere esku-hartzeak izan dira. "Baserrirako bidean konponketa batzuk egin ditugu eta frontoian, berriz, obra handiagoa; orain arte egon ez den moduan, frontoiko teilatua segurtasunez lan egiteko eta mantentze lanak egiteko segurtasuneko lerro bat jarri dugu".



Berritutako jolas-parke bat. L. Z. L.



L.Z.L.

Ziklista izandakoen topagunea

Ziklista profesional izandako belaunaldi askotariko 40tik gora lagun elkartu ziren eguaztenean Elgetan. Abraham Olano, Julian Gorospe, Alberto Leanizbarrutia, Luis Otaño, Jesus Arantzabal, Ismael Lejarreta... Izen handi asko. Adinez nagusiena, 91 urteko Fausto Iza. Gazteena, berriz, Pedro Horrillo ermuarra. Luze jo zuen mahai ostekoak Intxorta elkartearen.



IÑIGO BARRENA

San Bartolomeak, Zabaletan

Aspaldiko ohiturari eutsiz, elgetar askok bat egin zuten Angiozarren dagoen Zabaleta auzoko jaietan, abuztuaren 24an. Ekintzez beteriko ospakizunetan bolatokia izan zen gune nagusia. Abuztuaren 16an, berriz, San Roke kaleko jaiak ospatu zituzten eta 25 lagun bildu ziren Maialde Hoteleko sukaldariek prestatu zuten menua dastatzeko. (Ikus 42. orria).

Gaur, egubakoitza, odola emateko aukera kiroldegian

Odol erreserba maila hobetzeko premia dago. Urtean bitan egoten da odola emateko aukera Elgetan, eta gaur, egubakoitza, izango da bigarrena. Sendagile eta erizain taldea 16:30etik 20:10era izango da Espaloia antzokian. Odol-emateak aurrez txanda hartu beharko dute gaur goizean, 943 00 78 85 telefonora deituta.

Josu Azkarate gogoan, dozena bat punk-oi! talde bihar

Gertukoek eta musika munduko lagunak prestatu dute jaialdia, eta asko dira ekitaldiarekin bat egin nahi izan duten herritarrek. Punk-oi! jaialdi berezia izango da; izan ere, talde bat baino gehiago jaialdirako propio elkartu da berriz. Tartean da Elgetako Ostiada Oi! Kontzertuak kantxan izango dira, 15:00etan hasita. (Ikus 38. orria).



Unibertsitatearen sarrera nagusia itxita dago, goialdeko harri bat jausi delako. IÑIGO BARRENA

Fatxadan sarea jartzea ari da aztertzen Aldundia

Abuztuaren erdialdean harrizko bloke bat jausi zen unibertsitateko fatxada nagusitik lurreraino, eta zatiaren laginak laborategira eraman ditu Aldundiak, erorketaren arrazoiak aztertzeko eta kontserbazio prozesua nolakoa izan behar den jakiteko

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Sancti Spiritus unibertsitateko fatxada nagusitik jausi den harraren laginak laborategira eraman dituzte, erorketa zergatik gertatu den ikusteko. Oraindik ez dituzte emaitzak jaso, baina Aldundiko arkitekto teknikoak esandako muduan, aukera bat da fatxadan sarea jartzea.

Laborategian daude laginak

Abuztuaren erdian harrizko bloke bat jausi zen unibertsitateko fatxadatik eta lurraren kontra jotzearen ondorioz txiki-txiki eginda geratu zen. Foru Aldundiarentzat lan egin ohi duen Petra errestaurazio enpresako teknikariek eraikineko laginak hartu eta Asturiasko laborategi batera eraman zituzten. Laborategian ateratako emaitzetatik ondorioztatuko dute Sancti Spiritus unibertsitateko eraikinaren egoera zein den, baita hemendik aurrerako kontserbazio-prozesua nolakoa izan behar den ere. Azterketa

horretan ikusiko dute, esaterako, eraikinak aurrez tratamenduren bat jasota duen edo ez, edo harraren karakterizazioa zein den. Erorketa gehiago gertatzeko arriskua dagoen ere aztertuko dute eta zaharberritzea aztertu; horregatik, Aldundiak ez du baztertzen sarea jartzea bitartean, hori oraindik erabakitzeko duen arren.

Mantentzea eskatu du Ancorak

Erorketaren arrazoiak oraindik zein izan den jakiteke dagoen arren, Ancora kontserbazio-elkarteak adierazi du mantentze-lanak behar bezala egiten ez direlako gertatu dela ezbeharra. Gertaera ez dela berria ere adierazi zuen abuztuan: "Iaz gargo-

ATE NAGUSIA ITXITA, ATZEKOTIK SARTZEN DIRA KLAUSTORRA TURISTAK ETA LANGILEAK

la bat erori zen, eta orain arkosolia eusten zuen pilastra bat erori da, Rodrigo Mercado de Zuazola gotzainaren busto otoitz-egilearekin. Pieza handi hori, fatxada nagusian kokatua, konposizio-mailako elementu nagusia zen, eta txikizioa oso nabarmena da". Elkarte horrek premiazkoa ikusten du diagnosi bat egitea eraikinak dituen patologiak detektatzeko, eta protokolo bat hartzea arriskuak minimizatzeko eta kalteak lehenagoratzeko.

Sarrera nagusia, itxita

Harri blokearen erorketa izan zenetik itxita dago unibertsitateko sarrera nagusia. Ordutik hona egin dituzten bisita turistikoetan distantzia hartuta eman dituzte eraikinaren gaineko azalpenak herriko turismo gidariek, eta klaustroa ikusteko atzeko atetik sartu dira. Unibertsitate barruan lana egiten duten langileak ere atzeko atetik sartzen dira.

Matrikulak irakurriko dituzten beste bi semaforo gehiago

Ramon Irizar eta Motxon kaleetan ibilgailuen sarrera kontrolatzen duen trafiko kamera sistema berria ari dira jartzen. Piboteak kendu eta matrikulak irakurtzen dituzten semaforoak jarriko dituzte kale horietan, Unibertsitate etorbidean daudenak bezalakoak. Sistema horrek aurretik baimendutako matrikulak ezagutzen ditu, gainerako

guztiak salatu egingo ditu eta ibilgailu horien jabeek isuna jasoko dute. Sistema jartzeko lanak uztailean hasi zituzten, eta zutabeak jarri dituzte. Aurreikusten da sistema jaien ostean hastea funtzionatzen.

Ramon Irizar kaleko kasuan, garajera doazen ibilgailuen matrikulak egongo dira sisteman sartuta eta Motxon kaleko kasuan, berriz, okindegikoak. Baimen bereziak dituztenak ere ez ditu salatuko sistemak, osasun arazoak dituzten eskatzaileenak, kasu.

Banatzaille berria du gaurtik Oñatin GOIENA aldizkariak

Banatzaille berria du gaurtik, irailak 2, Oñatin GOIENA aldizkariak: Ibernalo Iparragirre. Orain arte urte askoan ibili da Batu-banatu enpresatik banaketa egiten Goizalde Loiti, eta eskertuta daude GOIENA aldizkaria etxetik etxe banatu izanagatik. Orain, udako opor osteko lehen aste honetatik aurrera, Iparragirrek egingo du lan hori.

Eskatzen duten etxe guztietara banatzen da, egubakoitzetan, GOIENA, eta deitu edo mezu bat idatzi baino ez da egin behar aldizkaria astero etxean jasotzeko: 943 25 05 05 zenbakia telefonoz deitzeko edo 688 69 00 07 mezua Whatsapp edo Telegram bidez bidaltzeko; postaz egiteko: *harpidetza@goiena.eus*.

Banatzaille izateko lan-poltsa ere zabalik du Goienak. Banaketak egiteko interesik izanez gero, aipatutako edozein bide erabil daiteke.

Burcioren lana jaien azalean

Aitor Burcioren lanak ilustratuko du San Migel eta Errosarixoa jaietako egitarauaren azala. Guztira, hamar lan aurkeztu ziren azal lehiaketara, eta Burciorenak jaso zituen herritarren boto gehienak; 497 boto jaso ziren, eta lan sarituak 124 eskuratu zituen. 500 euroko saria lortu du oñatiarrak. Bigarren aldiz irabazi du Aitor Burciok jaietako azal lehiaketa.



AITOR BURCIO

Umeen danborradako entseguen hasiera, eguenean Eltzian

Irailaren 24an da umeen danborrada eta entseguak eguenean, irailak 8, hasiko dituzte, Eltzian. Ohikoak irailaren 8an, 13an eta 15ean dira, 18:30etik 19:30era. Entsegu orokorrak, berriz, 20an eta 22an, toki eta ordu beretan. Parte hartuko duten haur guztiek joan beharko dute entsegetara eta larruzko gerrikoa eraman beharko dute.

Pamies, Zelaia eta Relloso datoz iraileko martitzenetan

Hitzaldi zikloa antolatu du Informa Tu taldeak irailerako. Hileko martitzenetan izango dira saioak eta lehenengoa, osasunari buruzkoa, Josep Pamiesek eskainiko du hilaren 6an. Munduaren egungo egoeraz jardungo du Adrian Zelaia 13an, eta 20an, Lourdes Relloso psikologoa etorriko da. Hitzaldiak Santa Anan izango dira, 18:30ean.

Hilaren 15ean itxiko dute elkartasun biltegia

Badago materiala Kale Zaharreko biltegian eta beharra dutenei banatzeko laguntzaileak ere ez dira falta, baina inork ez du biltegiaren ardura hartu gura eta hilaren erdian itxiko dute lokala, gelditzen den materiala Emausek eraman ostean

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Oñatiko Hermansoloña elkar-tearen arropa biltegia ixtear da. Errelebo faltan, irailean etengo dute elkartasun zerbitzua, hogeituroko ibilbidea egin ostean. Abuztuan, gehienbat, larrialdi egoerak artatu dituzte Kale Zaharreko elkartasun zerbitzuan eta irail erdialdean Emaus elkar-teari eskainiko diote bertan gelditzen den materiala.

Hogei urte pasako ibilbidea

Jose Antonio Urteaga izan da biltegiako arduraduna hasieratik, 2001etik, hogei urteotan. Duela ia bost urte hasi zen errelebo eske, baina inork ez du ardura hartzeko prestutasunik agertu eta itxi egingo dute. "Oraindik badago beharra, eta materiala ere bai, hemen zein etxeetako armairuetan, zerbaiten beharra dagoenean azkar erantzuten dute-eta herritarrek. Udalarekin ere saiatu gara irtenbide bat topatzen, Bidebarriren bitartez, adibidez, baina ez da posible izan", dio, penaz, Urteagak. Haren esanetan, materialaz gain laguntzaileak ere asko ditu proiektuak, eta eskertzekoa da oso, baina ardura hartuko duen norbait falta da eta hori da itxieraren arrazoia.

Laguntzen ibili denetako bat da, esaterako, Alain Jiress Djomgoue kamerundarra. Larraña etxera iritsi berritan Kale Zaharreko biltegian laguntza jaso zuen duela lau bat urte eta ez du hori ahazteko. "Herrialde batetik ihesi ateratzen den pertsonak, jantzeko arropa eta hotzetik babes-teko estalkia behar izaten ditu. Orain arte hemen aurkitu dute hori". Duela bi urtetik hona Larrañako atezaina da kamerundarra eta soldatzaile eta galdaragintza ikasketak egiten ere ari da, aldi berean, Aretxabaletan. Dio jende asko dagoela egun Larrañan, beteta dagoela egoitza munduko toki ezberdinetatik



Jose Antonio Urteaga eta Alain Jiress Djomgoue maritzez biltegian. L.Z.

BEHIN ITXITA, EZ DUTE EZER JASOKO ETA BEHARRA DUTENEK BESTE NONBAITERA JOAN BEHARKO DUTE

etorritako pertsonekin; tartean, Afrikatik, Hego Ameriketatik eta Marokotik.

Lehenengoa, Argentinara

Abuztuan, larrialdiak artatu dituzte Kale Zaharreko elkartasun biltegian, eta irailean, aurretik hartuta zituzten konpromisoak beteko dituzte: Acesmaren bidez helduko diren hamabost familia, sahararrak eta Elkarzabalek bideratutako talde txiki bat. Irailaren 15era arte egingo dute hori, hileko lehen hamabostaldian; gero, Emaus etorriko da gelditzen den materiala jasotzera, eta biltegia itxita geldituko da.

Argentinara laguntza bidaltzeko hasi ziren arropa biltzen 2001ean; Acesmarekin ere bazuten harremana. Sahararekin 2016an hasi ziren eta 2018an Larrañara hasi ziren etortzen migratzaileak.

"Leherketa modukoa izan zen hori guretako. Taldetxo bat sortu zen han laguntzeko, Hotz Oñati ere bai, eta baita hemengo sahararrak ere. Azkenaldian, Aljeria, Maroko eta Dominikar Errepublikakoak ere etorri izan dira euren herrialdeetara doazela esanez eta hangoei eramateko arropa bila. Materiala izan dugunetan beharra dutenak artatu ditugu".

Eskerrak oñatiarrei

Beharra dutenak aurrerantzean nola konponduko diren, horrek arduratzen du Urteaga. "Sahara laguntzen jarraituko dugu, adibidez, baina urtean bidaltzen ditugun hiru kargamenduak bertan behera geldituko dira. Askok Emaus dendetara joango dira. Merke izaten dituzte han gauzak, baina ez doan".

Oñatiarrek emandako babesa sekulakoa izan dela gaineratu du Urteagak, eta eskerrak eman gura dizkie: "Udalak lokalarekin lagundu digu, Ulmak logistika-rekin, diruz herriko beste kooperatiba batzuk... eta hainbat eta hainbat herritar izan ditugu ondoan fisikoki, behar zen aldira, laguntzen".



Kirolegi azpiko aparkalekuan bizikleta elektrikoendako egokitutako gunea. O.E.G.

Erabilgarri dago bizikleta elektrikoak aparkatzeko gunea

Sartu-irtena egiteko kiroldegiko txartela behar da eta bazkide ez direnek 5,15 eurotan eskura dezakete

O.E.G. OÑATI

Bizikleta zein patinete elektrikoendako sarrera kontrola duen aparkaleku itxia dago erabilgarri Zubikoa kiroldegiko lur azpiko aparkalekuan. Egun osoz dago zabalik, itxitura dauka eta bertara sartzeko kiroldegiko txartela erabili behar da. Modu horretan, sarrera-irteera kontrola egiten dute.

14 urtetik gorako kiroldegiko bazkide guztiei automatikoki aktibatu diete txartela. 14 urtetik beherako gazteek ere erabili ahal izango dute, baina, horretarako, gurasoek baimena

eskatu beharko dute kiroldegian. Bazkide ez direnek, berriz, 5,15 euroren truke lor dezakete txartela kiroldegian.

Kalegoianakoan ere egingo dute

Geroz eta ohikoagoa da autotik bizikleta edo patinete elektrikorako saltoa ematea eta positibotzat jo du hori Udalak, bizikleta erabiltzea eskatzearekin batera, tokiak egokitu behar direla gaineratuz. Kalegoianako lur azpiko aparkalekuan ere badute horrelako gune bat egokitzeko asmoa. Irailean hasi gura dituzte lanak.



NIRE USTEZ

AITOR UGALDE

Tximistak

Urte berri on. Horixe dio lagun batek iraila heltzean. Bere ustez, urtarrilean egutegian urtea aldatzeak baino aldaketa handiagoa eragiten digu udako opor garaitik gure zereginetara itzultzeak: langileok lantokietara, ikasleak ikastetxeetara...

Udan geldi egon diren kultur eta kirol jarduerak ere martxan jartzen dira. Futbola, adibidez. Gure bailaran senior mailako bi talde dauzkagu: Bergara eta Leintz Arizmendi, biak Gipuzkoako ohorezko erregional mailan –mutilen beste batzuk ere badira maila berean–, eta esango nuke zaintzen asmatuko bagenu potentziala dagoela talde gehiago eta maila altuagotan egoteko. Leintz Arizmendin Leintz bailarako eta Oñatiko taldeetako indarrak batu dira eta ni taldearen animatzaile izango naiz, gertutasunagatik. Arazoa sortzen zait, ordea, taldea animatzerakoan, "Aupa Leintz Arizmendi Aloña" esatea luze samar egiten zait. Horregatik, elastikoa goitik behera zeharkatzen duen marran oinarrituta, "Aupa Tximistak" esatea bururatu zait. Beraz, Aupa Tximistak eta urte berri on denoi.



Aloña Mendiko pilota saileko Ander Biain entrenatzailea, Iñigo Erle eta Itziar Zelaia zuzendaritza batzordeko kidea. M. BIKUÑA

San Migel torneoa abian, herriko bi pilotarirekin

Iñigo Erle iazko txapelketa eta Peru Etxegarai dira aurtengo Oñatiko ordezkariak Aloña Mendi pilota klubaren txapelketa kuttunenean. Ander Etxaniz bergararrak, Ander Murua arrasatearrak eta Manex Balerdi antzuolarrak ere jokatu dute

Hasier Larrea OÑATI

Gazte mailako eta 23 urtez azpiko zortzina bikotek parte hartuko dute 39. San Migel pilota txapelketan. Kanporaketa zuzeneko partidua izango dira guztiak, final laurdenetatik hasita. Atzo, eguena, jokatu zituzten Zubikoako frontoian San Migel txapelketako lehen kanporaketak. Gazte mailan ez zen bailarako ordezkariarik egon, baina 23 urtez azpiko kategorian bai, Iñigo Erle oñatiarrak Aurrekoetxearekin neurtu baitzituen indarrak Fernandez eta Lozaren aurka -artikulu hau partidua jokatu aurretik idatzia izan da-.

Bihar, Ander Etxaniz bergarar aurrelariak Arkaitz Eskuza izango du atzelari Egueren eta Lizzagaren aurka, 23 urtez azpikoetan. Jaialdiari gazte mailako norgehiagokak emango dio hasiera, ohi bezala.

Gainontzeko final laurdenak datorren eguen eta zapatu arratsaldean jokatu dituzte; beraz,

Peru Etxegarai ikusteko zertxobait itxaron beharko dute herrikideek. Final erdiak, oster, irailaren 15ean eta 22an egongo dira jokoan, eta final handia, urriaren 2an, hain justu, Errosarioko domekan.

Aloña Mendiko pilota saileko kideak pozik daude San Migel torneoaren aurtengo edizioarekin, Ander Biain entrenatzailearen esanetan, "maila handiko txapelketa" antolatu baitute oraingoan ere. Gipuzkoako, Arabako, Bizkaiko, Nafarroako eta Errioxako pilotariak irtengo dira kantxara, eta zaleak frontoira bertaratzeko argudio ugari ikusten ditu Biainek: "Osagai guztien artean, halako txapelketa batean Oñatiko bik jokatzeko herriarentzat eta

**FINAL HANDIAK
ERROSARIOKO
DOMEKAN JOKATUKO
DITUZTE, URRIAREN
2AN, HAIN ZUZEN**

klubarentzat ona da, eta datozen urteetarako indarra ematen digu", aipatu du.

Uda bikaina Elerentzat

Sasoi betean iritsi da Iñigo Erle atzelaria etxeko torneora, abuztuan Lizarrako eta Zumaiako txapelketak irabaztetik dator eta. Iaz, Alberdi azpeitiarraren atzelari izanda jantzi zuen 23 urtez azpiko kategoriako txapela; aurten balentria bera lortzea "zailagoa" izango dela uste du, "iaz baino maila handiagoa egon daitekeelako". Hala ere, azkenaldian jokatuak txapelketak nola joan zaizkion ikusita, urduri baino lasaiago dagoela aitortu du.

Gertuko aurkariak

Gauzak zail jarriko baititu, ziur aski, Ander Murua arrasatearrak eta Manex Balerdi antzuolarrak osatutako bikoteak. Soraluze pilota elkartearekin jokatzeko dute biek, eta, besteak beste, munduko txapelketa dira.



Abesbatzako kideak Agustindarren elizan; erdian, hiru omenduak. OÑATIKO ABESBATZA

Oñati abesbatzako zuzendari ohiek omenaldia jaso dute

Patxi Anduaga, Imanol Murua eta Loli Ordoki taldeko ohorezko bazkide izatera pasa ziren abuztuaren 27an

H.L. OÑATI

Joan den zapatuan, ekitaldi berezia egin zuen Oñatiko abesbatzak Agustindarren elizan, San Agustinen omenezko meza aprobetxatuta. "Izan ere, omenduak izan ziren abesbatzako bi zuzendari ohi, Patxi Anduaga eta Imanol Murua, agustindarrak dira, eta horregatik aukeratu du Oñatiko abesbatzak San Agustinen omenezko mezaren hitzordua omenaldirako", zehaztu du Jabi Agirrek, abesbatzako kideak.

Oñatiko abesbatza 1966an sortu zen, Anduaga bera izanik lehen zuzendaria; musika albo

batera utzi gabe, gaur egun organo-jolea da Agustindarretan. Imanol Muruak lau hamarkadatan hartu zuen kantu-taldeko zuzendari izateko ardura, eta Loli Ordokik berak ere jardun du zuzendari lanetan zenbait urtez. Gainera, taldeko abeslari eta solista izaten jarraitzen du, duela urte asko bezala. Mirengu Plazaolak gidatzen du abesbatza orain.

Hori horrela, hiru zuzendari ohiek merezitako aitortza jaso zuten, taldeko ohorezko bazkide bilakatu baitziren Agustindarren elizako ekitaldi solemnean.

Bidebarrietako jaiek eta 'Kalean' egitasmoak bat egingo dute

'Turistreatzen' kale antzerkiak itxiko du udako kultur egitaraua domekan, Errementari plazan, 19:00etan

H.L. OÑATI

Joan den domekan jai giroa Lizargaraten egon zen, eta oraingo asteburuan Bidebarrietara lekualdatuko dira aisialdiko ekitaldiak. Gaur, egubakoitza, 18:00etan hasiko dira auzoko jaiak, 19:00etan txorimaloen kalejirari, pintxo-poteoari eta garagardo artisauen dastaketari paso emateko. 21:00etan, *Beerpong* txapelketan parte hartzeko aukera egongo da, eta 22:00etan, La Rekba, Inguma, Dirty Old Gasteiz eta Arene 6 taldeek zuzeneko kontzertua eskainiko

dute. Bihar goizean, hurrek puzgarri eta esku-jolasetan izango dute entretenimendua, eta 17:00etan, muslarietako txapelketan. Gauerako, erromeria eta DJak daude programatuta.

Azkenik, domekan, Oñatzeko dantzari gazteek emanaldia eskainiko dute, 12:00etan; 14:00etan, oster, auzo bazkaria egongo da. 19:00etan, Udalak antolatzen duen Kalean egitasmoa borobilduko du Trapu Zaharrak konpainiaren *Turistreatzen* kale-antzezlanak. Eta 21:00etan amaituko dira jaiak, zozketarekin.

HEMEN

DA

DANBAKA))))))

M U S I K A L E H I A K E T A

5.
ALDIA

BERRIZ!

- Ⓚ Bergarako Seminarixoan jokatuko da **urritik urtarrilera arte**.
- Ⓚ Debagoieneko musikari eta taldeei zuzenduta.
- Ⓚ Zuzeneko kontzertuak.
- Ⓚ **Izen-ematea zabalik irailaren 18ra arte: www.danbaka.eus**

ANTOLATZAILEA

goiena
KOMUNAZO TALDEA

LAGUNTZAILEA



Begarako Udala



Joseba Azkarate, aste barruan Zubikoako igerilekuan, Ainhoa Calleja entrenatzailearekin igeriketako saioa prestatzen. x.u.

"Talde-lanari esker lortuko dugu lehen triatloia egitea"

JOSEBA AZKARATE ANTIXINTXIKA TALDEKO KIDEA

TRIATLOIA Irailaren 10ean, tetraplegia duen Joseba Azkaratek lehenengoz egingo du triatloi bat. Espainiako Federazioan baieztatu diote munduan ez dagoela halakorik

Xabier Urtzelai OÑATI

Duela bost urte auto istripua izan zuenetik, Joseba Azkarate (Oñati, 1987) aurrerapausoak ematen joan da etengabe. Eta aurrerapauso horietako batzuek kirolarekin lotura estua izan dute. Hala, urteetako lanaren ostean, irailaren 10ean, oñatiarrak duatleta izateari utziko dio, triatleta bilakatzeko. Alegia, 750 metro egingo ditu igerian, 20 kilometro handbikean, eta bost kilometro korrika egiteko aulkian. Lorpena ez da pertsonala

bakarrrik izango, Antxintxika triatloi talde barruan ere mugarrria izango da, talde egokitua sortu zutenetik beste aurrerapauso bat izango da eta. Mundu mailan ere erreferentziazko datua ezarriko du Azkaratek,

MUNDUAN EZ DAGO HALAKO TETRAPLEGIA GRADUAREKIN TRIATLOI BAT EGIN DUEN KIROLARIRIK

ez dago-eta halako tetraplegia maila duen triatletarik.

Lehenengo izan ziren Torreauzo edo Antxintxikakoa moduko herri krosak. Ondoren etorri ziren duatloiak. Baina Zumaiakoa zure lehenengo triatloia izango da.

Aspaldi ezarritako erronka baten punta izango da, eta horretan ahaleginduko gara. Nik uste dut egingarria dela, nahiz eta badakidan lasterketan zehar asko sufrituko dudala. Baina bai, egingo dut, horretarako prestatu gara.

Bidea luzea izan da; handbikean hasi zen dena...

Halaxe da, ondoren etorri zen atletismoko aulkia eta azkeneko pausoa izan da igeri egiten hastea. Prozesu luzea izan da, berriz ere igeri egiten ikasi behar izan

"BADAKIT KOSTA EGINGO ZAIKOLA, SUFRITU EGINGO DUDALA, BAINA EGINGARRIA DA"

nuen eta Ainhoaren [Calleja] laguntza izan dut horretarako. Gainera, gauza bat da errehabilitazioaren zati bat uretan egitea eta beste bat lasterketa baterako prestatzea: uretan ordubeteko saioa egitea, serieak egin ez entrenatzea...

Hain zuzen, hainbat duatloi egin dituzu azken urtean, baina triatloian igeri egin behar da. Zelan daramazu azken arlo hori?

Igeriketa gehien kostatu zaidan arloa da, ezberdinena delako. Duatloiak sikuan egiten dira,



x.u.

"Josebarekin dena izan da berria"


AINHOA CALLEJA
ENTRENATZAILEA

Entrenatzaile moduan, erronka izan da Josebarekin lan egitea?

Bai, erronka oso polita izan da, dena izan da berria, eta ilusio handia jarri dugu. Urtebete daramagu Zumaiako triatloia prestatzen, baina hasierako lana poliki egin genuen, presio barik. Uretara ohitu, arnasketa landu... Hasieran, ordubete osoa Josebarekin egiten nuen uretan, baina lan handia egin du, teknika hobetu du; orain, ia saio guztia bakarrik egiten du.

Lasterketa egunean haren ondoan egongo zara.

Bai; bereziki, uretan nire lana izango da Joseba gidatzea, gora begira joaten delako eta ez duelako erreferentziarik izaten. Eta gero ere ondoan izango naiz, egun polita izango da denendako.



x.u.

"Antxintxikan mugarrria da triatloi hau"

AITOR REMENTERIA
ANTIXINTXIKA

Antxintxikarendako ere mugarrria izango da Zumaiako triatloia.

Bai; kirol egokituko saila sortu genuenetik izan dugun helburuetako bat izan da triatloia, eta Zumaiako Joseba Azkarate eta *Alfon* [Alfonso Grae gasteiztarra da eta garun paralisia du] lehiatuko dira. Bi lagun horiek erakutsiko dute kirolak ze eragin daukan osasunean, eta noraino iristeko kapaz diren nahiz eta muga fisiko batzuk izan. Gizartea sentsibilizatzeko ere garrantzitsua izango da. **Antolatzaileen lana ere nabarmentzekoa da.**

Kirol egokituaren arloan lan handia dago egiteko, eta triatloien munduan are handiagoa. Horregatik, Zumaiako, Azkoitian, Sopelan... Aurten egin duten ahalegina eskertzekoa da.



Joseba eta Alfontso, Azkoitin. ANTIXINTXIKIA

bizikletan eta atletismoko aukian. Igeriketa, berriz, erronka izan da niretako. Gorputzaren posizioa ezberdina da, arnaske-ta beste modu batean egin behar dut, oreka mantendu behar dut uretan... Hala, nirea moduko lesio bat duenarendako, tetraplegia duen batendako, ez da erraza uretan lan hori egitea.

Dagoeneko itsasoan ere ibili zara. Bai; guretako ere ezberdina da itsasoan igeri egin ala igerilekuan ibili. Itsasoan oreka mantentzea ez da gauza bera, korronteak daude... Eta gero, nire arazoa ez da erresistentzia, nire arazoa indarrarena da; alegia, besoekin bakarrik egin dezakedala aurrera. Kontrara, igerilekuan bueltak eman behar izaten ditut etengabe, eta Zumaian ez dut arazo hori izango.

Lasterketa egunean beste kontu batzuk ere zaindu behar dituzu; gorputzeko tenperatura zaintzea-rena, esaterako.

Erronka ez dago bakarrik egin beharreko lan fisikoan. Halako lesioa dugunok zailtasunak izaten ditugu gorputzeko tenperatura aldaketetara egokitzeke; alegia, ez dugu gorputzeko tenperatura erregulatzen. Oso izerdi gutxi botatzen dugu eta ondo zaindu behar dugu gorputzeko tenperatura. Esaterako, uretan gorputza itsasoko tenperatura hartzen joango da, eta gero, bizikleta gainean noanean burutik behera etengabe ura bota behar-ko didate, ahal den neurrian hozten joateko. Halakoak eta beste kontu batzuk ere izaten ditugu, bai.

Nabarmentzekoa da mundu mailan ez dagoela halako tetraplegia maila duen triatletarik. Lehenengoaz izango zara.

Halaxe esan digute Espainiako Federazioan. Egia da duatloietan badaudela tetraplegia duten kirolariak, ez nik daukadan ezgaitasun mailarekin, baina badaude. Ez dakidana da munduan ba-

ote dagoen tetraplegia duen triatletarik, baina segurua dena da baldin badago ez daukala nire gradu berbera –Josebak giharren %13 mugitu dezake–.

Zure atzetik etor daitezela beste batzuk ere, bidea egiten ari zara.

Hori da garrantzitsuena! Nirea moduko egoeran daudenak irten daitezela kalera kirola egitera! Erronka hau ez dut nigatik bakarrik egiten, erakutsi nahi dut ezgaitasunen bat dugunok ere gauza mordera egin ditzakegula, ondoan laguntza eskatuta eta norberaren partetik asko jarrita, baina posible da. Seguruenik, denek ezingo dute triatloi bat egin, noski. Baina, igerian hasi, edo handbikean apur bat ibili, atletismoko aukian... Bakoitza ahal duena, eta ahal duen moduan, baina saiatu.

Triatleta batek traste mordera eraman behar izaten ditu lasterketa batera. Zuen kasuan, biderkatu egingo da dena.

Gure kasuan, biderkatu egiten da. Igeri egiteko materiala behar dut, itsasora sartu ahal izateko aulki berezia, bizikletako tartea egiteko handbikea, korrikako tartea egiteko aulkia... Horiek guztiak Antxintxikan egin duten lanari esker ditut nire eskura, dirutza balio dutelako. Horri esker har dezaket parte lasterketan, eta, norbaitek probatu nahiko balitu, hortxe daude, eskura.

Horrenbestez, normalean, triatloia bakarkako kirola izaten da, baina zure kasuan, talde-lana dago atzean.

Ez izan zalantzarik! Ondoan ditudan lagunak laguntza barik ezingo nuke ezer egin. Ainhoa [Calleja] entrenatzailea, Aitor [Rementeria], nire arreba, Nielska, Xabi eta abar. Eta atzean dauden beste lagun asko. Azken batean, familia txiki bat osatu dugu eta euren laguntza ezinbestekoa da niretako. Eta noski, baita Antxintxika bera ere, talde moduan.

Arrasate Hiria zapatuan, liga hasieraren atarian

FUTBOLA Irailaren 10eko eta 11ko asteburuan hasiko dute Aretxabaletak, Mondrak, Bergarak eta Aloña Mendik liga. Lau taldeak denboraldiaurreko partiduetan murgilduta dabilta; bihar, Mondrak Bergara eta Zumaiko hartuko ditu Mojategin

Xabier Urtzelai ARRASATE

Ohorezko erregional mailan lehiatuko diren lau taldeak lagunarteko partiduetan murgilduta dabilta; izan ere, astebete geratzen da liga hasierarako. Hala, bihar, zapatua, Arrasate Hiria torneoan neurtuko dituzte indarrak Bergarak, Zumaikok eta etxeko taldeak, Mondrak. Hiruko txapelketa 17:00etan hasiko dute Bergarak eta Zumaikok eta 18:00etan jokatu dute Mondrak eta kostaldeko taldeak. Hala, arratsaldeko azken partiduan (19:00) izango da derbi debagoiendarra, mahoneroen eta sarrailagileen arteko partidua. 25 urtetik gorakoendako sarrera 5 eurokoa izango da –gazteak eta bazkideak doan sartuko dira–.

Aldaketak aulkietan

Mondrako eta Aretxabaletako entrenatzaileei dagokienez ez da aldaketarik izango, Unai Calzonek eta Cristian Matiasen egindako lan onak jarraipena izango du –Arrasateko taldean berritasuna da Jorge Santiago dela kirol zuzendari berria–. Bergarako eta Oñatiko taldeetan, berriz, entrenatzaile berriak izango dituzte. Aloña Mendin Garikoitz Nuñez legazpiarrak hartuko du taldea entrenatzeko ardura, baina Nuñez ez da klubera iritsi berria, iaz



Bergara eta Elgoibar, iazko Arrasate Hiria torneoan. GOIENA

bigarren taldeko entrenatzailea izan zen. Bergaran, ordea, aspaldiko partez, etxeko entrenatzaile baten aldeko apustua egingo dute, Iker Ruizek hartu du erronka berrirako ardura.

Denboraldiaurre ezohikoa

Bergarakoendako eta Oñatikoendako ezohiko hilabetea izan da hau, ezin izan dira-eta Agorrosinen eta Azkoagainen entrenatu –zelaiak berritzeke lanetan dabilta–. Aretxabaletak ere berdegune berria estreinatuko

du liga hasieran, baina Ibarra-ko lanak amaituta daude jada eta entrenamendu saioak normaltasunez egin dituzte. Oñatiarrek, berriz, Antzuolan dihardute denboraldi hau prestatzen, eta bergararrak Ipintzako zelaian dabilta lanean.

Hala, liga hasiera indartsua izango dute bailarako taldeek, lehen hiru jardunaldietan hiru derbi egongo dira-eta ikusgai. Lehenengo jardunaldian, Aretxabaletak eta Aloña Mendik neurtuko dituzte indarrak.

Azkeneko orduak Ikazkin trail lasterketan izena emateko

MENDI LASTERKETAK Irailaren 10ean egingo duten proban dagoeneko ehun laguneko langa gainditu dute

X.U. ARETXABALETA

Hasi da atzera kontaketa Ikazkin trailerako. Datorren zapatuan Aretxabaletan egingo duten mendi lasterketan izena emateko epea bihar, zapatua, amaituko da –

rockthesport.com–, eta, antolatzaileek adierazi moduan, dagoeneko 100 korrikalariren langa gainditu dute: "Lehenengo edizioa da eta kontziente gara hasierak ez direla errazak. Horregatik, kon-

forme gaude oraingoz ditugun datuekin eta seguru azken orduan ere animatuko dela jendea. Parte-hartzaileekin batera, boluntario lanetan beste 65 lagunak laguntza izango dugu, eta hori ere nabarmentzeko moduko datua da, pozik gaude", adierazi du Julen Ezeizak.

Aretxabaletako lehenengo mendi lasterketak 21 kilometro izango ditu, eta lasterkariak Kurtzebarri eta Degurixa inguruan ibiliko dira.



Kantxa inguruan martxan dira kontzertu-eremua prestatzeko lanak. L.Z.L.

Bihar, punk-oi! eztanda Elgetan

Kantxan egokitutako kontzertu-eremuan lanak martxan dira. Karteleko hamabi taldeak ere prest dira. Josu Azkarate gogoan, hain berea zuen musikak hartuko du herria. Sarrerak agortuta daude; antolatzaileen esanetan, 1.800 saldu dituzte

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA Biharkoa oso egun berezia izango da Elgetan. Punk-oi! doinuak izango dira nagusi, eta ez edonolako ekitaldian, gainera. Hamar ordutik gorako jaialdia dago aurreikusita, eta dozena bat talderen parte-hartzea dago baieztatuta. Ikusleak, berriz, 1.800 inguru izango dira. Hala, heldu da Josu Azkarate Alberdiren omenez gertukoek zein musika munduko lagunak antolatutako jaialdia ospatzeko eguna.

2021eko urrian joan zen Azkarate *Ostiada*, auto-istripuan, 40 urte zituela. Elgetako *Ostiada Oi!* taldeko baxu-jotzailea, Porron & Kuentanueba taldean ere aritutakoa zen, eta harreman estua zuen inguruko talde asko eta askorekin. Berehala sortu zen omenaldi jaialdi bat egiteko ideia, eta asko izan dira bertan parte

hartu nahi izan duten lagunak eta musikariak. Herrian ere lantalde indartsua sortu da, eta elgetar ugari gehitu dira jaialdian laguntzeko prest.

Lehenengo eta oraingo taldeak

Modu batean edo bestean Azkaraterekin ibilitako taldeekin osatu dute kartela antolatzaileek. Jardunean dauden talde askok joko dute bihar Elgetan: hain zuzen, Sindy Berbenas, Kaleko Urdangak, Neallta Fola, Des-kontrol, Arkada Social eta Bergarako Ekiñez jaialdirako elkartu zen Jonny Gerriwelt. Gainera-

**DOZENA BAT TALDEK
HAMAR BAT ORDUKO
JAIALDIA EGINGO
DUTE 1.800 BAT
IKUSLEREN AURREAN**

koak omenaldi ekitaldirako propio elkartu eta prestatu dira. Horietako asko, gainera, 2008an Bardulia Records diskoetxearen zigilupean argitaratutako *Bardulia Sound* bilduman parte hartutakoak dira -The Fridays Crew, Hell Beer Boys, Neallta Fola, Ostiada Oi!, Porron y Kuentanueba-.

Talde bakoitzak 40 minutuko kontzertua egingo du eta 20 minutuko tartea dago aurreikusita eszenatokian instrumentu aldaketak egiteko.


Antolatzaileek jakinarazi dute Pagatza industrialdean egongo dela ibilgailuak aparkatzeko eremua. Jakinarazi dute baita ere sarrerak agortuta daudela.

Herriarren aldetik jasotako laguntza ere handia izan dela azaldu dute. Boluntario askok eman dute izena, eta txandak eginda daudela jakinarazi dute.



Kontzertu-gunea, kantxan

Eszenatokia kantxan dago eta kontzertu eremuak bi sarrera eta irteera bat izango ditu. Barruan, hiru barra eta edariak eskatzeko txartel-salmenta postu bi egongo dira. Hamar komun, segurtasun postua eta Punto Morea ere izango dira bertan.



Ostiada Oi! taldearen kontzertua, 2020ko otsailean, Elgetan. L.Z.L.

Berezia arrazoi askorengatik

Lehenengo eta behin, Azkarateren omenez antolatua izan den jaialdia delako, eta ondotik, aspaldi oholta gainera igo gabeko talde asko izango direlako zuzeneko egiten. Jarraitzaile zein nostalgikoendako benetako oparia. Eta zer esan Elgetako Ostiada Oi! taldearen emanaldiari buruz... Urte askoren buruan, 2020ko otsailean Elgetan egindako Mendi Mendia Racing egunerako elkartu ziren. Bihar, Azkarate gogoan, oholta gainean izango dira berriz. Jaialdiari amaiera emango dion taldea izango da.

Kontzertuak

- 15:00 Material Rechazado.
- 16:00 Never Surrender.
- 17:00 Des-kontrol+Arkada Social.
- 18:00 Sindy Berbenas.
- 19:00 Jonny Gerriwelt.
- 20:00 Hell Beer Boys.
- 21:00 Fridays Crew.
- 22:00 Porron & Kuentanueba.
- 23:00 Neallta Fola.
- 00:00 Kaleko Urdangak.
- 01:00 Ostiada Oi!

Oharrak: osasun arazoak tarteko, Orreaga 778 taldeak ez du joko. Bestetik, 13:00etatik aurrera txerri-pintxoak egongo dira salgai.

"Ibarreko uzta berriaren lekuko izateko gogotsu"

JOKIN BEREZIARTUA DANBAKA MUSIKA LEHIAKETAKO BOZERAMAILEA

Goiena Komunikazioa Taldeak, Bergarako Udalaren laguntzarekin, urriaren 14an abiatuko du, Seminarixoan, eskualdeko musikarientzako Danbaka lehiaketa

Aitziber Aranburuzabala BERGARA Hogeitaldereentzako tokia izango da; irailaren 18ra arte dago izena emateko epea zabalik. **Bosgarren Danbaka musika lehiaketa abiatzeko gogotsu?**

Gogotsu gaude, nola ez. Pandemi aurretik hasi ginen Goiena barruan antolatzeke baldintzak betetzen zirela baloratzen, eta berotzen hasi ginen... pandemiak dena hoztu zuen arte. Sinistuta gaude uzta berri emankorra dagoela Debagoienean, askotarikoa dena. Ilusioz josita gaude uzta berri horren lekuko izateko, betiere, Seminarixora hurbilduko diren herritarrek gustu handiz probatu dezaten.

Eskualdeko musikarien erakusleihu izateaz gainera, ze helburu ditu?

Nagusiki, musikariak, bakarlariak eta taldeak haizatzera, haien adierazpen artistikoari lekua eskaintzea eta oihartzuna ematea. Bestetik, bereziki gazteak, baina baita ez horren gazteak direnak, euskarazko hedabideetara gerturatzea. Eta, azkenik, hau guztia, elkarlanean, komunitatearekin batera egitea.

Parte hartzeko baldintzak?

Baldintza bakarrak dira Debagoienean erroldatuta egotea parte hartzailea –bakarlaria bada– edo kideetako bat, gutxienez –taldea bada–, eta euskaraz



Jokin Bereziartua. XABI URTZELAI

sortutako bi kantu izatea. Aurreko edizioetako taldeek ere eman ahal dute izena; ez dago mugarik alde horretatik. *Danbaka.eus* atarian daude oinarriak eta izena emateko bidea ere bai. Aurkezten diren taldeen artetik hemeretzi aukeratuko ditu epaimahaiak eta azkena publikoak. Irail amaieran irekiko dugu *Danbaka.eus*-en bitartez azken talde hori aukeratzeko bidea.

Bergarako Seminarixoan izango dira kontzertuak. Noiz?

Urriaren hasi eta Gabonak bitartean, bost ostiraletan: urriaren

14an, urriaren 28an, azaroaren 11n, azaroaren 25ean eta abenduaren 16. Finala, ostera, urtarriaren 13an izango da.

Bergarako Udala, bidelagun.

Aurreko lauak Elgetako Espaloia Kafe Antzokian izatea luxua izan zen! Oraingoan, Bergarako Udalaren laguntzarekin egingo dugu eta azpimarratu nahi dut Bergarako Udalak ere erraztasun guztiak jarri dizkigula Seminarixoko baliabideak eskura utziz.

Sariak gozoak dira.

Disko bat estudioan grabatzea, Sari Nagusia; eta Publikoaren Saria, bideoklipa.

Musikazalea zara; zer da zuretzako Danbaka?

Espaloia Kafe Antzokian ezagutu nuen eta ekimen ederra iruditu zitzaidan; aukera ederra bestela ikusiko ez nituen proposamenez gozatzeko. Eta orain, ekimeneko bozeramailea naiz... Bizitzaren paradoxak! Ordu erdiko emanaldiak izatera, taldeek duten onena ematera etorriko dira. Kuriositate handia daukat Debagoieneko abaniko musika la Seminarixoko oholtza gainean ikusteko, zuzenean eta eskuzabaz. Doakiela, beraz, taldeei eta bakarlariari, hasiberriak edo eskarmentu handikoak izan, nire gonbidapenik zintzoena, ez zaie eta damutuko!

'Hazia' musikala irailaren 17an eta 18an Amaia antzokian

Jose Maria Arizmendiarrera Mondragon Korporazioko enpresa kooperatiboen sustatzailearen bizitza oinarri hartuta, *Hazia* musikala sortu dute Arizmendiarreren Lagunak Elkartek eta Gontzal Mendibil musikariak, Arrasateko Udalaren babesarekin eta bestelako hainbat artistaren kolaborazioarekin –tartean, Arkaitz Gartzian-

dia aktorea, Arizmendiarreren papera egingo duena, eta Gokobalu abesbatza–.

Sarrerak eskuragarri

"Musikala laikoa eta modernoa da", dio Gontzal Mendibilek, "oholtzaren gainean kantuak, dantzak eta proiektzioak" uzartuko direla gaineratuta.

Arrasaten estreinatuko dute –irailaren 17an, 20:00etan eta hurrengo egunean, 19:00etan–; *Arrasate.eus* atarian daude, 25 eurotan, sarrerak eskuragarri.

'Bretxa' musikalerako sarrerak dagoeneko eskuragarri daude

Toti Martinez de Lezearen *Bretxa* eleberrian oinarritutako formatu handiko musikala egingo du Bergara Antzerki Musikala (BAM!) elkarteak; Bergarako elkarrearen hamabigarren lana 2023ko urtarrilaren 13an estreinatuko dute, Donostiako Victoria Eugenia antzokian. *Donostiakultura.eus* atarian daude sarrerak eskuragarri.

Goienakideen txokoa

UZTAILEKO IRABAZLEAK

ALTSASUKO SAN PEDROKO BIDEA
TURISMO ETXEAN EGONALDIA
Arantzazu Igartua Lizarralde (Bergara)

HARREMAN DENDAKO OTARREA
Ines Gardoki Garro (Arrasate)

ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK
Ainara Arregi Ezkurra (Arrasate)
Anabel Mondragon Ayastuy (Arrasate)
Jose Manuel Calvo Bañez (Arrasate)

TARTUFO JATETXERAKO
BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Iñaki Gantxegi Barrena (Bergara)

ZUMELAGA JATETXERAKO
BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Alberto Oyarzabal Odriozola (Eskoriatza)

SANTA ANA JATETXERAKO
BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Jesus Armendariz Larumbe (Aretxabaleta)

UNZUETA SAGARDOTEGIRAKO
BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Nieves Arana Garziaetxabe (Aretxabaleta)

SARIAK JASOTZEKO:

Arrikrutzeko sarrerak. Goiena Klubeko barteko erakutsia, bina sarrera izango dituzue Arrikrutzeko bartelagun. Sarrerak hiru hilabeteke epemuga izango dute. **ARRIKRUTZ KOBETAK.** Areatz auzoa, ORATI, 943 08 20 00. Orotzuegia asteartetik gandera 10:00 - 17:00 (aurretik deitu hitzordua egiteko) Harreman dendako otarrea. **Otarrea** jasotzeko, j. zuzenean, bazkide bartzelarekin Harreman dendara. Areatzoko Erakle hipomerkatuaren duen dendara. **Turismo etxeko egonaldiaren bonoa jasotzeko,** zeto: GOIENAREN egoitzara. Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA erakutsi edota BAZKIDE ZENBAKIA aditzera eman behar da GOIENA Otolara Lizentziaduna 31, Arrasate, 943 25 05 05. Orotzuegia: astelehenerdik egunera: 09:00 - 18:00. Egubakobata: 08:00 - 14:00

Irabazi bi lagunendako otordua

ERUAN GASTROTEKARI ESKER

Begiratu Puntua aldirikako Otorduan atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: irailak 6

☎ 943 25 05 05 ✉ goienakide@goiena.eus 📱 'Goiena app'-a / zozketa atalean.

📍 GOIENAKIDE Jotetxea
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldirikaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...




BAZKIDETZA KUOTA: 30€
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia.



18. UDAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA *egin klik!*

Eskerrik asko parte hartzeagatik!

Bidali zure argazkiak irailaren 19ra arte posta elektronikoz (argazkiak@goiena.eus) edo Whatsapp/Telegram bidez (688 69 00 07).
Lehiaketaren oinarriak irakurri eta sariak ezagutzeko, sartu Goiena.eus-en.



Badator iratargixa Aloña aldetik | Argazkia: Nerea Lertxundi (Oñati)



Ihesssss | Argazkia: Haritz Iñurritegi (Arrasate)



Beynaceko Notre Dame | Argazkia: Markel Elorza (Antzuola)



Eguzki gorri | Argazkia: Jose Luis Madina (Aramaio)



Kuba | Argazkia: Olaia Otero Aiastui (Oñati)



Contis (Landak) | Argazkia: Juan Luis Zabala (Leintz Gatzaga)



Dionewar (Senegal) | Argazkia: Elisabete Dominguez (Bergara)



Zakopane, Tatra mendiak (Polonia) | Argazkia: Lara Bautista (Aretxabaleta)



Lehengo tabernak | Argazkia: Gorka Arizmendiarieta (Elgeta)



Vintgar (Eslovenia) | Argazkia: Aitor Gabirondo (Eskoriatza)



Argazki guztiak kanal berezi honetan:
<https://labur.eus/uda-koargazkiak-2022>

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

EROSKI
ARRASATE

GURE AMETSA
Restaurante • Jateetxea

BERGARA
**EREIN
DA
JAN**

Halcon BIDAIAK
ARRASATE BERGARA

OROIGARRIA



Luis Ugalde Mendieta
(Ikastolako gurasoa)



2022ko abuztuaren 19an hil zen, 58 urte zituela.


Une triste hauetan gure besarkada beroena familiari.



Arizmendi Ikastolako langile, guraso eta kolaboratzaileak
Leintz bailaran, 2022ko irailaren 2an.


OROIGARRIA

Luis Ugalde Mendieta



2022ko abuztuaren 19an hil zen, 58 urte zituela.


*Ezustian fan haz, hutsune galanta ixita,
baina parranda danetan izengo haz gure artien, Bedoñako Luis.*



Arrasaten, 2022ko irailaren 2an.

OROIGARRIA

Luis Ugalde Mendieta



2022ko abuztuaren 19an hil zen, 58 urte zituela.

*Agian gure begietatik ihes egin dozu, baina inoiz ez gure
bihotzetatik*

Zure lagunak.
Arrasaten, 2022ko irailaren 2an.

OROIGARRIA

Mikel Crespo Zuazua



2017ko abuztuaren 11n hil zen, Balaitusen, 20 urte zituela.

*Bost urte zu barik, Mikel, bost urte gogor eta luze. Baina zuk
itxitako hutsunia itzela dan arren ederra izan da benetan elkarrekin
bizi izan doun guztia. Eskerrik asko maitia.*

Maite zaitugu Mikel eta beti eruengo zaitugu bihotzian.

Etxekoak.
Aretxabaletan, 2022ko irailaren 2an.

OROIGARRIA



Kontxi Martinez Martinez



2022ko uztailaren 29an hil zen, 87 urte zituela.

*Ez dogu ahaztuko erakutsitako
apaltasun ta maitasunez bizitzeko era.
Sukaldari trebea, pertsona hobea.
Agur Ama, Amama Kontxi.
Beti gogoan.*

Arrasaten, 2022ko irailaren 2an.

OROIGARRIA



Jesusa Lasagabaster Villar
'Artabe baserrikoa'




2022ko abuztuaren 22an hil zen, 96 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez
besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aretxabaletan, 2022ko irailaren 2an.

OROIGARRIA

Felix Iturbe Altuna



2022ko abuztuaren 31n, 77 urte zituela.

Pertsona ona, lagun hobea.

Rafa, Maite, Amaia, Niko, Garazi eta Roger.
Arrasaten, 2022ko irailaren 2an.


OROIGARRIA

Felix Iturbe Altuna



2022ko abuztuaren 31n, 77 urte zituela.

Gure besarkada beroena familiari.



Goiena Aseguru Artekaritza SL.
Arrasaten, 2022ko irailaren 2an.

OROIGARRIA

Jon Ander Gantxegi Otaola



2022ko abuztuaren 29an hil zen, 56 urte zituela.

Gantxegi, gure lagun ona. Beti egongo zara gudan

Zure kuadrillia.
Bergaran, 2022ko irailaren 2an.

OROIGARRIA

Joxe Mari Belar Iturricastillo



2022ko abuztuaren 29an hil zen, 60 urte zituela.

*Mundua ez da beti jai,
inoiz tristea ere bai,
baina badira mila arrazoi
kantatzeko alai.*

*Bestela datozen penai
ez diet surik bota nahi.
Ni hiltzen naizen gauean behintzat
egizue lo lasai.*

Kuadrillakook ez zaitugu ahaztuko.

Bergaran, 2022ko irailaren 2an.

OROIGARRIA

Begoña Errasti Arana



2022ko abuztuaren 8an hil zen, 77 urte zituela.


*lloba denen amatxo zinen
Maitagarria, alai...
etxeko oro zaintzeko beti
gertu zenuen talaia.
Gure ametsik gaiztoenean
bihurtu da hil-kanpaia,
aita-amekin batzeko berriz*

*iritsi zaizu garaia.
Bost kontinente pasa zenitun
bost kultura bost paisaia,
bai, baina, gure bihotzetara
izan da azken bidaia!
Askio Maite zaitugu!*

Etxekoak.
Aretxabaletan, 2022ko irailaren 2an.

OROIGARRIA

Jose Antonio Iturricastillo Lombide



2022ko abuztuaren 27an hil zen, 86 urte zituela.

*Zure urrebotoixuak.
Maddi eta Peru.*

Aretxabaletan, 2022ko irailaren 2an.

OROIGARRIA

**Arantxa
Garay Jauregui**

2022ko abuztuaren 31n hil zen, 81 urte zituela.

*Gure bihotzaren erdian zaude,
lehen, orain eta betirako.*

Zure ilobak: Ioseba, Karmele, Amaia, Iñigo, Nerea, Maite, Joseba, Iosune, Ekaitz, Izaskun eta Aurelio.

Bergaran, 2022ko irailaren 2an.

OROIGARRIA

**Encarna
Larrañaga Lizarralde**

(Felix Loidi Astigarragaren alarguna)

2022ko abuztuaren 26an hil zen, 97 urte zituela.

*Beti hartu gaituzu goxo eta irrifartsu.
Maitasunez gogoratuko zaitugu.*Loidi familiako loibak.
Bergaran, 2022ko irailaren 2an.

OROIGARRIA

**Angel
Aranegi Saracibar**

2022ko abuztuaren 26an hil zen, 73 urte zituela.

Bihotz-bihotzez, besarkada handi bat, tio Angel.

Felix eta Elena, Edurne eta Felix, Idoia eta Jose Juan, Jabi eta Alazne, Andres eta Izaskun, Andoni eta Nuria, Ana eta Segundo, Roman eta Nerea, zure lobak eta loba txikiak.

Arrasaten, 2022ko irailaren 2an.

ESKER ONA

**Arantxa
Garay Jauregui**

2022ko abuztuaren 31n hil zen, 81 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2022ko irailaren 2an.

ESKER ONA

**Encarna
Larrañaga Lizarralde**

(Felix Loidi Astigarragaren alarguna)

2022ko abuztuaren 26an hil zen, 97 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

Etxekoan partetik, eskerrik asko agurrera gerturatu zareten guztioi.

Bergaran, 2022ko irailaren 2an.

OROIGARRIA

**Fernando
Etxebarria Ortueta**

'Puxika'

2022ko abuztuaren 20an hil zen, 68 urte zituela.

*Haizeari esango diogu
Belarria esateko
Zauden lekuan zaudela
Ez zaitugula inoiz ahaztuko.*Zure kuadrilla.
Arrasaten, 2022ko irailaren 2an.

ESKER ONA

**Rosario
Larrañaga Badiola**

2022ko abuztuaren 11n hil zen, 91 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Ondra meza domekan izango da, irailaren 4an, 11:00etan, Arrasateko Uribarriko elizan. Bertaratuko zaretenoi alde zuretzat eskerrik asko.

Arrasaten, 2022ko irailaren 2an.

ESKER ONA

**Izaskun
Markaide Barrutia**

2022ko abuztuaren 8an hil zen, 80 urte zituela.

Bere anai-arrebak : Anton (†), Julio(†) eta Itziar Zubizarreta, Begoña eta José Luis Arroiabe; ilokak Beñat, Aiora eta Igor, Alaitz eta Luis, Josu eta María. Birlobak: Lander, Unax, Danel, Ekhi eta Maule eta gainerako ahaideak.

Bere senideek benetan eskertzen dizute samin agurra bidali zenutenei eta baita bere hiletara joan zineten guztioi ere.

Arrasaten, 2022ko irailaren 2an.

ESKER ONA

**Martin
Arana Ibabe**

2022ko abuztuaren 29an hil zen, 85 urte zituela.

Haren emaztea: Pilar Ibabe; seme-alabak: Mikel, Oskar eta Olaia; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusu-lehengusinak eta gainerako ahaideak.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2022ko irailaren 1ean

ESKER ONA

**Rafael
Fernandez Zubiaga**

2022ko abuztuaren 25ean hil zen, 89 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2022ko irailaren 2an.

URTEURRENA

**Bixenta
Biain Markuleta**

2021eko abuztuaren 29an hil zen, 94 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, irailaren 3an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokiaren.

Aurrez esker on bertaratuko zareten guztioi.
Oñatin, 2022ko irailaren 2an.**Oroilore**Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu*Gure artean agurtutako
guztiei euren bidea aurkitzen
lagundu diegu, orain arte
bezala, eta guztiek izango
dute agur berezia Oroiloren.**Gure eskerrik beroenak guran
izan duzun konfiantzagatik
eta maitasunagatik.***Ion, Mario, Iban eta Maribi**Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

ZORION AGURRAK



ARRASATE
Aiur Aranzabal Larraza
Irailaren 6an, urtebete. Zorionak gure etxeko txikitxuari!! Egun polita pasa, familia osoaren partetik! Izugarri maite zaitugu!!



OÑATI
Peru Erle Agirre
Irailaren 5ean, 3 urte. Urte askotarako, potxolo! Primeran pasauko dogu. Patxo haundi bat, familiaren partetik; bereziki, Helenen partetik.



ARETXABALETA
Izar Zuazo Oianguren
Irailaren 2an, 15 urte. Zorionak, izi!!! Ederto ospatu, eta ez ahaztu asko maite zaitugula! Patxo handi bat, familiaren partetik!




OÑATI
Asier Hernandez Juan
Irailaren 2an, urtebete. Zorionak, Asier! Primeran pasa zure lehen urtebetetzea. Muxu handi bat Oñatitik.



BERGARA
Iñaki Zabala Iburguen
Irailaren 2an, Urtebetetzea. Zorionak, aitita Iñaki!!! Besarkada estu bat eta muxu handi bat familia guztiaren eta, batez ere, zure 3 biloba Agate, Inar eta Kermanen partetik! Orain arte bezain sasoiatsu eta indartsu jarraitu! Bihotzez maite zaitugu!!



BERGARA
Axier eta Malen Bardezi
Axierrek abuztuaren 26an 50 urte eta Malenek irailaren 1an, 10. Zorionak! Patxo erraldoi bana, familiakoen partetik!



ARRASATE
Daniel Garitaonandia Vecino
Abuztuaren 30an, urtebete. Zorionak, Danel! Muxu handi bat familia osoaren partetik!



OÑATI
Aitor Velasco Juan
Abuztuaren 28an, urtebete. Zorionak, Aitor!!! Ondo pasa zure lehen urtebetetzea. Musu handi bat.



OÑATI
Julen eta Danel Albisu Igartua
Julenek 13 urte egin ditu abuztuaren 22an eta Danelek 8, 28an. Zorionak! Patxo haundi bat, etxeko en partetik.



ARETXABALETA
Alize Pagalday Garro
Abuztuaren 27an, 6 urte. Zorionak, Alize! Infinito maitte zaitugu, zure energia berezi horrekin. Ederto ospatuko dogu. Patxo ta besarkada!!!



OÑATI
Irai Lizarralde Suarez
Abuztuaren 27an, 3 urte. Zorionak, txiki! Zelako azkar pasatzen den denbora! Segi beti bezain alai. Pilla bat maite zaitugu, bereziki Aranek!!



ANTZUOLA
Inge Narbaiza Pavo
Abuztuaren 26an, 7 urte. Zorionak, Inge! Segi irribarre polit horrekin. Muxu handi bat, etxeko en eta Dareren partetik!



ARETXABALETA
Manex Amozarrain Olabarria
Abuztuaren 25an, 12 urte. Dozena bat urte! Mila abentura! Ilargiraino eta buelta maite zaitugu! Zorionak, Manex!



ARRASATE
Lala eta Mara del Pozo
Abuztuaren 25an, 8 urte. Zorionak, bikote!!! Egun polit bat izan eta disfrutatu pilo bat. Muxu handi bat, familiaren partetik.



OÑATI
Duli fuente
Abuztuaren 25an, 22 urte. Zorionak, ama! Egun polita pasa. Familiaren partetik, asko maite zaitugu.



OÑATI
Oliver Perez Arregi
Abuztuaren 24an, 5 urte. Zorionak, familiaren partetik! Aita, ama, arreba, aitona, amonak eta birramonak.




ESKORIATZA
Rebeca Romero
Abuztuaren 18an, 45 urte. Zorionak, amatxo! Egun ederra pasatu eta patxo erraldoi bat Unairen, Beñaten eta Lurren partetik. Maite zaitugu!



OÑATI
Garazi Etxezarreta Castillo
Abuztuaren 18an, 2 urte. Zorionak, sorgintxo! Segi zure bezalako izaten! Patxo potolo bat etxeko en partetik!



ELGETA
Araitx Ahedo Alkalde
Abuztuaren 17an, 8 urte. Zorionak, Araitx! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna familiarekin eta lagunekin. Araitx, jarraitu orain bezain jator! Mundiala zara!



ARETXABALETA
Izaro Garcia Sanchez
Abuztuaren 17an, 2 urte. Zorionak, printzesa!! Egun ona izan eta goza ezazu irribarre eder horrekin. Muxu handi bat familia osoaren partetik. Maite zaitugu.



OÑATI
Izar Agirre Fuente
Abuztuaren 16an, 5 urte. Zorionak, maittia. Egun berezi honetan ondo-ondo pasau. Muxu erraldoi asko amatxo, aitaxo eta etxeko en partetik.



ESKORIATZA
Juan Iñurrieta
Abuztuaren 14an, 61 urte. Zorionak, txapeldun! Ederto ospatu zure urtebetetzea. Zure lagunaren partetik.



OÑATI
Miren Sanchez Arroibabe
Abuztuaren 13an, 3 urte. Zorionak, maittia! Azkenian allau da zure eguna! Ondo pasau eta patxo haundi bat, danon partez!




BERGARA
Jokin Amesti Gomez
Abuztuaren 12an, 6 urte. Zorionak, Jokin!! Muxu potolo bat etxeko en lagunaren partez!!! Eta egurra, artista!!!



OÑATI
Helene Kortabarria Otxoa-Aizpurua
Abuztuaren 12an, 11 urte. Zorionak!! Ondo pasa zure eguna!!! Muxu haundi bat danon partez, potxola!!!



BERGARA
Unai Beistegi Frias
Abuztuaren 5an, 11 urte. Zorionak, txapeldun! Primeran pasatu! Muxu eta besarkada pila bat, lagunaren eta familiako en partetik.



ARETXABALETA
Iker Hernandez Gartziaetxabe
Abuztuaren 4an, 2 urte. Zorionak, Ikertxo! Muxu potolo bat etxeko en partetik, bihotza!




BERGARA
Lur Ibarra Sasiain
Abuztuaren 4an, 6 urte. Zorionak, Lur!!! Fenomeno pasau! Besarkada goxo bat, zure inguruko en partetik!




BERGARA
Leah Zabaleta Rodriguez
Abuztuaren 3an, 2 urte. Zorionak, polit hori! Oso ondo ospatu zure eguna! Muxu potolo bat, familia osoaren partetik!



BERGARA
Irati Urrutia Retegi
Abuztuaren 3an, 11 urte. Zorionak, Irati! Besarkada handi bat, familia osoaren partetik!



OÑATI
Aiora Fernandez Galdos
Abuztuaren 2an, 10 urte. Zorionak, laztana! Ondo-ondo pasau zure eguna! Patxo bat, danon partetik!



BERGARA
Ekain Ugalde Iruin
Abuztuaren 1an, urtebete. Zorionak, laztana! Ondo pasatu! Muxu handi-handi bat hainbeste maitte zaitugun guztion partetik.



BERGARA
Iñaki, Naia eta Ines
Uztailaren 31n, 6 urte. Zorionak, hirukote maitxia!




ARRASATE
Markel Arambarri Foronda
Uztailaren 27an, 5 urte. Zorionak, Markel! Azkenien heldu da eguna. Segi gure bizitzak alaitzen. Patxo handi bat, familiaren partetik!



BERGARA
Ander Ortiz Lizarralde
Uztailaren 26an, 12 urte. Zorionak, mutil handi! Disfrutatu zure egunaz eta patxo potolo bat, etxeko en partetik. Maitte zaitugu.



OÑATI
Ana Mari Liziaga
Uztailaren 26an, 89 urte. Zorionak, amandria, etxeko danon partetik. Egun on-ona pasatu deizula! 89 patxo!



BERGARA
Oihan Gisasola Sevillano
Uztailaren 25an, 9 urte. Zorionak, mutil handi! Ondo pasatu zure eguna eta muxu potolo bat, familia osoaren partetik.



ARRASATE
Irati Horriolo Tierno
Uztailaren 25ean, 11 urte. Zorionak, Irati, eta urte askotarako! Musu handi bat, etxeko danon partetik.



BERGARA
Jurgi Larrea Perez
Uztailaren 24an, 12 urte. Zorionak, Jurgi! Ondo-ondo ospatu urtebetetze eguna. Patxo eta belarririk tirakada bat, familia guztiaren partetik.




ESKORIATZA
Juan Carlos Kortazar Urbesalgo
Uztailaren 24an, 65 urte. Zorionak, Juan Carlos! Espero ondo pasatu izena eguna, eta muxu potolo bat, familiaren partetik!



OÑATI
Laia Umerz Eceolaza
Uztailaren 22an, 8 urte. Zorionak, Laia! Ondo-ondo pasatu eguna eta jarraitu barre polit horrekin. Ai! Izeiren partetik, zorionak eta urte askotarako.



OÑATI
Axel Etxezarreta Urzelai
Uztailaren 22an, 5 urte. Zorionak eta urte askotarako, txapeldun! Ondo-ondo ospatu zure eguna. Patxo handi bat, etxeko danon partetik!



OÑATI
Inka Derteano Basterra
Abuztuaren 29an, 2 urte. Zorionak, potxolo! Besarkada estu bat familixakoen partetik, eta oso ondo ospatu urtebetetzia!



BERGARA
Garazi Amesti Gomez
Abuztuaren 29an, 11 urte. Zorionak, maitxia, egun ederra pasa!!!



BERGARA
Aner Lopez Usaola
Abuztuaren 28an, 4 urte. Zorionak, handikote!! Muxu handi bat, Malenen, Maddiren, aitabakoren eta amatxoren partetik.



OÑATI
Mikel Sanchez Arroabe
Abuztuaren 22an, 9 urte. Zorionak, Mikel! Zorion egun polita pasatu oporretan eta patxo haundi bat horrenbeste gura dun danon partetik!



OÑATI
Ane Zulueta Igartua
Abuztuaren 21an, 7 urte. Zorionak, Ane! Ondo pasatu zure egunian eta muxu potolo pila familixa danaren partetik!



OÑATI
Aimar Garcia Lopez
Abuztuaren 21an, 8 urte. Zorionak, Aimar!!! Iritsi da zuretzat hain berezika dan eguna! Disfrutatu egunaz txapeldun :jp eta patxo pilla familia danon partetik.




ARRASATE
Alain Fernandez Davila
Abuztuaren 11n, 6 urte. Zorionak, etxeko guztion partez! Muxu handi bat, txapeldun!



ARRASATE
Julen Uribeetxerria Errasti
Abuztuaren 7an, 7 urte. Zorionak, mutikote! 7 urtetxo gure bizitzak alaitzen! Familixa danan partez, patxo haundi bat! Asko maite zaitzugu!



BERGARA
Enara Urrutia Retegi
Abuztuaren 6an, 8 urte. Zorionak, Enara! Patxo handi bat, maite zaitugun guztion partetik!




OÑATI
Oihan Aramendi Fuente
Uztailaren 31n, 7 urte. Zorionak, Oihan! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu potolo handi bat, etxekoen partetik.



OÑATI
Maddalen Intxaurtieta Arregi
Uztailaren 30an, 7 urte. Zorionak! Patxo pila bat etxekoen eta, bereziki, zure lehengusu-lehengusina Sara, Paul eta Martinen partetik!



OÑATI
Nora Kortabarria Sainz
Uztailaren 28an, 7 urte. Zorionak, printzesa! Etxeko guztion aldetik.




ARAMAIO
Mariasun Uribe eta Markel Arrizabalaga
Uztailaren 21ean, Urtebetetzea. Uztailaren 21ean, 80 urte eta uztailaren 22, 7 urte. Urte askotarako bixoi! Topera ospatuko dogu bixon urtebetetze eguna. Milaka muxu. Asko maitxe zaituztegu.



OÑATI
Larraitz Aranburu Zabaleta
Uztailaren 21an, urtebete. Zorionak, maitia! Ze azkar pasatu dan zure lehen urtia! Zaren bezalakua izaten jarraitu! Asko maite zaugu!

BERRI-ZAKUA



Bihar ezkonduko dira

Miren Aranburu eta Endika Ruiz oñatiarrak bihar ezkonduko dira. Oporren ostean, beraz, ospakizunetan murgilduko dira, etxekoekin eta lagunekin. "Zorionak, bikote! Ederto ospatu eguna, eta segi zoriontsu izaten. Besarkada bana, lagun eta familiakoen partetik. Gogotsu gaude biharko egunerako. Elkarrekin ospatuko dugu".



San Lorentzo jaiak

Abuztu hasieran ospatu zituzten San Lorentzo jaiak izen bereko Oñatiko auzoan. Mendi-bizikleta martxa, triki-poteoak, kontzertuak, pilota eta mus txapelketak, haurrentzako ikuskizuna... Herritarrek bikain erantzun zuten, eta, oporretara joan aurretik, ekintza guztietan parte hartu zuten.

Lizargarate Eguna

Lizargarate Trikitizale Elkarteak antolatuta, ohiko osagaiak izan zituen abuztuaren 28ak: trikiti doinuak, herri kirolak eta bazkaria. Pozik daude elkarteok: 147 lagun elkartu ziren bazkaltzeko. Herri kiroltan ere parte-hartzea handia izan zen (argazkikoak). Irrintzi onena egin zuenak, bolotako txapeldunak eta urdaiazpikoaren pisua asmatu zuenak saria jaso zuten.

San Roke jaiak

Abuztuaren 16an ospatu ohi dituzte elgetarrek San Roke kaleko jaiak, erromesen zaindariaren omenez. Bi urteko hutsunearen ondoren, hainbat herritar animatu ziren bezperatik ekitaldietan parte hartzera. Hilaren 15ean, auzotar talde batek makala moztu, herrira eraman eta bertan tente ipini zuen. San Roke egunean meza izan zuten, eta elkarrekin bazkaldu.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 2

ARETXABALETA Ixadebalde azoka

Aretxarteko hainbat merkatarik egingo dute: Haurrak, Asensio, Tak, Belar Meta, Kilima, Almila Shop eta Amaia ume denda. Opari bereziak iragarri dituzte.

Denden aurrealdean, 10:00etan.

ARRASATE Merkemerka

Ibai-arteko hainbat merkatarik egingo dute.

Denden aurrealdean, 10:00etan.

BERGARA Aukenen azoka

Bedelkarreko hainbat merkatarik egingo dute.

Denden aurrealdean, 10:00etan.

ELGETA Odola emateko aukera

Telefonoz hartu behar da txanda gaur bertan, goizez.

Antzokian, 16:30ean.

ARRASATE Hauspo Eguna

18:00etatik 20:00etara, Eskola Plazara ekimena eta, ostean, Xabier Zabala eta Igor Torreren *Sine Die*, Portaloian.

Arrasaten.

OÑATI Bidebarrietako jaiak

18:00etan, jaien hasiera; 19:00etan, txorimaloen kalejira, pintxo poteoa eta garagardo artisauen dastatzea; 21:00etan, beer-pong txapelketa; eta, 22:00etan, La Rekba, Inguma, Dirty Old Gasteiz eta Arene 6 taldeen kontzertuak.

Bidebarrietan.

BERGARA Zabalotegiko jaiak

19:00etan, jaien hasiera; 19:15ean, trikilitariak; 19:30ean, buruhandiak; eta, 20:15ean, barru txapelketa.

Zabalotegi kalean.

ARAMAIO Infraganti taldea

Jazza, blusa eta bestelako doinuak eskainiko ditu Gasteizko laukoteak. Debalde.

Sastiñan, 19:00etan.

ARRASATE Amaia Miranda

Bilboko musikariaren emanaldia, XIV. Kulturate Akustikoen baitan.

Debalde.

Kulturaten, 20:00etan.

ZAPATUA 3

ARETXABALETA Ixadebalde azoka

Aretxarteko hainbat merkatarik egingo dute: Haurrak, Asensio, Tak, Belar Meta, Kilima, Almila Shop eta Amaia ume denda. Opari bereziak iragarri dituzte.

Denden aurrealdean, 10:00etan.

ARRASATE Merkemerka

Ibai-arteko hainbat merkatarik egingo dute.

Denden aurrealdean, 10:00etan.

BERGARA Aukenen azoka

Bedelkarreko hainbat merkatarik egingo dute.

Denden aurrealdean, 10:00etan.

ARRASATE Bisita gidatua**Arrasaten**

11:00etan euskaraz, eta 12:15ean gaztelarez. Izenak emateko: *turismo@arrasate.eus* edo 943-25 20 00.

Herriko Plazan.

BERGARA Zabalotegiko jaiak

11:00etan, umeendako jolasak; 13:00etan, pintxo-potea; 15:30ean, mus txapelketa; 17:00etan, Xalito pailazoaren emanaldia; 17:00etan, bingo jolasa; eta, 19:00etan eta 22:00etan, Jabi Sound.

Zabalotegi kalean.

OÑATI Bidebarrietako jaiak

11:00etan, umeendako puzgarriak eta esku-jolasak; 17:00etan, mus txapelketa; 18:30ean, txorimaloak; 20:00etan, *baffle-poteoa*; eta, 22:00etan, Laket Erromeria, DJ Fresamorango eta DJ Trex.

Bidebarrietan.

OÑATI Espeleotxiki abentura

6 urtetiko gorakoendako ekintza. Aurrez eman behar da izena: 943-08 20 00 edo *arrikruz@onati.eus*.

Arrikruzten, 16:00etan.

ARRASATE Etoile Musette txotxongiloak

Belgikako taldearen emanaldia, Hauspo Egunaren baitan, 18:00etan eta 20:00etan.

Herriko Plazan, 18:00etan.

ARRASATE Dos bikotea

XIV. Kulturate Akustikoen baitan. Debalde.

Kulturaten, 20:00etan.

ARRASATE Faltriqueira taldea

Galiziako taldearen emanaldian, Hauspo Egunaren baitan.

Herriko Plazan, 23:00etan.

DOMEKA 4

ARRASATE Masusta bilketa eta marmelada tailerra

Udalan bilketa egin, eta ingurumen eskolan marmelada egiteko aukera. Izenak emateko: *turismo@arrasate.eus* edo 943 25 20 00.

Herriko Plazan, 09:00etan.

BERGARA Bergarako txistulari bandaren kalejira

Osintxun egingo dute.

Osintxun, 10:00etan.

ARAMAIO Marixekako jaiak

11:00etan, salda eta txorizoa; 12:00etan, meza; 12:45ean, kantu poteoa; 14:30ean, bazkaria; eta, 18:00etan, poneyak eta bigantxak umeendako.

Marixekan.

BERGARA Zabalotegiko jaiak

12:00etan, auzoko hildakoen aldeko meza; 14:00etan, auzo bazkaria, Katarsia taldeak girotuta; 17:30ean, Katarsia taldearen emanaldia; eta, 19:00etan, jaien amaiera

Zabalotegi kalean.

OÑATI Bidebarrietako jaiak

12:00etan, Oñatzeko dantzari gazteen emanaldia; 14:00etan, auzo bazkaria; 19:00etan, Trapu Zaharra taldearen *Turistreatzen* kale-antzerkia; eta, 21:00etan, zozketa eta jaien amaiera.

Bidebarrietan.

ELGETA Punk Oi! jaialdia

Joseba Azkarateren omenezkoa. Sarrerak agortuta.

Protoian.

ARRASATE Arrasate Hiria futbol txapelketa

Bergara, Zumaiako eta Mondra, nor baino nor gehiago.

Mojategin.



FALTRIQUEIRA

ARRASATE Faltriqueira taldea

Galiziako laukotearen emanaldia, Hauspo Egunaren baitan. Ana Leira, Maria Lopez, Carolina Rodriguez eta Maria Teresa Rioboo dira taldeko kideak.

Debalde.

Bihar, zapatua, Herriko Plazan, 23:00etan.

ARRASATE Mice

Miren Narbaizak gidatutako bandaren emanaldia, XIV. Kulturate Akustikoen baitan. Debalde.

Kulturaten, 20:00etan.

MARTITZENA 6

OÑATI 'Osasuna gure esku' hitzaldia

Josep Pamiesek egingo du berba. Sarrerak agortuta.

Santa Anan, 18:30ean.

EGUAZTENA 7

ARAMAIO Ate irekiak musika etxean

Eraikina ezagutu eta ikasturte berrirako informazioa jasotzeko aukera.

Musika etxean, 17:00etatik 19:30era arte.

BERGARA Eguaztenetako azoka

Herriko baseritarren garaiko produktuak erosteko aukera.

Oxirondon, 18:00etan.

ARAMAIO Imanol Ituño magoa

Magialdia Araban jaialdiaren baitan, askotariko trukuak egingo ditu.

Debalde.

Sastiñan, 18:00etan.

LEINTZ GATZAGA Andramaixak

19:00etan, bederatziurrenaren amaiera; eta, 19:30ean, gazta mokadutxo.

Dorletan santutegian.

EGUENA 8

LEINTZ GATZAGA Andramaixak

12:00etan, meza nagusia, Dorleta santutegian; 12:00etan, Otxandioarrei ongi-etorria; 18:00etan, pilota partiduak, mutilak eta neskak; eta, 19:30ean, pintxo pote musikatua.

Leintz Gatzagan.

ARAMAIO Odola emateko aukera

Autobusa kultura etxearen ondoan egongo da, 16:45etik 20:00etara.

Aramaian.

OÑATI Arantzazu auzoko jaiak

Aloña Mendi espeleologia taldekoek Arantzazun egindako ekintzetan ateratako irudiekin emanaldia.

Auzo etxean, 19:00etan.

ARETXABALETA Agorreko Andramaixak

Jaiak hasteko Martin Kabarrirari ongi-etorria egingo diote eta tantaia jaso.

Areantza auzoan, 20:00etan.

EGUBAKOITZA 9

ARRASATE Gelma auzoko jaiak

12:00etatik 14:00etara, herri kirolak umeentzako; 18:00etan, txalaparta doinuak; 19:00etan, saguzarren jaitziera; 20:00ean, *Goazen!* ikuskizuna; eta 21:30ean, AZ Gaubelak.

Gelma auzoan.



AZKEN BERBA

MARIA AGIRRE

Gauetz, etxera

Emakumeei gauetan etxera laguntzeko sareak antolatu dira azken urteetan. Taldean, edo telefono dei batekin, bakarrik baino lasaiago iristen dira neska asko etxera. Beldurra pertsonala da, eta gauak izua biderkatzen du. Horri aurre egiteko neurriak zilegi iruditzen zaizkit. Norberaren esku dago horietaz baliatu ala ez.

Hori esan ondoren... Azken hamarkadetan emakumeak esparru asko irabazi baditu ere, gauean etxera itzultzeko bidean, askatasuna galdu ote dugu?

Ni neu horretaz jabetu nintzen duela urte gutxi. Gaueko ordu txikitan neska bat gerturatu zitzaidan, elkarrengandik gertu bizi ginenez etxera batera itzuliko ote ginen galdetuz. Baiezkoa eman, eta aitortu nion neu ere lasaiago etxeratu nintzela. Ordura arte, horrelakorik egin gabea nintzen. Gazte garaian, etxerako bidean, atariz atari lagun taldea gutxitzen joaten zen, norbait beti azkena eta bakarrik geratuz. Auto-stop egitea ere ohikoa izaten zen. Alboko herrietako jaietatik oinez ere maiz itzultzen ginen. Hori bai, sarritan takarraren amaituz. Kezka, beti. Eta ez, ez ginen ausartagoak.

GOIENA OKM GIDA

"Ikusmen-azterketak egitea beharrezkoa da"

CRISTINA REVUELTA MANSO MANSO OPTIKA

Ikusmen-arazorik ez izan arren, neurriak hartzea eta azterketa bi urtean behin egitea gomendatzen du Revueltak, "gaixotasun batzuk asintomatikoak direlako"

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA

50 urte bete ditu aurten Manso optikak. 1972an zabaldu zuen Pilar Mansok, eta haren alaba Cristina Revueltak eman dio jarraipena negozioari, bokazioz. Dagoeneko 28 urte daramatza lanean. Ikusmen-azterketa osoak, tonometria, erretinografia, kornea-topografia eta halako zerbitzuak eskaintzen dituzte.

Jaiotzeaz zeundela zabaldu zuen zure amak optika.

Zazpi hilabete eta erdiko haurdun zegoen ama. Irekiera data atzeratzen ari zen. Ingurukoek ni jaio arte zain egoteko esan zioten, baina zabalzea erabaki zuen. Lanean aritu zen erditzeko eguna iritsi arte, eta handik egun gutxira itzuli zen. Uste dut ausarta eta berritzailea dela duela 50 urte unibertsitate-ikasketak izan eta negozioa zabalzea. **Argi zeneukan amaren bidea jarraitu nahi zenuela?** Txikitan askotan etortzen nintzen hona, eta asko gustatzen zitzaidan. Medikuntzaren eta optikaren artean neukan zalantza, baina hauxe aukeratu nuen.

Nola aldatu da negozioa urte haue-tan guztietan?

Teknologian aurrerapen asko egon dira, duda barik. Esatera-



Cristina Revuelta, osasun-azterketak egiten dituzten gelan. I.A.A.

Zenbaterik gabeko kontua

"Nire ama bergararra izan arren, garaia dela-eta optika ireki zuenean ez zekien euskaraz. Baserritar asko etortzen ziren hona eta esfortzu handia egiten zuten nire amarekin gaztelaraz hitz egiteko. Gizon batek behin esan zion nire amari: 'Ajustar, ¿ya se podrá?'. Bataurrekoak neurriari jarri zizkionean, kontua eskatu zion, eta 'sin cuenta' esan zion amak. Gizonak berrogeita hamar zelakoan, ez zekiela solte izango zuen esan zion".

ko, kristalak moztea eskulana zen; orain, makinan datuak sartzen ditugu eta hark egiten du. Azterketak ere argiarekin eta lenteak eskuz jarrita egiten ziren. Gaur egun, makina batek ematen dizu informazio guztia. Hala ere, beti irakurri izan dira letrak azterketetan.

Pantaila aurrean denbora asko pasatzen dugu.

Ikerketarik indartsuena miopiaren kontrolarena da; bereziki, haurrena. Bataurrekoekin edo ukipen-lenteekin miopiaren garapena gelditu nahi dute. Miopiak begi-globo handitzen du, eta hori ez du kentzen miopiatik operatzeak. Ondorioz, ebakuntza egin arren, ikusmen-arazoak sor daitezke. Ikusmen arazorik ez izan arren, argi urdinetik babesteko lente neutroak erabiltzea komeni da.

Zenbategin behin egin behar dira ikusmen-azterketak?

Bi urtean behin egitea gomendatzen dugu; arrisku faktoreak badaude, epe laburragoan egiten dira. Oso garrantzitsua da azterketa osoa egitea. Gaixotasun batzuk asintomatikoak dira, eta bila joan arte ez dira aurkitzen. **Bataurrekoak ala ukipen-lenteak?** Pertsona bat mundu bat da. Beharren arabera da. Horretarako, bezeroa bera eta ohiturak aztertu behar dira.

Zure lanaren alderik onena?

Nire lana pila bat gustatzen zait: pazienteen arazoei irtenbidea ematea, eurekin dudaren harremana... Lanera joan behar eta "ze ondo!" esatea gozamina da.

Goiena OKm
Gidaren
eskaintza
osoa



goiena
Okm
gida

Guztion eskola,
guztion artean

EPA · HHI

Helduen Hezkuntza

goieskola

EPA ARRASATE HHI
www.epaarrasate.hezkuntza.net
Arrasate Pasealekua 1-5
Tel.: 943 77 11 72

EPA BERGARA HHI
www.epabergara.hezkuntza.net
Barrenkale 33
Tel.: 943 76 44 52

MATRIKULAZIOA: IRAILAK 1-15